

EUSKADIKO  
20**20**rako  
**INGURUMEN**  
**ESPARRU**  
PROGRAMA



**EBALUAZIO-  
TXOSTENA**  
20**17**

Edizioa: 2018ko Ekaina

© Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa

Argitaratzailea:

Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa  
Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza saila  
Eusko Jaurlaritza-Gobierno Vasco  
Alda. de Urquijo n.º 36-6.<sup>a</sup> (Plaza Bizkaia)  
48011 Bilbao  
info@ihobe.eus  
www.ihobe.eus  
www.ingurumena.eus

Edukia:

2020rako IEParen ebaluazio-txostena Naiderreko pertsonalak prestatu du, Ihobek eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Politika eta Etxebizitza Saileko Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak koordinatuta.

Oharren bat egin nahi izanez gero, bidali mesedez helbide honetara: alexander.boto@ihobe.eus

## EDUKIEN AURKIBIDEA

|                                                                                         |           |
|-----------------------------------------------------------------------------------------|-----------|
| <b>LABURPENA</b>                                                                        | <b>4</b>  |
| <b>1 EUSKADI EKONOMIA LEHIAKOR, KARBONO ISURKETA TXIKIKO ETA ZIRKULAR BIHURTZEA</b>     | <b>9</b>  |
| 1.1 EKONOMIA ZIRKULARRA GARATZEA ETA BALIABIDEEN ERABILpenAREN ERAGINKORTASUNA HOBETZEA | 9         |
| <i>Ekonomia zirkularrera zuzendutako neurriak</i>                                       | 9         |
| <i>Baliabideen produktibitatea. Ekonomia zirkularraren aurrerapenen adierazle bat</i>   | 10        |
| <i>ETeak eta baliabideen eraginkortasuna</i>                                            | 11        |
| <i>Enplegu berdea</i>                                                                   | 12        |
| <i>Ekoberrikuntza</i>                                                                   | 13        |
| 1.2 HONDAKINEN KUDEAKETA                                                                | 15        |
| 1.3 karbono isurketa txikiko ekonomia bultzatzea                                        | 17        |
| <b>2 KAPITAL NATURALA BABESTE, KONTSERBATZEA ETA INDARTZEA</b>                          | <b>20</b> |
| 2.1 NATURA ETA BIODIBERTSITATEA                                                         | 20        |
| <i>Kapital naturalaren estimazioa</i>                                                   | 23        |
| 2.2 AZPIEGITURA BERDEA                                                                  | 24        |
| 2.3 LURZORUAREN BABESA                                                                  | 27        |
| 2.4 ITSASOAREN BABESA                                                                   | 29        |
| <b>3 HERRITARREN OSASUNA ETA BIZI-KALITATEA BERMATZEA</b>                               | <b>32</b> |
| 3.1 AIREAREN KALITATEA                                                                  | 32        |
| 3.2 ZARATA                                                                              | 35        |
| 3.3 uraren kalitatea eta kudeaketa                                                      | 37        |
| 3.4 hirien JASANGARRITASUNA HOBETZEA                                                    | 40        |
| <b>4 MERKATUAN OINARRITUTAKO TRESNAK ETA INBERTSIOA</b>                                 | <b>48</b> |
| 4.1 INBERTSIO PUBLIKOAK ETA EUOPAR BATASUNAREN FUNTSEN EKARPENA                         | 48        |
| 4.2 KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEA                                                          | 50        |
| 4.3 fiskalitate ekologikoa eta ingurumenerako diru-laguntzak                            | 54        |
| <b>5 GOBERNANTZA ERAGINKORRA ETA EZAGUTZA</b>                                           | <b>59</b> |
| 5.1 GOBERNANTZA ERAGINKORRA GOBERNU MAILA GUZTIETAN                                     | 60        |
| <i>Arauak aplikatzeko ahalmena</i>                                                      | 60        |
| <i>Koordinazioa eta integrazioa</i>                                                     | 60        |
| 5.2 Parte-hartze publikoa eta justiziarako sarbidea                                     | 62        |
| 5.3 INFORMAZIO, EZAGUTZA ETA FROGETARAKO SARBIDEA                                       | 65        |
| <b>6 1.ERANSKINA. TXOSTENA EGITEKO METODOLOGIA.</b>                                     | <b>67</b> |
| 6.1 IEP-AREN JARRAIPEN ETA EBALUAZIO PROZESUA                                           | 67        |
| 6.2 EUROPAKO INGURUMEN POLITIKAREN ETA iep-AREN EBALUAZIOA                              | 67        |
| 6.3 elkarrizketak pertsona aditu INDEPENDENTEEKIN                                       | 71        |
| 6.4 Udal administrazioei zuzendutako inkesta                                            | 71        |

# LABURPENA

## IEP-AREN BITARTEKO EBALUAZIOA ETA BERAREN TXERTAKETA INGURUMEN-POLITIKAREN BERREIKUSPENAREN EUROPAR ESPARRUAN

2020rako Ingurumen Esparru Programak jarraipen- eta ebaluazio-prozesu propio bat du atxikita. Alde batetik, aurreikusita dago bi urtetik behin jarraipen-txostenak egitea (lehenengoa eginda dago jadanik), 75 jardueren eta 6 Proiektu Giltzarrien aurrerapena aztertzeko; bestetik, aurreikusita dago programak Ingurumenean duen inpaktuari buruzko bitarteko ebaluazio bat eta amaierako ebaluazio bat egitea.

Dokumentu hau bitarteko ebaluazioaren txostena da, eta euskal ingurumen-politikaren garapena eta irismena aztertzen ditu, lehenengo jarraipen-txostenaren emaitzetatik abiatuta eta ingurumenaren bilakaerari buruz eskura dagoen informazioa oinarritzat hartuta. Txosten honen emaitzak baliagarriak izango dira proposatutako helburu estrategikoen lorpenean egindako aurrerapenak ezagutzeko, euskal ingurumen-politikaren erronkak, aukerak eta bikaintasun-puntuak nabarmentzeko eta, azkenik, proposa litezkeen jarduerak identifikatzeko, horren bidez hobetzeko 2020rako IEParen gauzapena bere azken etapan, hots, 2018-2020 aldian.

Alderaketak Europarekin egin ahal izateko, erabaki dugu 2020rako IEParen bitarteko ebaluazio-txosten honen formatua Europako herrialde guztiek erabiltzen duten berdina izatea, alegia, ingurumen-politikaren aplikazioaren berrikuspenean (Environmental Implementation Review: EIR, bere ingelesezko siglengatik) Europako Batzordeak erabiltzen duena<sup>1</sup>. Alde horretatik, 2020rako IEParen bitarteko ebaluazio-txostenak Europako herrialdeek egindako 28 txostenen antolaera berdina du, kapitulu eta azpikapitulu aldetik<sup>2</sup>. Hala, dokumentuan jorratutako eremu bakoitza europar zuzentaraua aplikatzen duten herrialde guztientzat komuna den erredakzio batez hasten da. 2020rako IEParen bitarteko ebaluazioaren kasuan ere, erabaki da horrela jokatzela.

Europako ingurumen-politikaren balorazioaren lehenengo urrats gisa, Batzordeak hogeita zortzi txosten erredaktatu zituen, ingurumen-politikaren aplikazioak EBko estatu kide bakoitzean planteatzen zituen erronka eta aukera nagusiak deskribatzeko. Txosten horiek eztabaida positibo bat piztu nahi zuten, bai EBk konpartitzen dituen ingurumen-erronkei buruz eta bai aplikazioaren gabezia nagusiei heltzeko modu eraginkorrenari buruz. Txostenak aplikazioari buruzko txosten sektorialetan oinarritzen dira. Txosten horiek xehetasun ugari azaltzen dituzte, eta Batzordeak bildutakoak edo argitaratutakoak dira, ingurumen-legedi espezifikoaren arabera. Orobat, oinarritzat hartzen dute ingurumenaren egoerari buruzko 2015eko txostena eta Europako Ingurumen Agentziaren beste txosten batzuk. Txosten horiek ez dituzte ordezkatzeko EBren betebeharrak juridikoen betearazpena bermatzeko eskura dauden tresna espezifikoak.

---

<sup>1</sup> Komunikazioa: «EBren ingurumen-politiken onurak erreal bihurtzea, haien aplikazioa aldizka berraztertzearen bidez» ([COM\(2016\) 316 final](#))


<sup>2</sup> [Country reports of the European Implementation Review \(EIR\)](#)

Orokorrean, txostenek Ingurumenaren alorreko zazpigarren Ekintza Programaren<sup>3</sup> eskema berbera erabiltzen dute, eta erreferentziatzat hartzen dituzte Garapen Jasangarriko 2030rako Agenda eta berarekin lotutako garapen jasangarriaren helburuak (GJH)<sup>4</sup>, EBko ingurumen-legedian dauden betebeharrak eta helburu politikoak islatzen dituzten neurrian. Europako txostenetan ez bezala, IEParen bitarteko ebaluazio-txosten honetan bai sartzen dira klima-aldaketa eta energiaren ingurumen-alderdiak, zeren horiek IEParen helburu estrategikoetan txertatuta baitzeuden<sup>5</sup>.

## INGURUMENA EUSKADIN

Azken hamarkadotan, Euskadik urrats garrantzitsuak egin ditu ingurumenaren alorrean modernizatzeko eta herrialde aurreratuarekin parekatzeko. Urte hauetan, ia “0”tik hasita, ingurumen-azpiegiturak diseinatu eta eraiki dira, sistema instituzional eta legal konplexu bat itxuratu da, eta bere ingurumen-adierazle nagusiak gero eta gehiago hobetu dira; gainera, adierazle horien monitorizazio zehatza egin da, aldian-aldian.

### 0.1. Grafikoa. Ekonomiaren eta ingurumenaren desakoplamendua, Euskadi 2000-2015



Iturria: Eustat eta Eusko Jaurlaritza. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Ingurumen-adierazleak<sup>6</sup>.

Izatez, oso eskualde industrializatua izan arren, eta, hortaz, ingurumen-presio handiak jaso arren, Euskadi bere ingurumen-jokabide onagatik nabarmentzen da gaur egun; horren erakusgarria da laugarren postuan dagoela, 132 herrialderen artean, Ingurumen Errendimenduaren Indizean (EPI)<sup>7</sup>, eta, halaber, 2000 eta 2015 bitartean euskal ekonomia nabarmen desakoplatu dela (BPGaren hazkunde erreala % 26 izan da) ingurumen-adierazle nagusiekin: Barneko Energia-kontsumoa (% 6ko jaitsiera), Berotegi Efektuko Gasak (BEG) (%

<sup>3</sup> Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1386/2013/EB Erabakia, 2013ko azaroaren 20koa, Europar Batasunaren 2020ra arteko Ingurumen Ekintza Programa Orokorriari buruzkoa: “[Ondo bizi, gure planetako mugak errespetatuz](#)”.

<sup>4</sup> Nazio Batuen Erakundea, 2015. “[Garapen Jasangarriaren Helburuak](#)”.

<sup>5</sup> 28 EIR txostenek ez dituzte barne hartzen ez klima-aldaketa, ez produktu kimikoak eta ezta energia ere.

<sup>6</sup> “[EAEko Ingurumen-adierazleak, 2016](#)”, 2017ko abenduan argitaratuak.

<sup>7</sup> “[Ingurumen Errendimenduaren Indizea \(IEI\), 2013, Euskadi](#)”. Ihobe.

27ko jaitsiera), Materialen Barne-kontsumoa (MBK) (% 25eko jaitsiera), PM 10 Partikulak (% 37ko jaitsiera) eta zabortegira eramandako Hiri-hondakin Solidoak (% 56eko jaitsiera).

## ERRONKA NAGUSIAK

Epe ertain eta luzera, Euskadik ingurumen-erronka mardulak ditu aurrez aurre, hala nola:

- **Karbono gutxiko ekonomiaren egituraketan aurrera egitea**, gasa txertatzeari esker egindako urrats handia aprobetxatuz; halaber, aurrera egin behar da energia aurrezteko eta haren eraginkortasuna hobetzeko eredu berrien ezarpenean, energia-ekoizpen berriztagarriko iturri berriak txertatzeaz batera. Erronka hau bereziki esanguratsua da garraio-sektorerako, batez ere pertsonen mugikortasunerako, zeren gero eta neurri handiagoan integratu behar baita lurralde-antolamenduari, hiri-plangintzari eta trafikoaren kudeaketari buruzko politiketan.
- **Aurrera egitea, modu esanguratsuan, habitaten kontserbazio-egoeraren** eta animalia-bizitzaren **hobekuntzan**; *Natura 2000 Sarearen* eremuen kudeaketa eraginkorra garatu behar da, eta, horrekin batera, naturaren balioa nabarmentzea ahalbidetzen duten sistemak garatu behar dira, euskal herritar guztientzat aukera-iturria izan daitekeen osoko garapen jasangarriko beharrezkoa den kapitalaren zati gisa.
- **Ahalik eta gehien aprobetxatzea ingurumena hobetzen duten enpresa-jardueretan agertzen diren ekintzailtza-nitxoak**, eta baita ekoizpen-prozesuak eta produktuak “berdeagotzetik” enpleguaren maila eta kalitaterako sortzen diren aukerak ere, ekonomiaren sektore guztietan.
- **Aurrera egitea ingurumenaren alorreko araudiaren eta politikaren eraginkortasunaren ebaluazioan**, haien inpaktu erreala, abiatutako tresnen baliozkotasuna eta egindako inbertsioak baloratzuz.
- **Aurrera egitea ingurumen-eskumenak dituzten administrazio publikoen arteko koordinazio erreal eta eraginkorrean**. Batez ere Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien artean, ingurumen-afekzio eta -inpaktu nagusiak modu integral, sistemiko eta eraginkorrean kudeatu daitezten.
- **Politika fiskal sistemiko bat abiatzea, ingurumen-politikaren helburuekin integratua**, baliabideak xahutzen dituzten edo jasangaitzak diren jarduerak zigortzeko eta ehun industrial eta energetiko garbi eta berritzailea sendotzen dutenak bultzatzeko.

## AUKERA NAGUSIAK

Euskadik batez ere alor hauetan hobetu lezake bere ingurumen-politikaren errendimendua:

- **Ekonomia zirkularraren** aprobetxamendua, fabrikazio-prozesuen eraginkortasuna hobetzeko, enpresa-lehiakortasuna akuilatzeke, eta materialen zirkulartasunean eta serbitzizazioan oinarritutako negozio-eredu berrien onura ekonomiko eta sozialez gozatzeko. Elikadura zirkularra, nekazaritzako produktuen zikloen itxierarekin, interes bereziko kasu bat da, bai bere onura ekonomikoengatik eta bai pertsonen osasun eta ongizatean dituen zuzeneko inpaktuegatik.
- Ingurumena pertsonen osasunaren funtsezko sektore gisa aprobetxatzea; horrek gizarte eta ekonomian du eragina. **Aire eta uraren kalitatearen eta osasunaren artean** dagoen lotura estua sakontzea, herritarren ongizatean aurrera egiteko eta ahalik eta gehien hobetzeko.
- **Erosketa publiko berdearen** diseinu eta ezarpenean Euskadin egindako aurrerapenak garapen-ahalmen handia erakusten dute, eta euskal administrazio publikoen ingurumen-jokabidea hobetzeko aukera ere eskaintzen dute.

## BIKAINTRASUN-PUNTUAK

Ingurumen-politikaren inplementazioari dagokionez, Euskadi liderra da gai hauetan, beste batzuen artean:

- **Aire eta uraren kalitatearen bilakaera positiboa.** Izan ere, pertsonen osasunerako orain dela urte gutxi zeuden kutsadura- eta arrisku-arazo nabariak atzean geratu dira.
- **Baliabide naturalen produktibitatea.** BPGaren hazkunde errealari lotuta -2003tik 2015era % 16 izan zen-, baliabideen produktibitatea % 116 hazi zen Euskadin, eta, hala, adierazlea EB28koa baino % 47 handiagoa da.
- **Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarea, Udalsarea 21.** Euskadik tokiko jasangarritasuna koordinatzeko, dinamizatzeko eta bultzatzeko foro bat du, 178 euskal udalerriz osatua. Lankidetzaren instituzional hori funtsezko elementu bat da, zeren sarea bultzatu eta ahalegin guztiak norabide berean biltzen baititu: benetako garapen jasangarria lortzea euskal udalerrietan.
- **Jasangarritasunerako hezkuntza.** 2010 urtean, Nazio Batuen Erakundearen Garapen Jasangarriko Hezkuntzaren Hamarkada ekimenak jardunbide egokitzat hartu zuen Euskadiko Eskolako Agenda 21. 2014an onartutako Heziberri 2020 Planean, jasangarritasuna Euskadiko hezkuntza-eredu pedagogikoaren lehentasunezko ardatzen artean sartzeko jarraibideak daude ezarrita.

## I. ATALA. EREMU TEMATIKOAK

# 1 EUSKADI EKONOMIA LEHIAKOR, KARBONO ISURKETA TXIKIKO ETA ZIRKULAR BIHURTZEA

## 1.1 EKONOMIA ZIRKULARRA GARATZEA ETA BALIABIDEEN ERABILPENAREN ERAGINKORTASUNA HOBETZEA

| EUOPAR POLITIKA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      | 2020rako IEP                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p>Ekonomia zirkularrari buruzko 2015ko paketeak ekonomia "zirkularrerantz" aurrera egiteko beharra azpimarratzen du; ekonomia hori bizi-zikloak gidatuta dago, baliabideak kate moduan erabiltzen dira bertan, eta hondakinak ia osorik ezabatzen dira. Horretarako, lagungarria izan daiteke ekoberrikuntzara zuzendutako funts eta tresna finantzario berritzaileak sortzea eta horiek eskuratzen laguntzea.</p> <p>8. GJHak eskatzen die herrialdeei hazkunde ekonomiko iraunkor, inklusibo eta jasangarria sustatu dezatela, eta baita osoko enplegu produktibo eta lan duina ere guztionez. 9. GJHak dio beharrezkoa dela azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusibo eta jasangarria bultzatzea eta berrikuntza sustatzea. 12. GJHak kudeaketa eraginkorra eta baliabideen erabilera eraginkorra 2030 urterako lortzera animatzen ditu herrialdeak.</p> | <p>Ekonomia zirkularra 2020rako IEParen 2. helburuan jasotzen da: "Ekonomia lehiakor, berritzaile, karbono isurketa txikiko eta baliabideen erabilpenean eraginkor baterantz aurrera egitea".</p> <p>IV. IEPak helburu estrategikotzat hartzen du Euskadik bere lehiakortasuna indartu dezala 2020rako, hazkunde jasangarriago baten bitartez, karbono gutxi isurtzen duen eta baliabideak eraginkortasunez eta modu jasangarrian erabiltzen dituen ekonomia bat garatuz, ingurumenak eskaintzen dituen merkatu-aukerak aprobetxatuz, berrikuntza eta espezializazio adimenduna oinarritzat hartuta.</p> <p>Bere jarduera-planean lau jarduera-lerro ezartzen dira, eta horiek bideratzera zuzendutako 14 jarduera. IEParen 6 proiektu giltzarrietatik, Fabrikazio berdearena ekonomia zirkularrean aurrera egitera dago zuzenduta.</p> |

### Ekonomia zirkularrera zuzendutako neurriak

Euskal ekonomia eredu linealetik eredu zirkularrera eraldatzea oso aukera ona da ekonomiaren produktibitatea eta lehiakortasuna, herritarren ongizatea eta ingurumena hobetzeko<sup>8</sup>.

Euskadiko ekonomia zirkularraren aldeko sostenguak hiru politika biltzen ditu, hots, ekonomikoa, energetikoa eta ingurumenekoa, hirurak espezializazio adimendunaren estrategian uztartuz: euskal RIS 3. Horren helburua da bultzada berri bat ematea euskal ekonomiaren sektore garrantzitsuenei, berrikuntza eta teknologia oinarritzat hartuta. Euskal RIS 3 estrategian aukeratutako hiru eremu estrategikoak fabrikazio aurreratua, energia eta osasuna dira; horien artean, lehenengoak zuzeneko eta berezko lotura du ekonomia zirkularrarekin. Beste biak ere lotuta daude, baina lotura hori zeharkakoagoa da, eta seguruena epe luzearako horizonte batean.

**Fabrikazio aurreratuak** KETen<sup>9</sup> aplikazioak eta ekoberrikuntza biltzen ditu eredu industrial berri bat lortzeko bide gisa, alegia, maila globalean lehiakorra den, baliabideak aurrezten dituen eta ingurumena errespetatzen duen eredu industrial berri bat lortzeko bide gisa. Euskal enpresek oso potentzial handia dute, ondo egiten dakitena aprobetxatuz, metalen, mekanikaren eta makinaren alorretan; ildo beretik, aurrera egin dezakete baliozko elementu diferentzialak eskaintzen dituzten

<sup>8</sup> Europako Batzordea, 2015. Ekonomia zirkularrari buruzko neurrien europar paketea. [http://europa.eu/rapid/press-release\\_IP-15-6203\\_es.htm](http://europa.eu/rapid/press-release_IP-15-6203_es.htm)

<sup>9</sup> KETak (Key Enabling Technologies), Europako Batzordearen arabera definituak: mikro eta nenoeltronika, nanoteknologia, bioteknologia industrial, material aurreratuak, fotonika eta manufaktura aurreratuko teknologiak.

produktu eta zerbitzu berrien sorreran, teknologia, diseinua eta marketina aprobetxatuz, merkatuko potentzial handia duten eta tokiko eta maila orokorreko jasangarritasunerako bidearekin zerikusia duten nitxo berrietara iristeko; horri lotuta daude, halaber, optimizazio teknologikoa eta prozesu ekoeraginkorrak, ekodiseinatutako produktu berdeago berriak, eta materialen zein azpiproduktuen aprobetxamendua.


Bere jarduera-planean, IEPak materialen kontsumoaren optimizazioa lehenesten du lehiakortasuna hobetzeko bide gisa, produktu eta prozesu eraginkorrako eta lehiakorragoen bitartez (2. helburu estrategikoa, 2.2. jarduera-lerro). Atal horretan, ingurumen-politikaren aldetik Fabrikazio aurreratuaren strategiari egin dakioken ekarpena, ekoizpen berderako eta materialen aprobetxamendurako ekimenak identifikatuz, inpaktu potentzial handiko jarduera gisa konfiguratzeko da; gainera, agerian uzten du Eusko Jaurlaritzaren Sailen arteko lankidetzaren garrantzia, elkarrekin batera garapen jasangarriaren alde egiteko.

Halaber, IEPak ekonomia zirkularraren alde egiten du, hau da, alferrikako galerarik gabeko ekonomiaren alde (2. helburu estrategikoa, 2.3. jarduera-lerroa), hondakinen alorrean ekonomiari irekitzen zaion aukera-eremu handia azpimarratuz. Hondakinak gutxitzen badira, pertsonen osasunak eta ekosistemek dituzten arriskuak ere gutxitzen dira, produktibitatearen indizeak hobetzen dira, eta aukera-nitxo berriak sortzen dira haien balorizaziorako, ideia eta teknologia berrien bitartez. Alor horretan, 2020rako IEPak bereziki azpimarratzen du eraikuntzako baliabideen erabilerraren eraginkortasuna, horien bizitza-ziklo osoan (hori logikoa da, hondakin horien bolumenagatik); horrek aldaketak ekarriko ditu erregulazioetan, eta kudeaketarako prozedura eta praktika berriak enpresetan, sektoreko balio-katean diharduten eragileentzat. Aldaketa horiek akuilatze xedez, laguntzak daude ezarrita EEHak kudeatzeko planak erredaktatzeko eraikuntza-eta/edo zaharberritze-obretan.

## **Baliabideen produktibitatea. Ekonomia zirkularraren aurrerapenen adierazle bat**

Ekonomiaren alorrean, baliabide materialen erabilera adierazle nagusietako bat da beraren zirkulartasunerako joera neurtzeko. Euskadiren kasuan, datuek Euskadik Europan duen lidergoa islatzen dute. 2015ean, Euskadiren produktibitate materialaren ratioa gainditzen zuten bakarrak Italia, Luxenburgo, Herbehereak eta Erresuma Batua izan ziren, eta 2010az geroztik izan duen hazkunde-tasak ia bikoizten du EB 28ko batez besteko tasa.

### 1.1. Grafikoa. Baliabideen produktibitatea BPG/MBK. BPG, erosteko ahalmenaren parekotasunean –EAP-, 2015 urtea erreferentziatzat hartuta



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Ingurumen-adierazleak.

Ebidentziak erakusten du euskal industriarentzat badirela aukera ugari ekonomia zirkular berri honetan. Adibidez, 2015ean kalkulatu da euskal industriara sartu ziren lehengai guztien % 10 hondakin bihurtu zela, eta % 4 inolako aprobetxamendurik gabe bota zela<sup>10</sup>. Egindako estimazioen arabera, ezabatutako hondakinen bolumen horren balioa gutxienez 44 milioi euro izan ziren urtean (2012ko datuak)<sup>11</sup>. Baina, are gehiago, lehengaien erabileraren inefizientziek aurrezteko ahalmen handia eskaintzen dute, ekoizpen-prozesuak hobetzeko eta berriztatzeke neurrien bitartez. Hala, material kritikoen kontsumoaren aurrezpena ere kontuan hartuta (217.000 tona urtean), estimatu da Euskadik 830 milioi euro baino gehiago aurreztu ditzakeela urtean (Euskadiren 2014ko BPGaren % 1,2). Gainera, aurrezpen horri ekodiseinuak enpresentzat dituen zuzeneko onurak gehitu behar zaizkio, zeren horrek nabarmen handituko bailituzke haien salmenta-marjinak; berriki egindako azterlanen arabera, iguera hori % 5 izango litzateke, batez beste<sup>12</sup>.

### ETeak eta baliabideen eraginkortasuna

Euskal enpresa-ehuna osatzen duten enpresa gehienak txikiak edo oso txikiak dira. EAEko establezimendu industrialen % 74k 10 langile baino gutxiago ditu, eta enplegu industrialaren % 56 100 langile baino gutxiago dituzten establezimenduetan dago. Beste alde batetik, establezimendu industrialen % 0,2k soilik –enplegu industrialaren % 15 - ditu 500 langile edo gehiago<sup>13</sup>.

<sup>10</sup> Geuk egindako kalkulua, datu hauetatik abiatuta: Eusko Jaurlaritza. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Materialen Fluxuaren Estatistika, 2016 eta EAEko Hondakin Arriskutsuen Estatistika, 2015.

<sup>11</sup> Ihobe. Fabrikazio Berdea Euskadin. 2020rako Ingurumen Esparru Programa (2016ko txostena). Proiektuaren Aurkezpena.

<sup>12</sup> Ihobe. Fabrikazio Berdea Euskadin. 2020rako Ingurumen Esparru Programa (2016ko txostena). Hondakinetan gordetako materialen balioa: ekonomia zirkularrerako aukerak Euskadin.

<sup>13</sup> EUSTAT. Ekonomia-jardueren direktorioa, 2017/01/01.

Alde horretatik, ekonomia zirkularraren potentziala Euskadin ahalik eta gehien aprobetxatzeko xedez, abian jarri diren tresnek –enpresak sustatzeko tresna gehienek bezala– kontuan hartzen dituzte enpresa mota horren berezitasunak eta elkarlaneko proiektu ekoberritzaile konpartituak sustatzen dituzte; horrelakoetan, zenbait eragilek parte hartzen dute produktu jakin baten balio-kate osoan.

Eskura dauden azken datuen arabera<sup>14</sup>, euskal enpresa industrial txikien % 34k (ertainen % 60k) kontsideratzen zuen ingurumen-neurriak bere prozesu edo produktuetan ezartzeak nabarmen hobetuko zuela enpresaren lehiakortasuna. Aurreko hiru urteetan, euskal enpresa industrial txikien % 48k (ertainen % 75ek) neurriak ezarri zituen bere ekoizpen-prozesuetan, % 36k (% 56) bere produktuetan eta % 32k (% 29) bere zerbitzuetan, eta horren bidez ingurumen-inpaktua murriztu zuten.

## Enplegu berdea

Europa mailan egindako azterlan ugari adierazten duten bezala<sup>15</sup>, ekonomia zirkularraren aurrerapenak berekin dakarren eraldaketak okupazio kualifikatua lortzeko aukerak zabaltzen ditu, bai enplegua bilatzen duten pertsonentzat eta bai irekitzen diren enpresa-aukerak aprobetxatzen dituzten ekintzaileentzat<sup>16</sup>.

2010eko datuekin, enplegu berde tradizionalak (ekoindustria) 24.202 langile zituela estimatu zen<sup>17</sup>; gainera, aurreikusten zen urtean % 4ko hazkundea egongo zela, batez beste, 2020an 36.202 langile izan arte. Nolanahi ere, gero ez da zifra horren jarraipenik egin. Egon ere ez dago sortu berri diren negozio ekoberritzaileei buruzko daturik.

Euskadik badu ekintzailtzari laguntzeko ekosistema zabal eta sendo bat, Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek eta Udalek gidatua; sistema horrek laguntzarako azpiegitura oso espezializatuak ditu (BICak, parke teknologikoak, mintegiak, coworking esparruak...), baita hainbat eragileren parte-hartzea ere, bai publikoak (unibertsitateak, ikerketa-zentroak, TKNIKA, lanbide heziketako zentroak, eta abar) eta bai pribatuak (zentro teknologikoak, finantza-erakundeak, Merkataritza ganberak, Enpresa-elkarteak, enpresa espezializatuak...).

Ekintzailtzaren euskal ekosistemak Ekintzailtzako Erakunde Arteko Planaren (EEP 2020) laguntza du bere garapenerako; izan ere, hori da plangintza egiteko eta lehentasunak ezartzeko esparru estrategiko komuna, Euskadiko erakunde arteko mailan. Ekintzailtza berdea izaten ari den eta etorkizunean izan dezakeen garrantzia kontuan hartuta, oso positiboa izango litzateke Plan horren eta 2020rako IEParen arteko lankidetzaren estutzea, sinergiak ahalik eta gehien aprobetxatzeko eta ekintzaile berdeek ahalik eta gehien aprobetxatu ditzaten eskura dauden baliabideak.

---

<sup>14</sup> [Euskal Autonomia Erkidegoko 2011ko ekobarometro industriala](#)

<sup>15</sup> <http://ec.europa.eu/environment/enveco/studies.htm>

<sup>16</sup> Brusela, 2014.7.2 COM(2014) 446 final. BATZORDEAREN KOMUNIKAZIOA EUROPAR PARLAMENTUARI, KONTSEILUARI, EUROPAKO EKONOMIA ETA GIZARTE KONTSEILUARI ETA ESKUALDEETAKO LANTALDEARI. Enplegu Berdearen Ekimena. Ekonomia berdeak enplegua sortzen duen ahalmena aprobetxatzea. "Iturri berriztagarrietatik datorren energiaren ekoizpenari, eraginkortasun energetikoari, hondakinen eta uraren kudeaketari, airearen kalitateari, biodibertsitatearen lehengoratzeko eta zaintzari eta azpiegitura berdeen garapenari lotutako enplegua sortzeko ahalmena esanguratsua da, eta mantendu egiten da enpresa-zikloak aldatu arren". <http://ec.europa.eu/transparency/regdoc/rep/1/2014/ES/1-2014-446-ES-F1-1.Pdf>

<sup>17</sup> "Merkatu eta enplegu berdeak". Ihobe, 2011.

## Ekoberrikuntza

Berrikuntzari buruz indarrean dauden definizio nagusiekin bat etorriz, ekoberrikuntza modu sistemikoan ulertzen da Euskadin: prozesu bat da, non ingurumenak eta berrikuntzak elkar berrelikatzen duten. Hau da, ekoberrikuntza da enpresaren eta enpresak merkaturatzen dituen produktuen/zerbitzuen ingurumen-inpaktua murrizten duten prozesuak, sistemak edo lan-formak ezartzea, horren bidez garapen ekonomiko jasangarriagoaren alde eginez. Ekoberrikuntzak berrikuntza mota guztiak hartzen ditu barne, bai teknologikoak (produktua eta prozesua) eta bai ez-teknologikoak (antolaketa, merkaturak, negozio-eredua), eta beraren elementu nagusiak beritasuna, osagarritasuna eta ingurumen-hobekuntza garbia dira.

Baliabideen eraginkortasunaren alde egiteaz batera, 2020rako IEPak ekoberrikuntzaren bultzadarekin zerikusia duten ekimen garrantzitsuak ere jasotzen ditu, espezializazio adimendunaren estrategia fabrikazio aurreratuaren eremuan garatzen eta ezartzen laguntzeko. Horren adibide on bat da ekoberrikuntza eta ekodiseinuko enpresa-proiektuen alde emandako sostengua; alde horretatik, bereziki azpimarratu behar dira “Basque Ecodesing Center” zentroaren jardunaren garapen eta finkapenean egindako aurrerapenak, zentro horrek ekodiseinuaren metodologiak ehun industrialean txertatzen laguntzen duen zentro eragilea izan dadin.

Ez dago ekoberrikuntza gure inguruneke beste eremu geografiko batzuekin alderatzea ahalbidetzen duen adierazle objektiborik. Hala eta guztiz ere, A. Ansuategik eta beste autore batzuek<sup>18</sup> kalkulatu dute 2011n 161 milioi euro inguru inbertitu zirela ekoberrikuntzan Euskadin (berrikuntzan egindako inbertsio osoaren % 28), eta haxe ondorioztatzen dute: zuzeneko eta zeharkako efektuak kontuan hartuta, inbertsio horri esker euskal ekoizpena 1.967 milioi euro hazi zen eta 11.280 lanpostu sortu ziren.

Ekoberrikuntzak Euskadirentzat duen garrantzia islatzen duten beste adierazle batzuk honako hauek dira: euskal enpresa industrialek ingurumenaren babesean egindako inbertsioen balioa: 30,8 M€<sup>19</sup> 2015ean; edo ingurumen-ziurtagiria duten enpresen kopurua: 1.578<sup>20</sup> izan ziren 2017an. Horien artean, 1.268 enpresak ISO 14001 lortu zuten (582,8 ziurtagiri milioi biztanle bakoitzeko, oso zifra handia Europakoarekin alderatuta), eta 91 EMAS ziurtagiria dute (Espainian 943 enpresak dute ziurtagiri hori, eta EB osoan 3.921 enpresak, 2015ean<sup>21</sup>). Gainera, Euskadik EBko etiketa ekologikoen 39 lizentzia ditu (Espainiak 226 eta EB osoak 2.130<sup>22</sup>), eta, hortaz, Europako buruan dago lizentzien eta biztanleen arteko proportzioaren ikuspuntutik.

Ekoberrikuntza teknologiko eta ez-teknologikoaren alorrean interes berezia duen eremu bat produktuen fabrikazio-lineen zikloak ixtearekin zerikusia duen lana da, ziklo horiek hondakin kantitate nabariak sortzen baitituzte gaur egun. Eremu horretan, banakako proiektu ekoberritzaileak aktibatzeke lanak egiten ari dira; elkarlanean, berriz, borondatezko akordio

---

<sup>18</sup> A. Ansuategi, M. Escapa, I. Galarra, M. González-Eguino. “Ekoberrikuntzaren eragin ekonomikoa Euskadin. Hurbilketa kuantitatibia”. EKONOMIAZ 2014, Volume 86, Issue 02.

<sup>19</sup> INE, 2017, Industriak ingurumen-babesean egindako gastuari buruzko inkesta.

<sup>20</sup> Ihobe, “Ingurumen-ziurtagiria duten enpresak”, 2017/12/28an kontsultatutako basea.

<sup>21</sup> [Organisations and sites with eco-management and audit scheme \(EMAS\) registration](#)

<sup>22</sup> 2017/12/28an kontsultatutako datuak, hemen: <http://ec.europa.eu/environment/ecolabel/facts-and-figures.html>

sektorialak bultzatzen ari dira hondakinak ahalik eta gehien berrerabiltzeko. Horri lotuta, askotariko txosten tekniko eta estrategikoak ere egiten ari dira. Orobat, Europako EGEF Funtsaren laguntzarekin, eta 2020rako IEParen gidalerroen esparruan, 2015 eta 2016an 30 proiektu abiatu dira ekonomia zirkularra frogatzeko.

Sektore publikoaren eremuan, jokabide jasangarriak bultzatzen ari dira udal mailan, euskal udalak proiektu berritzaileak egitera bultzatuz.

### **Proposatutako neurriak**

- Ekonomia zirkularreko estrategia espezifiko eta integral bat lantzea Euskadirentzat, orain arte ez baitago horrelakorik. Horri begira, gobernantza maila guztien arteko lankidetza indartu behar da, eta baita sektore pribatuarekiko lankidetza ere. Estrategia horretan, ekodiseinua eta euren emaitzekin ingurumena hobetzen duten I+G+b jardueren bultzada lehentasunezko elementuak izan behar dira.
- Ingurumen Sailaren eta Ekonomiaren Garapen Sailaren artean dagoen lankidetza indartu behar da, Fabrikazio aurreratuaren eremuan; izan ere, Euskadiko ekonomia zirkularreko ekimenek potentzial handia dute eremu horretan.
- 2020rako IEParen eta 2020rako Ekintzailatzako Erakunde Arteko Planaren (EEP 2020) arteko lotura sendotu behar da, ekintzailatzaren eremuan, ingurumen-jarduerak lehentasunezko nitxo izan daitezen pertsona ekintzaileentzat. Orobat, informazioa eskuratu behar da ekintzaile kopuruaren, haien proiektuen eta horiek ingurumen-sentikortasunean duten inpaktuaren jarraipena egiteko.
- Ekoberrikuntza islatzeko adierazle bat sortu behar da eta haren jarraipena egin, Europako ekonomietan egiten den bezala, nazioarteko alderaketa-esparru bat izateko.
- Ekonomia zirkularrak landa-eremuetan dituen aukerak aztertu behar dira, ingurumenaren kudeaketa jasangarrirako potentzial handia duten eremuetan, hala nola tokiko eta gertuko elikaduraren eremuan.

## 1.2 HONDAKINEN KUDEAKETA

| EUROPAR POLITIKA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                | 2020rako IEP                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                     |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p>Hondakinak baliabide bihurtzeko, haxe da beharrezkoa:</p> <p>EBren legedia osorik aplikatzea hondakinen eremuan, hondakinen hierarkia barne sartuta; hondakinen gaikako bilketa bermatu behar da; hondakinak zabortegietatik desbideratzeko helburuak bete behar dira, eta abar.</p> <p>Hondakinen per capita ekoizpena eta hondakinen sorrera absolutua murriztu behar dira.</p> <p>Energiaren berreskurapena material ez-birziklagarrietara mugatzea eta birziklatu edo berreskuratu daitezkeen hondakinak gero eta gutxiago botatzea.</p> <p>12. GJHak eskatzen die herrialdeei hondakinen ekoizpena nabarmen murriztu dezatela 2030 baino lehen, prebentzio, murrizketa, birziklapen eta berrerabilpenaren bitartez.</p> | <p>Hondakinen kudeaketa 2020rako IEParen 2. helburuan islatzen da: “Ekonomia lehiakor, berritzaile, karbono isurketa txikiko eta baliabideen erabilpenean eraginkor baterantz aurrera egitea”, eta, zehazki, 2.3. jarduteko lerroan, bere helburua haxe baita: “Ekonomia zirkular bat bultzatzea non ez den ezer alferrik galtzen”.</p> <p>Helburu horrekin bat etorritik, “EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2020rako Planak” erantzuna ematen dio hondakinen alorrean Euskadin indarrean dagoen araudiak ezartzen duenari -araudi horren jatorria Hondakinaren Esparru Zuzentaraua da, estatuko legedira ekarrita-.</p> <p>Planaren helburu estrategikoek hondakinen kudeaketaren hierarkiaren aplikazioa lortu nahi dute, horixe baita europar politikaren ardatz nagusia hondakinen alorrean.</p> |

Europar Batasunak hondakinen kudeaketaren inguruan duen ikuspegiaren oinarria “hondakinen hierarkia” da; horren bitartez, lehentasun-ordena bat ezartzen da hondakinei buruzko politikak diseinatzerakoan eta hondakinak alor operatiboan kudeatzerakoan: lehenengoa prebentzioa da; gero, hondakinak berrerabilpen, birziklapen eta balorizaziorako prestatzea; eta, azken aukera gisa, ezabapena (hondakinak zabortegietan botatzea eta energiari berreskuratzen ez duen errausketa).


Birziklapenaren helburuetarantz aurrera egitea eta hondakinak kudeatzeko planak eta prebentzio-programa egokiak abiatzea funtsezko faktoreak izan behar dira EBko Estatuen jokabidea neurtzeko. Atal hau udal hondakinen kudeaketan kontzentratzen da; izan ere, EBko Zuzenbideak derrigorrezko birziklapen-helburuak ezartzen ditu lor horretan.

Krisiaren lehenengo urteetan, 2007tik 2011ra bitartean, udal hondakinen sorrera nabarmen murriztu zen (% 18,8 jaitsi zen garai horretan). 2011z geroztik, aldiz, igoera txiki bat antzematen da; hala, pertsona eta urte bakoitzeko sortzen ziren hondakinen bolumena 500 kg/biztanle/urte proportzioaren inguruan egonkortu zen; bada, kantitate hori EB 28koaren batez bestekoaren gainetik dago (434 kg/biztanle/urte), eta baita Espainiakoaren gainetik ere (434 kg/biztanle/urte).

1.2. Grafikoak erakusten du zer-nolako bilakaera izan duen Euskadin hondakinen kantitateak eta zer motatako kudeaketa egiten den haiekin; ikus daitekeenez, zabortegira eramaten diren hondakinen kantitatea asko jaitsi da (2011tik 2015era, biztanle eta urte bakoitzeko sortzen ziren kilogramoak % 29 murriztu ziren). Beste alde batetik, ez da igoera garbirik ikusten birziklapenera bideratzen diren kantitateetan, zeren 2015eko kantitateak 2007koen antzekoak izan baitziren, per capita neurtuta (163 kg/biztanle/urte). 2015eko datuen arabera, Euskadin zabortegira eramaten diren hondakinen ehunekoa EB 28koarena (% 26,3) baino % 21,6 handiagoa da, eta oso urrun dago Europako herrialde liderren ehunekoetatik; adibidez, Alemanian ez da % 1era iristen ehuneko hori.

Zalantzarik gabe, horrek esan nahi du ez direla ondo aprobetxatzen prebentzioak eta birziklapenak eskaintzen dituzten aukerak, eta, hortaz, tarte nabaria geratzen dela materialen aprobetxamendurako.


## 1.2. Grafikoa. Euskadiko Udal Hondakinak tratamendu motaren arabera. 2007-2015 (per capita kg.)



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Ingurumen-adierazleak.

1.3. Grafikoa erakusten du zein urrun dagoen Euskadi EB 28ko birziklapen-tasatik (Euskadikoa % 37 izan zen 2015ean, eta EB 28koa % 45); erakusten du, halaber, kontzeptu horretan azken urteetan egindako aurrerapena ez dela nahikoa izan. 2007 eta 2010 bitartean, birziklapen-tasa apur bat jaitsi zen; 2010 eta 2015 bitartean, aldiz, hazi egin zen.

## 1.3. Grafikoa. Hiri-hondakinen birziklapen-tasa. 2007-2015. Euskadi eta EB 28



Oharra: Birziklapen-tasak barne hartzen ditu birziklapen materiala, berrerabilpena eta konpostajea.

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Ingurumen-adierazleak, EAEko Hiri Hondakinen Estatistika, urte batzuetakoa, eta Eurostat (Recycling of municipal waste)

Logikoa da pentsatzea, nonbait, Euskadik nabarmen handitu beharko duela hondakinak murriztu eta birziklatzeko politiketara zuzentzen duen ahalegina, bai europar helburua 2020an lortu ahal izateko (birziklapen-tasa % 50 izatea 2020an) eta bai EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2020rako Planak planteatzen duena ere lortzeko: hondakinen gaikako bilketa eta bereizketa gutxienez % 75eraino igotzea 2020rako.

Hondakinen eremuan, 2020rako IEPak ezartzen dituen lehentasunak honako hauek dira: lehengai naturalen isurketa eta erabilera zigortzen duten eta berrerabilpena, birziklapena eta balorizazioa bultzatzen dituzten tresna ekonomikoak ezartzea. Eremu horretan egindako aurrerapenak urriak dira oraindik ere; nolana ere, aurreikusita zegoen bezala, azterlan eta analisiak egiten ari dira tresna horiek eta haien inpaktua ezartzeko. Datu garrantzitsu gisa, azpimarratu behar da 2017an aurreikusita dagoela EEHen eta Hondakin Industrial ez-arriskutsuen isurketa-kanona arautzen duen Legearen zirriborroa prest izatea.

### Proposatutako neurriak

- Eragileen ingurumen-jokabide optimoak bultzatzen dituzten tresna ekonomiko eta fiskalen ezarpena azkartzea, Europako hondakinen hierarkia ahalik eta gehien inplementatzeaz batera: hondakinen sorrera minimizatea eta berrerabilpena eta birziklapena bultzatzea (beste alderdi batzuen artean, garestiagoa izatea hondakinak zabortegira botatzea).
- Hiri-hondakinen alorrean, birziklapena errazten duten bilketa-sistemak aztertzea eta ezartzea. Zehazki, hondakin organikoak biltzeko sistemak indartzea.
- Aurrera egitea hiri-hondakin primarioen (aurretiazko tratamendurik gabekoak) zero isurpenerantz.

## 1.3 KARBONO ISURKETA TXIKIKO EKONOMIA BULTZATZEA

| EUOPAR POLITIKA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    | 2020rako IEP                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p>Klima eta energiari buruzko 2020rako neurrien artean, legedi loteslea ezartzen da EBko 2020rako bere egin dituen klima- eta energia-helburuen betearazpena bermatzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Berotegi-efektuko gasen emisioak % 20 murriztea (1990ko emisioak erreferentziatzen hartuta).</li> <li>• EBko energiaren % 20 berriztagarria izatea</li> <li>• Eraginkortasun energetikoa % 20 hobetzea.</li> </ul> <p>7. GJHak eskatzen die herrialdeei energia eskuragarri, seguru eta modernoa eskuratzeko bidea bermatu diezaietela herritar guztiei; 13. GJHak, berriz, klima-aldaketari eta haren ondorioei aurre egiteko premiazko neurriak hartzeko eskatzen du.</p> | <p>Karbono isurketa txikiko ekonomiaren bultzada bere 2. helburuan jasotzen du 2020rako IEPak: "Ekonomia, lehiakor, berritzaile, karbono isurketa txikiko eta baliabideen erabilpenean eraginkor baterantz aurrera egitea". Eta, zehazki, bere 2.1. jarduteko lerroan, zeren helburutzat hartzen baitu "Karbono isurketa txikiko ekonomia lehiakor bultzatzea".</p> <p>Lerro horren barnean, azpimarratzekoa da jadanik prestatuta dagoela "2050rako Klima-aldaketaren Euskadiko estrategia", datozen urteetako jarduna gidatzeko.</p> |


1995 urteaz geroztik, Euskadiko berotegi-efektuko gasen emisioak % 15<sup>23</sup> murriztu dira. Ikus daitekeenez (ikus 1.4. Grafikoa), emisioek gora egin zuten 2000 urtera arte, BPGaren

<sup>23</sup> 1995 urtea hartzen da erreferentziatzen, BPG kateatuaren serie homegeno baterako eskuragarri dagoen lehenengo urtea delako. 1990 eta 2015 bitartean, berotegi-efektuko gasen emisioak % 7 murriztu dira Euskadin (Espainian % 17 hazi ziren, eta EB 28an % 24 jaitsi ziren).

igoerarekin batera. Urte horretatik aurrera, berriz, euskal ekonomia desakoplatzen dela ikus daiteke: BPGak hazten jarraitu zuen 2008ra arte, baina emisioen maila bere horretan geratu zen; urte horretatik aurrera, berriz, BPGaren jaitsierarekin, emisioak are azkarrago jaitsi ziren. Horrek esan nahi du eraginkortasuna % 47 hobetu zela, CO2/BPG unitateen arabera neurtuta.

Emisioen murrizketa horren atzean dauden faktoreetako bat intentsitate energetikoaren hobekuntza da, zeren % 26 inguru murriztu baita 2000 urteaz geroztik, BPG unitate/azken energia-kontsumo ratioaren arabera. Sektore energetikoa, garraioa eta industria dira emisore nagusiak, zeren emisio guztien % 35, % 30 eta % 21ren<sup>24</sup> eragileak baitira, hurrenez hurren. Garraio sektorean sortutako emisioen kasuan, % 60 turismoek eragindakoa da, eta % 40 merkantzien garraioak eragindakoa.

#### 1.4. Grafikoa. Berotegi-Efektuko Gasen (BEG) emisioen eta BPGaren bilakaera. 1995-2015. (1995 urtea = 100)



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Ingurumen-adierazleak eta Eustat.

Beste alde batetik, energia berriztagarriaren aprobetxamendua 454 ktep izan zen 2015ean; energia horietatik, biomasa % 68,4 da, bioerregaiak % 15,1, energia hidroelektrikoa % 8,2 eta eolikoa % 6,5. Energiaren azken kontsumoan, berriztagarrien kuota % 13,2 da (% 7,2, inportatutako elektrizitatearen parte baten jatorri berriztagarria kontuan hartzen ez bada).

Alor horretan, oso aurrerapen esanguratsua da [“2050erako Klima-aldaketaren Euskadiko estrategia”](#) eta [“2030erako Euskadiko Energia Estrategia”](#) landu izana, zeren bien artean, eta modu koordinatuan, erreferentziazko esparrua ezartzen baitute Euskadiko klima-politikarako. Euskadik bi helburu garbi ezarri ditu: lehenik, Euskadiko BEGen emisioak gutxienez % 40 murriztea 2030rako, eta gutxienez % 80 2050erako, 2005 urtea erreferentziazat hartuta, eta 2050ean kontsumitzen den energia berriztagarria azken kontsumoaren % 40 izatea; bigarrenik, euskal lurraldearen erresilientzia bermatzea klima-aldaketaren aurrean. Hori lortzeko, jardunbide multzo xehatu bat proposatzen da.

<sup>24</sup> [“Euskadiko Berotegi-efektuko Gasen Emisioen Inbentarioa, 2015”](#)(2016).

Beste alde batetik, euskal herritarrek klima-aldaketaren aurrean duten kontzientziazio maila altu samarra da (2017an, herritarren % 83 nahiko, oso edo bereziki kezkatuta agertu zen horren inguruan<sup>25</sup>), jakitun egonda klima-aldaketaren aurka borrokatzeak berekin dakarrela energia-kontsumoa murriztea (% 88) edo erosotasun batzuei uko egitea (% 85). Horri buruz inkestatutakoen %90ek esan zuen Euskadik helburu handinahiak ezarri behar dituela klima-aldaketaren alorrean, eta % 80k baino gehiagok ondo ikusten ditu energia berriztagarriak, garraio publikoa edo ibilgailu elektrikoaren erosketa bultzatzearekin lotutako neurriak; disuasio-neurrien aldeko sostengua, berriz, askoz ere txikiagoa da (adibidez: ibilgailu kutsagarrien gaineko zergak -% 59-, hegazkin-bidaiekin gaineko zergak -% 34-, gasolinaren prezioa igotzea -% 25-).

#### **Proposatutako neurriak:**

- Klima-aldaketarekin zerikusia duten alderdien balorazio ekonomiko-sozialak bultzatzea. Klima-aldaketaren aurkako borroka osasunarentzat dituen onura erantsiak ez dira behar den neurrian kontuan hartzen.
- Euskadiren potentzial fiskala hobeto aprobetxatzea klima-aldaketaren aurkako jarduerak bultzatzeko.
- Klima-aldaketak Euskadin dituen inpaktuen azterketa eremuz eremu bultzatzea, kostu aldetik eraginkorrak diren ekimenak proposatzeko, Naturaren kontserbazioa eta babesa klima-aldaketarako egokitzapenarekin uztartzen dituztenak sarituz (azpiegitura berdeak).
- Mugikortasun jasangarria indartzea, abiatutako politika eta tresnak bide beretik eramanez eta ibilgailu pribatuen pertsona bakarreko joan-etorriak zigortuz, garraiabide jasangarriagoen aurrean (oinez ibiltzea, bizikleta, garraio publikoa), bai ekonomikoki eta bai denbora eta erosotasun aldetik, besteak beste.

---

<sup>25</sup> ["Klima-aldaketa eta Energia \(2017\)](#). Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetea.

## 2 KAPITAL NATURALA BABESTEA, KONTSERBATZEA ETA INDARTZEA

### 2.1 NATURA ETA BIODIBERTSITATEA

| EUOPAR POLITIKA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    | 2020rako IEP                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p>EBren biodibertsitateari buruzko Estrategiaren helburua da EBko biodibertsitatearen galera hemendik 2020era gelditzea, ekosistemak eta haien zerbitzuak ahal den neurrian lehengoratzeko, eta munduko biodibertsitatearen galera saihesteko ahaleginak biderkatzea. Hegaztien Zuzentzarauaren eta Habitaten Zuzentzarauaren helburua da kontserbazio-egoera egoki bat lortzea babestutako espezie eta habitentzat.</p> <p>14. GJHak exijitzen die herrialdeei ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak kontserbatu eta modu jasangarrian erabiltzeko, eta 15. GJHak eskatzen die lurreko ekosistemak babestu eta lehengoratu ditzatela eta haien erabilera jasangarria sustatu dezatela, basoak modu jasangarrian kudeatu dezatela, desertifikazioaren kontra borrokatu daitezela, lurren degradazioa gelditu dezatela eta buelta eman diezaiotela, eta dibertsitate biologikoaren galera gelditu dezatela.</p> | <p>2020rako IEPak helburu estrategikotzat hartzen du “Gure kapital natural babestea, kontserbatzea eta lehengoratzeko, ekosistemak eskaintzen dizkiguten zerbitzuak gerizatzeko” (1. Helburu estrategikoa).</p> <p>IV. IEPak planteatzen duen helburu estrategikoa da euskal ekosistemen narriadura gelditzea 2020rako. Lehorreko eta itsasoko habitat nagusiek euren egoera hobetu dezatela, eta afekzio nagusiak, hala nola eremu batzuen isolamendua eta espezie inbaditzaileak, modu integral eta sistemikoan kudeatu daitezela, eskumena duten administrazio guztiek lankidetzan estuan arituz.</p> |

Habitatari buruzko 1992ko Zuzentzaraua eta hegaztiei buruzko 1979ko Zuzentzaraua dira basabizitza EBn kontserbatzera zuzendutako europar legediaren oinarritzko zutabeak. Natura 2000 –munduko eremu babestuen sare koordinatu nagusia- da Zuzentzarauen helburuak lortzeko eta aplikatzeko tresna nagusia; izan ere, beraren bidez lortu nahi da Europako espezie eta habitat baliotsuen eta mehatxatuen babesa, kontserbazioa eta iraupena epe luzera bermatzea, eta baita horiei eusten dieten ekosistemenak ere. Eremu babestuak modu egokian izendatzea, dela kontserbazio bereziko eremu izendatuz (KBE), habitaten Zuzentzarauarekin bat etorritik, dela babes bereziko eremu izendatuz (BBE), hegaztien Zuzentzarauarekin bat etorritik, funtsezko mugarrak da bi Zuzentzarauen helburuen lorpenean. Habitaten Zuzentzarauaren 17. artikulua eta Hegaztien Zuzentzarauaren 12. artikulua agindutakoa betetzeko prestatutako txostenen emaitzak funtsezko elementuak izan behar dira gai honen bilakaera neurtzeko, eta hori bezain funtsezkoa da aurrera egitea Batasunaren garrantzizko lekuen (BGL) izendapen egokian -KBE eta BBE<sup>26</sup>-, bai lehorrean eta bai itsasoan.


Euskadiko eremu babestuen sareak barne hartzen ditu Naturagune Babestuen Sarea, Ramsar hezeguneak eta Urdaibaiko Biosfera Erreserba. Guztira, 104 leku dira. Horietatik, 97 EAEko Naturagune Babestuen Sarean daude sartuta –Natura 2000 Sarea, Parke Naturalak, Biotopo Babestuak eta Zuhaitz bereziak-. Gainerakoak, berriz, honako hauek dira: Mundakako Itsasadarreko eta Ogoño Lurmuturreko itsas gunea -HBBE-, estatuaren eskumenekoa; Urdaibaiko Biosfera Erreserba; eta sei Ramsar hezegune. Euskadiko azaleraren % 24 inguru dago babestuta (190.189 ha); horietatik, % 20,5 (171.467 ha) Natura 2000 Sareari dagokio (EB-

<sup>26</sup> Europar Batasunaren garrantzizko lekuak (BGL) habitaten Zuzentzarauaren arabera izendatzen dira, eta babes bereziko eremuak (BBE) hegaztien Zuzentzarauaren arabera; irismenaren datuak ez datoz bat, zeren BGL eta BBE batzuk gainjartzen baitira. Kontserbazio bereziko eremuak (KBE) EBko Estatuak izendatutako BGLak dira.

27ren batez bestekoa % 18,1 da). Eremu babestu horien kopuru handiak eta okupatzen duten azalera garbi erakusten dute Euskadin borondate irmoa dagoela eta ahalegin luze eta jarraitua egiten dela kapital naturala babesteko eta aktiboki kudeatzeko.

[2030rako Euskadiko Biodibertsitate Estrategia](#) prestatzerakoan egindako diagnostikoaren arabera, oraindik ere bide luzea egin behar da habitaten kontserbazioan; 2016an, Euskadirentzat interesa zuten habitaten % 75ek baino gehiagok kontserbazio-egoera kaskarra zuten, euren erregresio, zatiketa edo narriaduragatik, eta % 23k soilik lortzen zuten ebaluazio ona. Kontserbazio egoera txarra duten euskal habitatak kostaldekoak eta basoak dira<sup>27</sup>. 2012 urtearekin alderatuta ez da hobekuntza garbirik antzematen; izan ere, egoera onean dauden euskal habitaten ehunekoa % 24 igo da, baina egoera ezegokian/txarrean dauden ehunekoa ere % 27 igo da (ikus 2.1. Grafikoa). Europar Batasunarekin alderatuta, ez dago desberdintasun handirik kontserbazio-egoerari dagokionez: 2013an, EB 27n, eremuen % 77k egoera ezegokia zuen, eta 2010az geroztik hobekuntza txiki bat antzematen da.

### 2.1. Grafikoa. Habitaten kontserbazio-egoera, Euskadi 2012-2016



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Ingurumen-adierazleak eta 2030rako Euskadiko Biodibertsitate Estrategia.

Intereseko espezieen egoerari dagokionez, Euskadin inbentariatutako 9.433 espezieetatik, % 4 (374 espezie) agertzen da *Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan*<sup>28</sup>. “Galzorian” kategorian 88 espezie daude erregistratuta, eta “Kalteberak” kategorian 113 espezie. “Bakanak” kategorian 83 espezie daude erregistratuta, eta, azkenik, “Interes berezikoak” kategorian 90 espezie daude erregistratuta<sup>29</sup>. Orobat, 24 Kudeaketa Plan daude onartuta Euskadiko intereseko espezieentzat; horietatik, 19 Plan Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan jasotako taxonetara daude zuzenduta. Katalogoan jasota ez egon arren, Bizkaian eta Gipuzkoan bada aingirarako Kudeaketa Plan bat, eta Araban beste bat otsoarentzat.


<sup>27</sup> A.2. Grafikoa Eranskinean.

<sup>28</sup> “Espezie Mehatxatuen Euskal Katalogoa (2013ko berrikuspena).”

<sup>29</sup> “2016ko Ingurumen-adierazleak, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Politika eta Etxebizitza Saila”.

Orokorrean informazio gutxi dagoenez, ezin da ezer askorik esan espezieen kontserbazio-egoeraz eta joeraz, zeren eta, habitaten kasuan ez bezala, egoera hori ez baita estimatu. Ebaluatu ziren espezie bakarrak izan ziren Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak EAERI asignatu zizkion espezieak (bisoi europarra, Pirinioetako desmana eta igaraba).

## 2.2. Grafikoa. Basa eta Itsas Flora eta Faunaren Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoaren kategoria bakoitzean sartutako espezieen ehunekoa (2013)



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Ingurumen-adierazleak.

Alor honetan egindako aurrerapen oso esanguratsu bat izan da 2030rako Euskadiko Biodibertsitate Estrategia landu eta argitaratzea, eta baita 2020rako Lehenengo Ekintza Plana ere, biak 2016ko irailaren 6ko Gobernu Kontseiluaren bileran onartuak. Estrategiak bere egiten ditu 2020rako IEParen gidalerroak, eta eskumena duten Administrazio Publikoek euren esku duten tresna nagusia da natura-ingurunearen behar premiazkoenei aurre egiteko. Datozen urteetan, estrategia hau abiatzea eta aplikatzea funtsezko faktorea izango da modu irmoan aurrera egiteko: lehenik, natura-ingurunearen kudeaketa egokitzaileko sistemak ezartzeko, kontuan hartuta horiek emaitzen ebaluazio sistematikorako prozedurak behar dituztela, bertan proposatzen direnen modukoak, hala nola Euskadiko Natura 2000 Sarearen jarraipen-eta zaintza-sarea eratzea, eta Natura 2000 Sarearekin lotutako ahaleginen eta emaitza sozioekonomikoaren ebaluazioa. Bigarrenik, kapital naturalaren egoerari buruzko informazio-eta monitorizazio-sistemak ezartzeko. Natura kontserbatzeko politika abian jartzeko, funtsezkoa da eskumena duten administrazioen arteko koordinazio operatiboa. Hurrengo urteetan beharrezkoa izango da horren bilakaera baloratzea, xehetasun handiagoz aztertzeko zer inpaktu erreal duen Administrazio Publikoen artean egon behar den koordinazioan, naturaren kontserbazioaren eremuan.

### Proposatutako neurriak:

- Biodibertsitateari buruzko informazio eta inbentarioen eskuragarritasuna hobetzea, horien kudeaketan inplikaturik dauden eragileek aprobetxatu ahal izan dezaten.
- Ikuspegi adimendun eta arrazionalizatuak garatzea eta sustatzea natura-ingurunearen kudeaketarako, eskura dagoen ezagutzaren eta beharrezkoak diren datuen erabilera segurtatzeko.
- Natura-ingurunearen kudeaketan inplikaturik dauden eragile publiko eta pribatuen arteko komunikazio-bide eta -kanal formalak eta ez-formalak indartzea.
- Gero eta gehiago hedatzen ari den “zientzia herritarra” bultzatzea; izan ere, proiektu enblematikoetan parte hartzeko bideak irekitzen dizkie herritarrei, eta lagungarria da hauen kontzientziazioa eta sentsibilizazioa hobetzeko.

### Kapital naturalaren estimazioa

EBren biodibertsitateari buruzko 2020rako Estrategiak eskatzen die Estatu kideei ekosistemen eta horien zerbitzuen egoera kartografiatu eta ebaluatu dezatela, bakoitzak bere lurraldean, beranduz jota 2014an; eskatzen die, halaber, zerbitzu horien balio ekonomikoa kalkulatu dezatela eta balio hori nazio barneko eta Europa mailako kontabilitate- eta informazio-sistemetan integratu dezatela 2020 urtea baino lehen<sup>30</sup>.

Nazio Batuen Erakundearen “Milurtekoko Ekosistemen Ebaluazioa” deritzan Nazioarteko Programa Zientifikoaren esparru kontzeptual eta metodologikoaren baitan, 2008 urteaz geroztik “Milurtekoko Ekosistemen Ebaluazioa Bizkaian” izeneko ikerketa-proiektua garatu da, eta 2011z geroztik “Milurtekoko Ekosistemen Ebaluazioa Euskadin” izeneko ikerketa-proiektua. Bi proiektuak 2015ean bateratu ziren, “Euskadiko Ekosistemen Zerbitzuen Ebaluazioa” izena hartuz. Proiektua Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatzen dute, eta egilea Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) UNESCO Katedra da.

Orain arte, proiektua garatzearen bidez Euskadiko ekosistema garrantzitsuenak identifikatu, ebaluatu eta kartografiatu dira, eta baita horiek ekoizten dituzten zerbitzu batzuk ere<sup>31</sup>.

Gainera, ekosistemen zerbitzuen adierazle multzo bat definitu da, haien bilakaera denboran zehar neurtu ahal izateko. Emaiza zientifikoetatik harago, proiektuak beste hau ere ahalbidetu du orain arte:

- Diziplinarteko taldeak sortzea, ikertzaileak, administrazioaren teknikariak eta zenbait sailerako arduradun politikoak bilduz; horri esker, eragileen arteko komunikazioa eta elkar-ulertzea erraztu dira.
- Kontserbazioarekin, lurraldearen kudeaketarekin eta beste politika batzuekin lotutako erabakiak hartzeko tresnak eta informazioa sortzea.
- Ekosistemen zerbitzuen eta Azpiegitura Berdearen kontzeptua zenbait eremutan hedatzea (hezkuntzaren eremuan, gizartean, eremu zientifikoan, eta abar).

---

<sup>30</sup> Zerbitzu ekosistemikoak gizarteak behar dituen eta naturak ematen dituen onurak dira, hala nola elikagaiak, ur garbia eta polinizazioa.

<sup>31</sup> EAEko azaleraren % 33k ekarpen handia edo oso handia egiten dio dibertsitate naturalaren kontserbazioari, eta dibertsitate naturalaren kontserbazioari ekarpen handiena egiten dioten unitateak baso naturalak eta txilardiak dira (2030rako Biodibertsitate Estrategiaren Diagnostikoa).

- Nazioarteko aitortza lortu da: 2010ean, Euskadi Ebaluazio Azpi-globalen Sarean integratu zen (Sub-Global Assessment Network-SGA), Nazio Batuen Erakundeak (NBE) sortutako Milurtekoko Ekosistemen Ebaluazioaren baitan.

#### Proposatutako neurriak:

- Ekosistemei eta haien zerbitzuei buruzko ikerketa, azterketa eta balorazioa indartzea, haien dinamikak sakon ezagutzeko eta haien balioa nabarmentzen laguntzeko; halaber, haien potentziala sozialki aprobetxatzea aberastasuna eta enplegua sortzeko.
- Naturan oinarritutako irtenbideen balorazioa bultzatzea, batez ere klima-aldaketarekin eta Natura 2000 sarearekin zerikusia duten alderdietan; izan ere, kostu-efizientzia handia izan dezakete eta beste arazo sozial batzuk konpontzen lagundu dezakete.
- Ekosistemen zerbitzu kulturalak aztertzea eta bultzatzea (inspirazio estetikoak, identitate kulturala, atxikimendu-sentimendua, esperientzia espiritualak, eta abar). Zerbitzu ekosistemiko mota honen baitan, oso garrantzitsuak dira herritarrentzako jarduera turistikoekin eta aisialdiko jarduerekin lotutako aukerak.

## 2.2 AZPIEGITURA BERDEA

| EUROPAR POLITIKA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                         | 2020rako IEP                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p>EBren azpiegitura berdeari buruzko estrategiaren helburu bat da azpiegitura berdea berarekin lotutako plan eta programetan txertatzea, habitaten zatiketa gaitzen laguntzeko, konektibitate ekologikoa zaintzeko edo berrezartzeko, ekosistemen erresilientzia indartzeko, eta, gainera, zerbitzu ekosistemikoen eskaintza iraunkorra bermatzeko.</p> | <p>2020rako IEPak bi helburu estrategikotan aurreikusten du azpiegitura berdeen sustapena, alegia, 1. Helburuan: "Gure kapital naturala babestea, kontserbatzea eta lehengoratzeko, ekosistemak eskaintzen dizkiguten zerbitzuak gerizatzeko" eta 4. Helburuan: "Lurraldearen jasagarritasuna handitzea". Bi helburu horietan, azpiegitura berdeak goi mailako hirigintza-tresna gisa agertzen dira naturaguneen zatiketak saihesteko eta berrosatzeko eta zerbitzu ekosistemikoak zaintzeko eta indartzeko.</p> <p>Gainera, 2020rako IEPak azpiegitura berdeen bultzada sartzen du bere sei proiektu giltzarrien artean.</p> |

Azpiegitura berdeak onura ekologiko, ekonomiko eta sozialak eskaintzen ditu, irtenbide naturalen bitartez. Lagungarria da naturak gizarteari ekartzen dizkion onuren balioa ulertzeko eta horiek mantendu eta indartzera zuzendutako inbertsioak mobilizatzeko.

Europako Batzordeak honela definitzen du azpiegitura berdea: "eremu naturalak, erdi-naturalak eta bestelako ingurumen-elementuak biltzen dituen sare bat, modu estrategikoan planifikatua eta askotariko zerbitzu ekosistemikoak eskaintzeko diseinatua eta kudeatua. Lehorreko eta itsasoko espazioetako berdeguneak (edo urdinguneak, uretako ekosistemen kasuan) eta beste elementu fisiko batzuk integratzen ditu. Lehorreko eremuetan, azpiegitura berdeak landa- eta hiri-eremuetan du presentzia<sup>32</sup>".

<sup>32</sup> [Communication from the Commission to the European Parliament, the Council, the European Economic and Social Committee and the Committee of the Regions Green Infrastructure \(GI\) – Enhancing Europe's Natural Capital /\\* COM/2013/0249 final \\*/](#)

Azpiegitura berdearen eremuan Euskadin egin den aurrerapen nagusia da Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan (LAG)<sup>33</sup> txertatu dela printzipio gidari gisa eta beraren lurralde-ereduaren atal gisa. Gaur egun, Lurralde Antolamenduaren Gidalerro berriak prestatzen ari dira, lurraldearen antolamendurako funtsezkoak diren gai batzuk lurralde- eta hirigintza-plangintzan sartzeko asmoarekin; bada, gai horien artean azpiegitura berdea dago.

Berrikuspena 2015eko uztailean hasi zen, hasierako dokumentua prestatzeko lanarekin (Oinarritzat Dokumentua). Urte horretan, partaidetza-prozesu oso trinko bat garatu zen instituzio eta gizarte mailan. Eztabaidaren ondorio gisa, Gidalerro berrien Aurrerapena erredaktatu zen eta Euskal Hiria Kongresuan aurkeztu zen, Donostian, 2016ko azaroan, horien tramitazioaren lege-prozesuarekin jarraitzeko, Euskadiko Lurralde Antolamenduaren 4/1990 Legean ezartzen den bezala. 2017ko azaroan Gasteizen egin zen Euskal Hiria Kongresuan, berriz, hasierako onarpena aurkeztu da, eta behin betiko onarpena 2018ko Euskal Hiria Kongresurako geratu da.

Azpiegitura Berdearen kontzeptua LAGetan sartzeari aurrerapen garbi bat da, baita jauzi kualitatibo bat ere, aurreko planteamenduen aldean; izan ere, iraganeko planteamenduek kontzeptu mugatuagoak erabiltzen zituzten, hala nola eremu babestutako edo korridore ekologikoak. Planteamendu berriak aukera ugari eskaintzen ditu ingurumenerako, osasunerako, ekonomiarako, aisialdirako eta beste eremu batzuetarako, eta atea irekitzen du diziplina anitzeko ikuspegia erreala eta praktikoa izan dadin ingurumenaren alorrean.

“Azpiegitura Berdea” kontzeptua EAEko lurralde- eta hirigintza-plangintzan sartzeari tresna indartsua da naturak eskaintzen dizkigun zerbitzuak modu integrarean iraunarazteko eta indartzeko. Azpiegitura berdeak ahalbidetzen du lurzoruen erabileraren inguruko ikuspegi integratuago bat hartzea, eta hori lagungarria da konektibitatea hobetzeko eta azpiegitura “grisek” eta lurraldearen giza okupazioak sortutako zatiketaren ondorioak arintzeko. Azpiegitura berdearen bitartez, ekosistema osasuntsu eta askotarikoak sostengatzeko balio duten funtzio anitzeko eremuak identifikatu daitezke.

LAGen kasuan, azpiegitura berdearen ikuspegi berriak ingurumen-onurak areagotuko ditu, zalantzarik gabe, ekintza isolatuen bidez lortu litezkeen aldean; gainera, bidea emango du espero gabeko gertaera naturalen aurrean erresilienteagoa den lurralde baterantz aurrera egiteko.

LAGak oinarritzat hartuta, EAEko azpiegitura berdeak (ikus 2.3. Grafikoa) osagai hauek ditu:

- Euren ingurumen-balioengatik babestuta dauden eremuak, babes figura propioak dituztenak.
- Eremu horiek lotzen dituzten korridore ekologikoak, eta lurralde mugakideetako eremuak ere, betiere korridoreak EAEren barruan badaude.
- Interes naturaleko beste eremu batzuk, EAE mailan ingurumen-balio azpimarragarriak izan arren onartutako babes-figurarik ez dutenak.


---

<sup>33</sup> EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak. Aurrerapena.

[http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/revision\\_dot/es\\_def/adjuntos/Docum.escrita.AVANCE%20de%20la%20Revisión%20de%20las%20DOT.pdf](http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/revision_dot/es_def/adjuntos/Docum.escrita.AVANCE%20de%20la%20Revisión%20de%20las%20DOT.pdf)

- Ibai-ibilguak eta azaleko uren babes gisa kategorizatutako eremuak, RAMSAR hezeguneak eta Hezeguneen LPSak inbentariatutako ur-masa guztiak.
- Lurralde- eta hirigintza-antolamenduek sarea handitu ahal izango dute, esparru esanguratsuak dagozkien eskaletan txertatuz; edonola ere, EAEko azpiegitura berdean sartuta ez dauden beste eremu babestu batzuk ere hartuko dira kontuan (hala nola IGLak, Eremu Babestuen Erregistroa, eta abar).

### 2.3. Grafikoa. EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen Berrikuspenean proposatutako azpiegitura berdea



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. [Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen Berrikuspena \(LAG\) 2016.](#)

#### Proposatutako neurriak:


- LAGetan sartutako azpiegitura berdearen kontzeptuaren irismen erreala baloratzea eta haren jarraipena egitea.
- Azpiegitura berdearen osagai soziala indartzea, pertsonak inplikatur, proiektuak (haien ingurune eta kulturara egokituta) euren potentzial handienara iritsi daitezen.

## 2.3 LURZORUAREN BABESA

| EUOPAR POLITIKA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           | 2020rako IEP                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| EBren lurzoruaren babeserako Estrategiak azpimarratzen du lurzoruaren erabilera jasagarria bermatzeko beharra. Horretarako, beharrezkoa da lurzoruaren degradazioa prebenitzea eta beraren funtzioei eustea, degradatutako lurzorua lehengoratzeari batera. Baliabideen erabilera eraginkorra den Europa lortzeko 2011rako bide-orriak hauxe proposatzen du EBren politiketarako: 2020 baino lehen kontuan hartu daitezela politika horiek lurzoruaren erabilera duten zuzeneko eta zeharkako inpaktua, eta lurzoruaren okupazio-indizea ondo bideratu dadila lurzoruaren okupazioa zero izatera 2050ean. 15. GJHak eskatzen die herrialdeei desertifikazioaren aurka borrokatu daitezela, degradatutako lurrak eta lurzoruak lehengoratu ditzatela, desertifikazioa, lehorteak eta uholdeak pairatu dituzten lurrak barne sartuta, eta lurzoruaren degradazio neutroa duen mundu bat lortzen saiatu daitezela 2013orako. | <p>2020rako IEPak bere lehenengo helburu estrategikoan hartzen du kontuan lurzoruaren babesa. Zehazki, bere 1.3. lerro estrategikoaren lehentasuna da “Lurzoruaren okupazioari galga jartzea, erabilera nahasketa eta espazio degradatuen eraberritzea eta berrerabilpena erraztuz”.</p> <p>Gai horri heltzeko jardunbideen artean, honako hauek azpimarratzen dira: lurraldearen antolamendu adimendunaren garrantzia, biztanleria-dentsitate handiagoak eta erabilera uztarketa lehenesteko; lurzoruaren kontsumoaren optimizazioa, beraren berrerabilpena eta lehengoratzeari lehenetsiz; eta zerbitzu ekosistemikoak bultzatzea, degradatutako eremuak lehengoratzeko.</p> <p>Orobat, aipatu den bezala, azpiegitura berdearen kontzeptua lurralde antolamenduaren gidalerroetan txertatzea funtsezko baldintzat hartzen da lurzoruaren ezinbesteko babesean urrats irmoz aurrera egiteko.</p> |

Lurzorua baliabide garrantzitsua da bizitzarako eta ekonomiarako. Funtsezko zerbitzu ekosistemikoak eskaintzen ditu, hala nola elikagaiak, zuntza eta energia berriztagarriak biomasa hornitzea, karbonoa xurgatzea, ura araztea eta uholdeak erregulatzea, eta lehengaiak zein eraikuntza-materiala hornitzea. Lurzorua baliabide mugatu bat da, bereziki hauskorra da eta EBn gero eta degradatuago dago. Hiri-garapenerako eta azpiegiturarako erabilitako lurra nekez itzul daiteke bere egoera naturalera; garapen horrek nekazaritzako lurzorua kontsumitzen du, gehienbat, eta habitaten zatiketa areagotzen du. Lurzoruaren babesari zeharkako eran heltzen zaio EBn indarrean dauden politiketan, besteak beste eremu hauetan: nekazaritza, ura, hondakinak, produktu kimikoak, eta kutsadura industrialaren prebentzioa.

## 2.4. Grafikoa. Lurzoru artifizializatuaren ehunekoaren bilakaera, Euskadi 2006-2016




Iturria: Eusko Jaurlaritza. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Ingurumen-adierazleak.

EUSTATen datuen arabera, 2016an Euskadin artifizializatuta/kalifikatuta zegoen azalera osoko azaleraren % 6,8 zen (ikus 2.4. Grafikoa). Adierazle horrek igoera txiki bat izan du 2006az geroztik, eta, dirudienez, datuek hazkunde-tasaren desazelerazio garbia erakusten dute 2012tik aurrera; urteko hazkundearen batez besteko tasa % 0,8 izan zen 2006 eta 2011 bitartean, eta % 0,4 2012 eta 2016 bitartean (EBn, % 0,41 izan zen 2006 eta 2012 bitartean). Datozen urteetan, adierazle horren jarraipen espezifiko bat egin beharko da, ekosistemen gaineko presio txikiago hori –azken urteetan ikusia– behin betiko finkatzen ote den egiaztatzeko; izan ere, ikusi behar da ea horren arrazoia ez ote den krisi ekonomikoaren urteetan eraikuntzak izandako jaitsiera nabaria.

Egindako diagnostiko nagusiak oinarritzat hartuta<sup>34</sup>, Euskadiren artifizializazio gradua nahikoa da, eta egon badago jadanik kalifikatutako eremuak eraginkortasun eta errendimendu handiagoz aprobetxatzeko tarte, horren bidez lurzorua artifizializazio erantsia eragozteko.

## 2.5. Grafikoa. Kutsatuta egon daitekeen lurzorua, ikertutako lurzorua eta berreskuratutako lurzorua bilakaera (aukeratutako urteak)



Iturria: Eusko Jaurlaritzak. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Ingurumen-adierazleak.

Aurreko epigrafeetan adierazi den bezala, eta 2020rako IEPak berak ezartzen duenez, lurraldearen antolamendua, eta batez ere LAG berriak eta azpiegitura berdearen tratamenduan egindako aurrerapenak funtsezkoak dira lurzorua babesa bermatzeko, pairatzen dituen presio gogorren aurrean. Beste alde batetik, Euskadin aurrera jarraitzen dugu lurzoru kutsatuak lehengoratzeko politikan -horietako asko iraganeko garapen industrial hondagarriaren ondorio dira-. Lurzoru kutsatuen Inbentarioaren arabera<sup>35</sup>,

<sup>34</sup> "Euskadiko 2030erako Biodibertsitate Estrategia

<sup>35</sup> Kutsatuta egon daitezkeen edo kutsatuta dauden lurzoruen inbentarioek honako lurzoru hauek erregistratzen dituzte: lehenengo kasuan, afekzio-zantzuak dituztenak; bigarren kasuan, giza osasunarentzat edo ingurumenarentzat arrisku onartezina sortzen dutenak. Hauxe hartzen dute barne: jardunean dauden gune industriak, industria-jarduerarik gabekoak, zabortegeak eta kokagune aldatuak.

kutsatuta egon daitekeen lurzoruaren azalera 9,438 Ha-koa zen 2015ean. Benetan kutsatuta dauden lurzoruak inbentariatutakoen % 16 dira, gutxi gorabehera; zifra hori % 40era igozten da alterazio graduren bat<sup>36</sup> duten lurzoruak kontsideratzen badira, eta Euskadiko azalera erabilgarriaren % 3,1 eta % 7,7 artean egongo lirarteke. Bestalde, ikertutako eta lehengoratutako lurzoruaren kopuruak eta azalerak igozten jarraitzen dute etengabe (ikus 2.5. Grafikoa).

Etorkizunari begira, erronka nagusia da degradatuta dauden eremuak lehengoratzea eta haien balioa berreskuratzea; horretarako, aurrera egin beharko da, protokoloak finkatu, eta habitatak kudeatzeko eta lehengoratzekeo esperientziak identifikatu, haien zerbitzu ekosistemikoak bultzatzeko.

#### Proposatutako neurriak:

- Lurzorua bere funtzionaltasuna galtzen ari den funtsezko baliabidetzat hartzea, eta aurrera egitea Lurzoruaren Euskal Estrategia prestatzeko lanean.
- Lurzorua zer den etengabe ikertzea, eta kontrol- eta monitorizazio-sistemen alde egitea.

## 2.4 ITSASOAREN BABESA

| EUOPAR POLITIKA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       | 2020rako IEP                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| EBko kostalde eta itsasari buruzko politika eta legediaren arabera, itsasoko uraren gaineko presioa murriztu egin behar da 2020rako, ingurumen-egoera ona lortzeko edo mantentzeko; halaber, kostaldea modu jasangarrian kudeatu behar da. 14. GJHak eskatzen die herrialdeei ozeano, itsaso eta itsas baliabideak kontserbatu eta modu jasangarrian erabili ditzatela, garapen jasangarriari begira. | Euskadiko itsasoko urak Bizkaiko Golkoaren azpieskualdeari dagozkio, Ipar Atlantikoko itsas mugapearen barruan. Hori "Espainiako itsas estrategietan" sartutako bost mugapeetako bat da, eta beraren kudeaketaren eskumena Espainiar Estatuaren Administrazio Orokorren eskuetan dago.<br><br>Gaur egun, Uraren Euskal Agentzia EAEko Trantsizio eta Kostaldeko Uren Egoera Ekologikoaren Jarraipenerako Sareaz arduratzen da; hor sartzen dira aldizkako kontrolak EAEn presentzia duten 14 trantsizioko ur-masetan eta kostaldeko 4 ur-masetan.<br><br>IV. IEPak planteatzen duen helburu estrategikoa da euskal ekosistemen narriadura gelditzea 2020rako. |

Itsas estrategiari buruzko esparru Zuzentzarauaren (IEEZ)<sup>37</sup> helburua da EBko itsas urek ingurumen-egoera ona izatea 2020 urtea baino lehen, ikuspegi ekosistemikoa emanaz itsas ingurunean eragina duten giza jardueren kudeaketari. Zuzentzarauaren arabera, Estatuak estrategia bat garatu eta aplikatu behar dute euren itsas uretarako, eta itsas eskualde edo azpieskualde berbera konpartitzen duten Estatu kideekin kolaboratu behar dute.

Euren itsas estrategien baitan, EBko Estatuak euren itsas uren hasierako ebaluazio bat egin behar zuten 2012ko uztaila baino lehen; horrekin batera, ingurumen-egoera ona<sup>38</sup> determinatu

<sup>36</sup> "Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoru kutsatuen plana 2007-2012".

<sup>37</sup> Europar Batasuna, [Itsas Estrategiari buruzko 2008/56/EE Esparru Zuzentzaraua](#).

<sup>38</sup> Itsas estrategiari buruzko Esparru Zuzentzarauak honela definitzen du ingurumen-egoera ona, bere 3. artikuluan: «itsas uren ingurumen-egoera, bidea ematen duena ekologikoki askotarikoak eta dinamikoak, garbiak, osasuntsuak eta produktiboak diren ozeano eta itsasoak egoteko».

behar zuten eta ingurumen-helburuak ezarri. Orobat, euren itsas uren ebaluazio etengabeko monitorizazio-programak sortu behar zituzten 2014ko uztaila baino lehen. Euren itsas estrategiaren hurrengo elementua da Neurrien Programa bat ezartzea (2016). Batzordeak ebaluatzen du ea elementu horiek esparru egokia diren itsas estrategiari buruzko esparru Zuzentarauaren betekizunak betetzeko.

Esparru horretan, 2012az geroztik, Espainiako Gobernuaren Nekazaritza eta Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak<sup>39</sup>, Autonomia Erkidegoen lankidetzarekin, Espainiako Itsas Estrategiak landu izan ditu; bertan, itsas ingurunearen plangintza jasotzen da 2020 urterako, hasierako egoera ebaluatuz, ingurumen-egoera ona lortu beharreko helburu gisa definituz, eta, horren ostean, helburu hori lortzera zuzendutako neurrien programa bat proposatuz. Zehazki, Euskadiko itsas ingurunea Ipar Atlantikoko itsas mugapean dago sartuta; mugape horrek barne hartzen ditu Bizkaiko Golkoko urak eta ur atlantiko iberikoak. Bi gune dira bereziki interesgarriak: Gaztelugatxeko biotopo babestua eta Mundakako Itsasadarreko eta Ogoño Lurmuturreko HBBE.

Badira hutsuneak itsas populazioaren egoerari buruzko ezagutza eta presioen jarraipenean, batez ere gai hauen inguruan: biodibertsitatearen alderdi batzuk, bertokoak ez diren espezieak, komertzialki ustiatzen diren itsas espezie batzuk (moluskuak), kutsadura eta itsaspeko zarata. Alor horretan, AZTI-Tecnaliaren lana azpimarratu behar da, zeren I+G proiektu batzuk garatzen ari baita Euskadiko itsas eremuan (itsas ekosistemen funtzionamendu-guneak, arrantzaren kudeaketa jasangarria, itsasoen eta kostaldean ingurumen-kudeaketa, eta baliabideen erabilera eraginkorra: itsas eta ur teknologiak). Beste gai batzuen artean, AZTIk kanpaina zientifikoak garatzen ditu urtero Bizkaiko Golkoan dagoen antxoa-populazioa ebaluatzeko (Bioman, Pelgas, Juvena). Ikerketa horren finantziazioa Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako sailburuordetza eta Europako Batzordetik etortzen da, Arrantza-erregulazioaren Europar Erregulazioaren baitan (Datuak Biltzeko Europar Esparrua); halaber, Nekazaritza eta Arrantza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren Arrantzako Idazkaritza Nagusiaren lankidetzak du.


Eusko Jaurlaritzaren ardurapen zuzenean dagoen itsas eremuko uren egoerak<sup>40</sup>, hau da, trantsizio-uren eta kostaldeko uren egoerak, hobera egin du 2011az geroztik, orokorrean (ikus 2.6. Grafikoa). Nolanahi ere, ingurumen-helburuak betetzeari dagokionez, trantsizio-urek maila apala dute gaur egun. Haien lehengoratzeko prozesu geldoa da, zeren hor kontzentratzen baitira lurzoruen hiri-erabilerak, industriaren presentzia mardulak eta portu-garapenak eragindako presioak. Zuzeneko presio horri –oraingoa edo historikoa– ibaiek sortu duten presioa gehitzen zaio, zeren kutsadura-kontzentrazio handiak ekarri baitituzte. Kostaleko urei dagokienez, berriz, esan daiteke helburuen betetze maila orokorra altua eta ontzat emateko modukoa dela.

---

<sup>39</sup> Orokorrean, IEEZren trasposizioa Estatuaren Administrazio Orokorrari dagokio, eta, hortaz, itsas ingurunearen babesa beraren eskumena da, salbuespen honekin: kostaldeko barne-urak eta oinarritzako lerrotik itsas milia bateraino dauden urak, horiek Uraren Esparru Zuzentaruaren ere sartuta baitaude (UEZ). Trantsizio-urak ez dira sartzen IEEZren jardueraren eremuan.

<sup>40</sup> Egoera orokorra ona dela kontsideratzen da ur-masen egoera kimiko eta ekologikoa ona bada, eta txarragoa dela gutxienez horietako bat ona ez bada.

## 2.6. Grafikoa. Trantsizio-uren eta kostaldeko uren egoera globalaren bilakaera, Euskadi 2011-2016



Iturria: URA<sup>41</sup>.

### Proposatutako neurriak:

- Estatuaren Administrazio Orokorraren eta EA Eren arteko elkarlana bultzatzea, itsas ingurunearen alorrean, hobeto aprobetxatu ahal izateko Euskadin dauden kudeaketa publiko-pribatuko aukerak.
- Ekosistemei eta itsas populazioei buruzko ikerketa eta ezagutza bultzatzea.

<sup>41</sup> "Euskal Autonomia Erkidegoko trantsizio-uren eta kostaldeko uren egoera ekologikoaren jarraipen-sarea". Laburpen dokumentua. 2016ko Kanpaina.

### 3 HERRITARREN OSASUNA ETA BIZI-KALITATEA BERMATZEA

#### 3.1 AIREAREN KALITATEA

| EUROPAR POLITIKA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                | 2020rako IEP                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| EBren aire garbiari buruzko politika eta legediaren arabera, airearen kalitatea nabarmen hobetu behar da Batasunean, OMEk gomendatutako mailetara hurbiltzeko. Beharrezkoa da kutsadura atmosferikoa eta horrek ekosistemetan eta biodibertsitatean dituen inpaktuak murrizten jarraitzea, karga eta maila kritikoak ez gainditzea epe luzerako helburutzat hartuta. Horretarako, ahaleginak biderkatu behar dira airearen kalitateari buruzko EBko legedia osorik betetzeko; halaber, neurri eta helburu estrategikoak ezarri behar dira 2020 urtearen ostera. | 2020rako IEParen 3. helburu estrategikoa da “Gure herritarren osasuna eta ongizatea sustatzea eta babestea”.<br><br>IV. IEPak planteatzen du, helburu estrategiko gisa, euskal herritarrek ingurumen osasuntsuaz gozatu ahal izatea 2020 urtean, ingurune baldintzekin lotutako gaixotasunen eragina murriztuz eta ingurune arriskuen ezagutza eta kudeaketan aurrera eginez, pertsonen ongizateari begira.<br><br>Gainera, IEPa are urrunago doa, eta eskatzen du gero eta kezka handiago sortzen duten ingurune bektoreak (kutsadura akustikoa, argi-kutsadura, elektromagnetikoa, substantzia kimikoak...) hobeto ezagutu eta kudeatu daitezela. |

EBk lege-corpus zabal bat garatu du<sup>42</sup>, eta bertan osasunean oinarritutako arau eta helburuak ezarri ditu kutsatzaile atmosferiko jakin batzuetarako. Ildo horretatik, EBko Estatuak bermatu behar dute kutsatzaile atmosferiko jakin batzuen kontzentrazioari buruzko informazio eguneratua herritarren esku jartzen dela aldizka. Halaber, emisioen goi-muga nazionalen buruzko Zuzentarauak aurreikusten du zer murrizketa egin behar diren, eskala nazionalen, kutsatzaile nagusietarako.

Gas kutsagarrien emisioek elkarreragina izaten dute osagai atmosferikoekin eta horien fenomenoekin, eta horrek ondorio larriak izaten ditu ekosistemetan eta izaki bizidunengan. Lehenengo kasuan, euri azidoak, ozono-geruzaren suntsipenak eta gisa bereko fenomenoek biodibertsitate eta tokiko ekosistementzat oso kaltegarriak diren aldaketak sortzen dituzte. Gizakien kasuan, frogatuta dago kutsadura atmosferikoak osasun-arazo ugari sortzen dituela; arazo horiek arnas eta zirkulazio sisteman dute bereziki eragina, prozesu kantzerigeno batzuk areagotzeaz gain. Orobat, berotegi-efektuko gasen emisioengatik atmosferan gertatzen diren aldatzeak badute eragina klima-aldaketan, eta horrek ondorio globalak eta tokikoak ditu ekosistemetan eta izaki bizidunengan, gizakiok barne sartuta.

Airearen kalitatearen jarraipenerako, Euskadik sistema-konplexu bat du kutsadurari buruzko datuak biltzeko, aztertzeko eta horren jarraipena eta ebaluazioa egiteko<sup>43</sup>. 2020rako IEPan proposatzen zen bezala, azken urteotan hobetu egin dira airearen kalitateari buruzko informazioaren kalitatea eta eskuragarritasuna, eta datuen kalitatea eta trazabilitatea bermatzeko prozedurak hobetzen jarraitzen dugu. 2016an aplikazio berri bat garatu da, metodo geoestatistiko bidez kutsatzaile nagusien mailak estimatzen dituen udalerrri bakoitzerako. Tresna berri hori aurrerapen mardula da, kutsadura toki mailan kudeatzeko


<sup>42</sup> Europako Batzordea, 2016. [Airearen kalitatearen buruzko arauak](#).

<sup>43</sup> Sistema xehetasunez deskribatzen da txosten honetan: [“Euskadiko 2016ko Ingurumen-profila. Aire. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila”](#).

eskaintzen dituen aukerengatik. Halaber, airearen kalitatea egun batzuk lehenago iragartzeko eredu bat abiatzeko lanak egiten ari dira.

1990etik 2015era, atmosferara doazen gas kutsagarrien emisioen maila nabarmen jaitsi da Euskadin, airearen kalitatearen indizearen (AKI) jokabide onean islatzen den bezala; izan ere, indizeak erakusten du 2005az geroztik, eta etengabe 2015era arte, egunen % 98,5ek baino gehiagok airearen kalitate ona izan duela, eta zifra hori egunen % 99,2ra iritsi da 2015ean<sup>44</sup> (ikus 3.1. Grafikoa)<sup>45</sup>.

### 3.1. Grafikoa. Urteko Jasangarritasun-indizearen bilakaera. Airearen kalitate ona (AKI)\* izan duten egunen ehunekoa, Euskadi 2005-2016



(\*) 2013ra arte kontabilizatzen dira airearen kalitate ona, onargarria eta moderatua duten egunak; metodologia aldatu zenez geroztik, kalitatearen kalifikazioa hauxe da: osoa ona, ona eta hobetzeko modukoa.

Iturria. Eusko Jaurlaritza. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Ingurumen-adierazleak.

Adierazlea osatzen duten gasei banan-banan begiratzuz:

- Azpimarratzekoa da SO<sub>2</sub> emisioen etengabeko jaitsiera, zeren % 84,9 jaitsi baitziren 1990etik 2015era (ikus 3.2. Grafikoa), batez ere bi arrazoiengatik: alde batetik, sufreak erregaietan duen presentzia mugatzen duen erregulazioa gero eta zorrotzagoa izateagatik; eta, bestetik, ikatzaren eta petrolioaren deribatuen ordeztasun gas naturala ezarri duen gasifikazio-prozesu trinkoagatik. Osasunaren gaineko inpaktuari dagokionez, SO<sub>2</sub>k egoera orokor ona du; SO<sub>2</sub>ren urteko batez besteko kontzentrazioa 10 µg/m<sup>3</sup>-tik beherakoa izan da azken 10


<sup>44</sup> Airearen kalitatearen indizearen (AKI) asmoa da herritarrak airearen kalitateaz informatzea, modu argi eta errazean. EAEko indizea airearen kalitatearen egoera sailkatzen duten kategoriatan dago banatuta. Indizearen kalkulurako erabilitako irizpideak honako hauek dira: -AKI bat ezartzen da kutsatzaile eta estazio bakoitzeko, azken hori kutsatzaile guztien IKA txarrenagatik definituta. Kontzentrazio-tarteak definitzeko, kontuan hartu dira 102/2011 EDaren I. Eranskinean ezarritako balioak. 2014ra arte, metodologia desberdin bat erabiltzen zen kalkulurako, bestelako kategoriatan eta balio-tarteekin.

<sup>45</sup> Airearen [kalitateari](#) buruzko urteko txostenetan eta [Euskadiko 2016ko Ingurumen-profila](#). Airearen txostenean aztertutako eremu geografiko bakoitzari buruzko informazio xehatua dago.

urteetan, eta hori indarrean dagoen legediak ezarritako maila baino askoz ere txikiagoa da, eta Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) gomendioen azpitik dago.

- Beste alde batetik, NO<sub>2</sub> emisioak –haien eragile nagusia trafikoa da- % 31,8 jaitsi ziren 1990etik 2015era. Hala eta guztiz ere, murrizketaren parte handiena 2005 urtetik aurrera gertatu da, eta, hortaz, zaila da determinatzea ea jaitsiera hobekuntza estrukturalengatik gertatu den ala krisi ekonomikoaren eraginez gertatutako trafikoaren jaitsieragatik eta erregaiei kontsumo txikiagoagatik (ikus 3.2. Grafikoa). 2005az geroztik, NO<sub>2</sub>ren urteko batez besteko kontzentrazioa urteko 40 µg/m<sup>3</sup>–eko muga-balioetik behera mantendu da. 2015ean, neurketa-estazioen % 100ek OMEk ezarritako gida-balioaren azpiko balioak erregistratu zituen.
- Ozonoak ez du joera garbirik erakusten, eta bere kontzentrazioa nahiko egonkorra da. 2015ean, aztertutako estazioen % 20 soilik egon zen OMEk gomendatutako balioaren azpitik: batez beste 100 µg/m<sup>3</sup> 8 orduan. Bai ikusten da ozonoaren aitzindarien jaitsiera etengabe bat (KOH<sub>2</sub>, CO, CH<sub>4</sub> eta NO<sub>x</sub>). Edonola ere, muga horren azpitik zentzu estuan mantentzea nekez bete daitekeen erronka bat izan daiteke, eta ez hainbeste kutsadura beragatik, baizik eta beraren osatze-prozesu naturalarekin zerikusia duten faktoreegatik, Euskadin hartzen diren neurri zuzentzaileetatik kanpo baitaude, hots, faktore independenteak direlako.
- CO emisioek beheranzko joera garbia erakusten dute. Emisioak % 64,4 jaitsi ziren 1990etik 2015era. Kutsatzaile honetaz neurtutako kontzentrazioa oso txikia da, eta legeak ezarritako 10 mg/m<sup>3</sup>-ko mugatik behera mantendu da alde handiz.
- PM<sub>10</sub> partikulen emisioek joera positiboa erakusten dute. Emisioak % 34,6 jaitsi ziren 1990etik 2005era. Dena dela, beheranzko bilakaera 2007tik aurrera gertatu zen gehienbat, krisi ekonomikoak eragindako jardueraren jaitsierarekin batera. Beste alde batetik, aipatzekoa da ezen, 2005az geroztik, PM<sub>10</sub>aren kontzentrazioak urteko 40 µg/m<sup>3</sup>-ko muga-balioaren azpitik egon direla airearen kalitatearen zona ia guztietan. 2015ean, neurketa estazioen %74ak erakusten duen kontzentrazioa, OMEk ezarritako gida-balioaren gainetik dago; 2005ean, aldiz, %11k erakusten zuen.
- PM<sub>2,5</sub> partikulen bilakaerak ez du joera garbirik erakusten 1990etik 2015era bitartean. Hala, 2007ra arte hazkunde garbia atzematen da (emisioak % 50 hazi ziren), baina hortik aurrera, krisi ekonomikoarekin batera, emisioak % 30 baino gehiago jaitsi ziren. 2005etik aurrera, urteko batez besteko kontzentrazioak urteko 25 µg/m<sup>3</sup>-ko balioaren azpitik mantendu dira. Izatez, gaur egun, kontzentrazioak 20 µg/m<sup>3</sup> baino askoz ere beherago mantentzen dira, eta hori da, hain zuzen ere, indarrean dagoen legediaren arabera 2020tik aurrera bete beharko den urteko muga. OMEk gomendatutako balioei dagokienez, kontuan hartutako estazioen % 50ek ezarritako gida-balioaren azpiko balioak erregistratu zituen 2015ean.

### 3.2. Grafikoa. Gasen eta material partikulatuaren osoko emisioen bilakaera; NO<sub>2</sub>, SO<sub>2</sub>, CO, PM<sub>10</sub> eta PM<sub>2,5</sub> 1990-2015. Indizea: 1990=100



Iturria. Eusko Jaurlaritza. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Ingurumen-adierazleak.

#### Proposatutako neurriak:

- Airearen kalitatea lurralde-antolamenduri, hirigintza-plangintzari eta trafikoaren kudeaketari buruzko politiketan integratzeko ahaleginak areagotzea, helburu komun baten barruan: garraio publikoak eragindako kutsadura murriztea.
- Airearen kalitatearen eremuan eskura dagoen informazio zabala herritarrei hobeto eta modu ulergarriagoan helaraztea.
- Airearen kalitatea iragartzeko teknikak indartzea, baldintza meteorologikoei edo bestelako baldintzek eragindako kutsadura-gertaerei aurrea hartu ahal izateko.
- Aurrera egitea gaur egun metodikoki monitorizatzen ez diren kutsatzaile berrien mailaren ezagutzan; adibidez: KOHak, merkaptanoak, amoniakoa, azido ez-organikoak, "black carbon", eta abar.

## 3.2 ZARATA

| EUOPAR POLITIKA                                                                                                                                                                      | 2020rako IEP                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                              |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Ingurumen-zarata buruzko Zuzentarauak inguruneke zaratarekiko esposizioaren ondorio kaltegarriak saihestu, prebenitu edo murriztera zuzendutako ikuspegi orokor bat aurreikusten du. | <p>Bere 3. Helburuan –gure herritarren osasuna eta ongizatea sustatzea eta babestea-, 2020rako IEPak identifikatzen ditu osasunean eragina izan dezaketen ingurumen-faktoreen garrantzi gero eta handiagoa, eta, alde horretatik, zarataren garrantzia azpimarratzen du bereziki, horrek gero eta kezka handiagoa sortzen baitu herritarrengan eta administrazio publikoetan.</p> <p>Zarataren kudeaketa 3.2. jarduteko lerroan jasotzen da, haxe bilatzen baitu: "Gero eta kezka handiagoa sortzen duten ingurumen-erronka eta –bektoreei aurre egitea (klima-aldaketa, kutsadura akustikoa, luminikoa, elektromagnetikoa, substantzia berriak...)".</p> |

Gehiegizko zarata osasun-arazoen kausa nagusietako bat da<sup>46</sup>. Arazo horri aurre egiteko, EBren ondareak askotariko betekizunak ezartzen ditu, hala nola: ingurumen-zaratarekiko esposizioaren ebaluazioa, zarata kartografiatzearen bitartez; ingurumen-zaratari eta beraren ondorioei buruzko informazioa herritarren esku dagoela bermatzea; eta ingurumen-zarata prebenitzera eta murriztera zuzendutako ekintza-planak aplikatzea, hori beharrezkoa denean; eta ingurumenaren kalitate akustikoa zaintzea, berau ona denean.

Espainiako EIR txostenean azaltzen den bezala, ingurumen-zaratari buruzko Zuzentarauaren aplikazioak atzerapen esanguratsua darama Espainian. Euskadiren kasuan, ingurumen-zarataren eta beraren inplikazioen inguruko kezka ez da berria (2005ean, Ihobek gida metodologiko bat argitaratu zuen zarata-mapak egiteko), baina, seguru aski haren kudeaketa ez da iritsi merezi duen lehentasun mailara. 2012an, kutsadura akustikoari buruzko dekretu espezifiko bat onartu zen, estatuko araudian ezarritakoa garatzeko (urriaren 16ko 213/2012 Dekretua, EAEko hots-kutsadurari buruzkoa). Ezartzen duen nobedade nagusia da 10.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerriek zarata-mapak onartu beharko dituztela (Espainiako arauan, hori 100.000 biztanletik gorako udalerrietan da derrigorrezkoa). Hiri-zarata murrizteko beharra ezarrita dago garraio-azpiegituren, lurralde-plangintzaren eta industriaren alorretan, baimen administratiborako prozeduren bitartez. Garraio-azpiegituren kasuan, berriz, ekimen garrantzitsuak garatu dira zarataren mapifikaziorako<sup>47</sup>; Euskadiko udalerri handienek badituzte zarata-mapa estrategikoak eta/edo zarataren kontrako ekintza-planak. Halaber, laguntza ematen ari zaie 10.000 biztanletik beherako udalerriei zarata-mapak egiteko eta zarata moteltzeko proiektuak garatzeko.

Alor honetan egindako aurrerapenak esanguratsuak dira, eta badirudi herritarren pertzepziorako zaratak utzi diola ingurumen-arazo larrienetako bat izateari: hala, 2011n, herritarren % 31k pentsatzen zuen ingurumen-arazo gogaikarriena zela bere bizilekuan; 2017an, berriz, herritarren % 3k soilik du pertzepzio hori<sup>48</sup>.

### Proposatutako neurriak:

- Zarata-planak prestatzea eta haien jarraipena indartzea.
- Kutsadura akustikoaren azterketa eta jarraipena egitea, airearen kalitatearekin egiten den bezala, alor horretako ingurumen-politika hobeto zehaztu ahal izateko.
- Gehiegizko zaratarekiko esposizio-egoerak herritarren artean prebenitzera zuzendutako ekintzak sustatzea.
- Herritarren sentsibilizazioa bultzatzea, zarataren arazoari eta beraren kausa, ondorio eta konponbideei buruzko arreta piztuz.

---

<sup>46</sup> OMS/JRC, 2011, [Burden of disease from environmental noise](#), Fritsch, L., Brown, A.L., Kim, R., Schwela, D., Kephapoulos, S. (eds), Osasunaren Mundu Erakundea. Europarako Eskualde Bulegoa, Kopenhage, Danimarka.

<sup>47</sup> ALHko Foru Sareko errepideen zarataren kontrako ekintza-plana (2010), Bizkaiko Foru Errepideetako soinu-kalitatea hobetzeko Ekintza-plana (2014-2019), GLHko zarata-mapa estrategikoak (2008), Euskal Trenbide Sareak (ETS) Euskadin kudeatzen dituen titulartasun autonomikoko trenbideek sortutako zarataren kontrako Ekintza-plana (2016).

<sup>48</sup> 2011ko datuak: [Ekobarometro Soziala](#); galdera: ingurumen-arazo hauetatik, zein da zure udalerrian eragozpen gehien sortzen dituen? 2017ko datuak: txostena: ["Herritarren jarrerak ingurumenaren aurrean"](#); galdera: esan diezadakezu zein izango litzatekeen, zuretzat, zure herri edo hiriko ingurumen-arazo nagusia?

### 3.3 URAREN KALITATEA ETA KUDEAKETA

| EUOPAR POLITIKA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           | 2020rako IEP                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p>EBren urari buruzko politika eta legediak ezartzen dutenez, trantsizio-ureen, kostaldeko uren eta ur gezaren gaineko presioen inpaktua –azaleko eta lurpeko urak barne sartuta– nabarmen murriztu behar da ur-masen egoera ona lortzeko, mantentzeko edo hobetzeko, Uraren Esparru Zuzentzarauan ezarritakoa betetzeko. Horren arabera, EBko herritar guztiak edateko eta bainatzeko uraren kalitateari buruzko arau zorrotzen babesa izan behar dute; gainera, nutrienteen zikloa (nitrogenoa eta fosforoa) modu jasangarriagoan eta eraginkorragoan kudeatu behar da, baliabideen erabileraren ikuspuntutik.</p> <p>6. GJHK eskatzen die herrialdeei uraren eskuragarritasuna bermatu dezatela, eta baita haren kudeaketa jasangarria eta saneamendua ere, herritar guztientzat.</p> | <p>2020rako IEPak uraren kalitate eta kudeaketa hartzen ditu kontuan bere 3. Helburu estrategikoan: “Gure herritarren osasuna eta ongizatea sustatzea eta babestea”. Hor eskatzen da, lehenik eta behin, ur-masen egoera ona lortzea, bai azaleko ur-masena (ibaiak, estuarioak, kostaldeko urak, aintzirak eta hezeguneak) eta bai lurpekoena eta eremu babestuetakoena (bainatze-eremuak, hartuneak, nitratoekiko eremua zaurgarriak, eta abar). Bigarrenik, kalitateko ur-eskariari erantzutea, jasangarritasuna, aurrezpena eta eraginkortasuna irizpide gidarizat hartuta, emari ekologikoen erregimenak errespetatuz eta ur-eskaria kudeatzeko tresnak sustatuz.</p> |

EBren urari buruzko politika eta legediaren helburu orokor nagusia da europar guztiak kalitate oneko ura eskuragarri izatea, behar duten kantitatean. Uraren alorrean, EBren ondarearen<sup>49</sup> helburua da Europako ur-masa guztien egoera ona bermatzea, gai hauek jorratuz: kutsaduraren iturriak (adibidez: nekazaritza, hiri-eremuak eta jarduera industrialak), ur-masen aldaketa fisiko eta hidrologikoak, eta uholde-arriskuen kudeaketa. Arroko plan hidrologikoak urari buruzko esparru Zuzentzarauaren betekizun bat dira, eta baita ingurune hidrikoaren babesa, hobekuntza eta erabilera jasangarria Europa osoan lortzeko tresna bat ere. Horrek barne hartzen ditu azaleko ur-masa gezak, hala nola lakuak eta ibaiak; lurpeko urak, estuarioak, eta kostaldeko urak itsas milia bateraino.

Ur-ingurunearen kudeaketa zeharkako gai bat da, bertan hainbat eragile aritzen baitira: Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta hornidura eta saneamenduaren kudeatzaileak; eta Estatuaren Administrazio Orokorraren mende dauden erakunde batzuk ere, hala nola Kantauri eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoak, eta Euskadiko Kostaldeko Demarkazioa. Administrazio horien artean, Uraren Euskal Agentziaren rola azpimarratu daiteke.


EAEn hiru plangintza-eremu edo mugape geografiko bereizten dira; horietako bi Kantauriko isurialdean daude (Kantauri Ekialdeko eta Mendebaldeko Demarkazio Hidrografikoak), eta bestea Mediterraneoko isurialdean (Ebroko Demarkazio Hidrografikoa). Plangintza horietako bakoitzak badu bere bigarren belaunaldiko plan hidrologikoa ([2015-20121 Planak](#)). Plan Hidrologiko hauek ur-masen kudeaketaren dimentsio guztiei ekiten die (egoera/kalitatea eta baliabide kantitatea) eta konprometituriko agente guztien partaidetzarekin landu dira. Orobat, plan horiek badituzte indarrean dauden legedi eta plangintzarekin bat datozen programak.

<sup>49</sup> Ondare horrek Zuzentzarau hauek hartzen ditu barne: [“Bainatzeko uren kalitateari buruzko Zuzentzaraua \(2006/7/EE\)”](#); [Hirietako hondakin-uren tratamenduari buruzko Zuzentzaraua \(91/271/EE\)](#), udalerrietako hondakin-uren eta hondakin-ur industrial batzuen isurketari buruzkoa; edateko uraren kalitateari buruzko Zuzentzaraua; [“Urari buruzko esparru Zuzentzaraua \(2000/60/EE\)”](#), baliabide hidrikoen kudeaketari buruzkoa; [“Nitratoei buruzko Zuzentzaraua \(91/676/EE\)”](#) eta [“Uholdeei buruzko Zuzentzaraua \(2007/60/EE\)”](#).

Azken urteotan, aurrerapen nabaria egin da euskal ur-masen egoeran, eskumena duten administrazio eta erakundeek garatutako politika eta lanei esker. Jarraian, ur-masen egoeraren datu nagusiak erakusten dira: ibaiak, urtegiak, lakuak eta hezeguneak, lurpeko urak eta eremu babestuak. Trantsizio-uren eta kostaldeko uren egoera aurreko kapituluan aztertu da.

- Ibaien egoera nabarmen hobetu da. Ibaien kasuan, egoera onean dauden ur-masak areagotu egin dira 2010az geroztik, eta 2014an iritsi ziren maila onenera (ikus 3.3. Grafikoa). Ibaien bilakaera onaren arrazoi nagusia da egoera ekologikoak hobera egin duela ezarritako saneamendu-neurriei esker, eta ez hainbeste egoera kimikoaren egoeragatik, zeren honen joera nahiko egonkor mantendu baita: ur-masen % 20 inguru egoera txarrean dago.


### 3.3. Grafikoa. Ibai, laku eta hezeguneen egoera orokorraren bilakaera\*, Euskadi 2010-2015



(\*) Egoera orokorraren adierazleak egoera ekologikoa eta egoera kimikoa integratzen ditu. Iturria. Eusko Jaurlaritza. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila.


- 2010az geroztik, Euskadiko laku eta hezeguneen egoerak oso bilakaera positiboa erakusten du; dena dela, ezin daiteke esan egoera orokorra ona denik, zeren 2015ean egoera onean zeudenak % 40 baino gutxiago baitziren.
- Euskadiko arro kantauriarrean, orain urtegi guztiek betetzen dituzte egoera ekologikoari lotutako ingurumen-helburuak (potentzial ona). Isurialde mediterraneoaren kasuan, Uribarri Ganboako urtegia da ingurumen-helburuak betetzen dituen bakarra.
- 2015ean, lurpeko ur-masen % 91,7k egoera kimiko ona zuen.
- Hobekuntza nabaria antzematen da kontsumorako uraren kalitatean. 2015ean, herritarren % 100ek zuen kalitate egoki edo onargarriko ura (ikus 3.4. Grafikoa).
- Bainatzeko uren kalitatea modu agerikoan hobetu da. 2014, 2015 eta 2016an, laginketen % 3k soilik izan zuen emaitza txarra (ikus 3.5. Grafikoa).

### 3.4. Grafikoa. Kontsumo-uren kalitatearen bilakaera. Biztanleriaren ehunekoa edateko uraren kalitatearen arabera, 2008-2014



Iturria: Eusko Jaurlaritzak. Osasun Saila. Ingurumen-adierazleak.

### 3.5. Grafikoa. Bainatzeko uren kalitatearen bilakaera. Hondartzetako eta bainu-guneetako laginketa-puntuaren ehunekoa.



Iturria: Eusko Jaurlaritzak. Osasun Saila. Ingurumen-adierazleak.

#### Proposatutako neurriak:

- Ingurunea zer den etengabe ikertzea, eta kontrol- eta monitorizazio-sistemen alde egitea.
- Uraren kudeaketa finkatzearen alde jarraitzea lanean, ardatz hauen inguruan: ur-ingurunea eta beraren inguruko eremua babestea eta lehengoratzeko; baliabide hidrikoen erabilera jasangarria; eta muturreko egoera hidrologikoen prebentzioa.

- Saneamendu, hornidura eta arazketaren alorrean oraindik ere falta diren oinarritzko azpiegiturak bukatzeko ahaleginak azkartzea, gune txikietako saneamenduaren arazoei heltzeko eta jatorriko kutsaduraren murrizketa bultzatzeko.
- Hornidura- eta saneamendu-zerbitzuak kudeatzen dituzten eragileen kudeatze-ahalmena indartzea ez baliabide teknikorik ez giza baliabiderik ez duten eremuetan.

### 3.4 HIRIEN JASANGARRITASUNA HOBETZEA

| EUOPAR POLITIKA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       | 2020rako IEP                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| EBren hiri-inguruneari buruzko politikak hiri-esparrua antolatzeko eta diseinatzeko politika jasangarriak aplikatzera animatzen ditu hiriak, ikuspegi berritzaileekin. Zehazki, ikuspegi berritzaileak gai hauei buruzkoak izango lirateke: hiri-garraio kolektiboa eta mugikortasuna, eraikin jasangarriak, eraginkortasun energetikoa eta hiri-biodibertsitatearen kontserbazioa. 11. GJHek lortu nahi du hiriak eta giza bizilekuak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea. | Bere 4. Helburu estrategikoan, IEPak planteatzen du 2020rako Euskadik ingurumen-jasangarritasuna txertatuta izan dezala bere biztanleen bizi-kalitatea hobetzera zuzendutako udal politiken ardatz esanguratsu gisa.<br><br>Horretarako, lehentasunak dira pertsonen kontsumo arduratsua bultzatzea, azpiegitura berdeak garatzea eta ezartzea, pertsonen eta salerosgaien mugikortasun jasangarriako hiri-ereduen alde egitea, baliabideen erabilera arduratsua sustatzea eta herriarren sentsibilizazioa eta parte-hartzea bultzatzea. |

Europa hiri eta herrien batasun bat da; EBko biztanleriaren % 75 inguru hiri-eremuetan bizi da<sup>50</sup>. Hiri-inguruneak erronka konkretuak planteatzen ditu ingurumenerako eta giza osasunerako; aldi berean, aukerak eskaintzen ditu eta baliabideen erabileraren eraginkortasuna handitzen du.

EBko Estatuek, europar instituzioek, hiriek eta alderdi interesatuek agenda berri bat landu dute EBrako ("Hiri Adimendunak" deritzan ekimena barne sartuta), gai horiei modu integralean heltzeko, desafio sozial eta ekonomikoekin duten lotura ere kontuan hartuta. Hiri-agenda horren muinean hamabi lankidetzak-ekimenen garapena egongo da, identifikatutako hiri-erronkak jorratzeko; horien artean, airearen kalitatea eta etxebizitza daude<sup>51</sup>. Europako Batzordeak erreferentziazko adierazle-sistema berri bat abiatuko du 2017an<sup>52</sup>.

EBk hiri berdeak sustatzen ditu, sari eta finantziazioaren bidez. Sari horietako bat "Europako Hiriburu Berdea" Saria da, 100.000 biztanletik gorako hirientzat -Gasteizek 2012an irabazi zuen sari hau-, eta beste ekimen bat "Europako Orri Berdea" da, 20.000 eta 100.000 bitarteko hiri eta herriei zuzendua.

Euskal politikak hiri-jasangarritasunari ematen dion garrantziaren adibide bat da 2016an Europako Hiri eta Herri Jasangarrien 8. Konferentzia<sup>53</sup> egin zela berton. Konferentzia hori Europako foro garrantzitsuena da tokiko hiri-jasangarritasunari buruzko esperientzia berritzaileen trukerako. Konferentzia horretan, 40 herrialdetatik baino gehiagotatik etorritako

<sup>50</sup> Europako Ingurumen Agentzia, [Hiri-ingurumena](#).

<sup>51</sup> <https://ec.europa.eu/futurium/en/urban-agenda>


<sup>52</sup> Batzordea azterketa konparatiborako eta hiri-ikuskapenerako tresna bat lantzen ari da («UBaM»). Gaur egun, [beraren beta bertsio bat](#) dago eskuragarri. Jardunbide egokiak sortzen dira, eta horiek hobeto hedatu ahal izango dira UBaM aplikazioaren bitartez, eta gero eta neurri handiagoan erakunde hauen bitartez: EUROCIITIES, ICLEI, Europako Udalerri eta Eskualdeen Kontseilua (EUEK), Eskualdeetako Lantaldea edo Alkateen Ituna, beste batzuen artean.

<sup>53</sup> <http://conferences.sustainablecities.eu/basquecountry2016/es/>

900 parte-hartzailek “Euskal Adierazpena” onartu zuten, hiri eta herri produktiboagoak, jasangarriagoak eta erresilienteagoak lortzera zuzendutako bide-orri berri gisa, ekonomia, gizarte eta ingurumenaren alorreko erronka premiazkoenei aurre egiteko<sup>54</sup>.

2002 urteaz geroztik, Euskadik Udalsarea 21 du eratuta, hau da, Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarea. Gaur egun, Euskadiko 178 udalerrrik osatzen dute sarea, haiek baitira protagonista nagusiak; horiekin batera, beste eragile hauek ere daude sartuta sarean: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza saila, Garraio Zuzendaritza eta Osasun Saila, Uraren Euskal Agentzia (URA), Energiaren Euskal Erakundea (EEE), Ihobe – Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa, eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiak. Lankidetzat instituzionala eta sareko lana dira Udalsarea 21en gakoa, euskal udalerrien garapen jasangarriaren bidean modu errealean aurrera egiteko. Lankidetzat dinamiken oinarria tailerrak eta lantaldeak dira (Ekitalde, Auzolan 21, Zubitalde, Talleres Ezaguturke)<sup>55</sup>; izan ere, horietatik sortzen dira kide guztien ingurumen-ekintza aberasten duten ezinbesteko ezagutza, metodologia eta emaitzak.

### 3.6. Grafikoa. Udalsarea 21ek 2020rako IEPaz duen pertzepzioa



OHARRA: emaitzak kalkulatu dira Udalsarea 21eko kideen artean 2017ko azaroan egindako inkesta baten erantzunetatik abiatuta. Guztira 10 erantzun jaso ziren, 28 udalerrri eta Bizkaiko LHa ordezkatuz.

Iturria. Geuk prestatuta.

<sup>54</sup> [EUSKAL ADIERAZPENA. Europar hiri eta herrientzako bide-orri berria, udalerrri produktibo, jasangarri eta erresilienteak sortuz Europa bizigarri eta inklusiborako](#). Europako Hiri eta Herri Jasangarrien Zortzigarren Konferentzia. Basque Country, Bilbo, 2016ko apirilaren 27tik 29ra.


<sup>55</sup> <http://www.udalsarea21.net/paginas/ficha.aspx?IdMenu=D014BC55-D205-40D0-BA08-4B3412EA1928&Idioma=es-ES>

Udalsarea 21eko udalerriek 2020rako IEPaz –orokorrean- eta haien eskumenekoak diren alderdi batzuez egiten duten balorazioa bitartekoa da. IEParen ezarpenak lortutako inpaktuari 5,8 puntu ematen dizkio balorazioak, 1 eta 10 bitarteko eskala batean, eta inkestatuen % 22k soilik uste du inpaktua nabaria izan dela (ikus 3.6. Grafikoa). Balorazio txarrena duten alderdiak hiri-ehunen lehengoratzeta eta erosketa publiko berdea dira; ondoen baloratzen dena, berriz, udalerrien arteko koordinazioa da.

### Herritarren kontsumo arduratsua

Herritarren kontsumo arduratsuari buruzko informazioa mugatua da. Dena dela, ur-kontsumoaren eta hondakinen datuei begiratuz gero, joera positiboa antzeman daiteke; uraren per capita kontsumoa % 22,7 jaitsi zen 2003tik 2014ra, eta hondakinen per capita sorrera % 9,2. Elikagaien alferrikako galerari dagokionez, Euskadiko datuek erakusten dute euskal herritarren kontsumo-eredua oso jasangarria dela. Herritarren % 72k uste du bere etxean alferrik galtzen diren elikagaiak erosten direnen % 5 baino gutxiago direla<sup>56</sup>. Ildo beretik, euskal herritarren % 21k esan zuen 2017an produktu ekologikoak kontsumitu ohi zituela (2013an % 19)), % 33k bilgarri edo paketatze arina zuten produktuak (% 31), eta % 59ek bertoko produktuak<sup>57</sup>.

### 3.7. Grafikoa. Kontsumo jasangarriaren adierazleen bilakaera: ur-kontsumoa biztanleko eta hiri-hondakinen sorrera biztanleko, 2003-2014. Indizea: 2003 = 100



Ura. Ur-kontsumoa biztanle eta egun bakoitzeko; Hondakinak. Hondakinen kantitatea biztanle eta urte bakoitzeko Iturria. INE ur-kontsumorako; eta Eusko Jaurlaritza. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Ingurumen-adierazleak.

<sup>56</sup> [EUSKAL SOZIOMETROA 65 – Zientzia eta teknologiaren inguruko gizarte-pertzepzioa](#). Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. Lehendakaritza, Eusko Jaurlaritza

<sup>57</sup> ["Herritarren jarrerak ingurumenaren aurrean"](#) (2017), Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. Lehendakaritza, Eusko Jaurlaritza.

Kontsumo arduratsua lehentasunezko lan-eremu bat da udalerrietan. Modu nabarian egiten ari da aurrera metodologiaren azterketa eta garapenean, hala nola Produktuaren eta Erakundearen Ingurumen-aztarnan eta ekoetiketatzean. Azken alderdi horri dagokionez, 2016an Ihobek eta EEEk Basquetourrekin batera lan egin dute ekoetiketa Euskadiko landa-ostatuaren aplikatzeko. Halaber, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuak askotariko ikastaro, tailer eta prestakuntza-ekintzak bultzatzen ditu, herritarrei zuzenduta, kontsumoaren ingurumenaren duen inplikazioa erakusteko.

Inplikazioaren eta kontsumo jasangarriko ekimenak abiatzearen ikuspuntutik, Aktibatu<sup>58</sup> programa nabarmendu behar da. Ekimen publiko-pribatu bat da, Nazio Batuen Erakundeak sustatutako Ekintza Globalerako Planeari (GAP) sartuta dagoena eta ideia errazak eta ekintza praktikoak proposatzen dituen energia, ura, hondakin eta mugikortasunaren eremuetan, pertsonen ohiturak aldatzeko xedez. 2012az geroztik, Bizkaiko ikastetxe ugari eta 2.000 familia inguruk parte hartu dute programa honetan.

### **Hiri-mugikortasun jasangarria**


Garraibideen jasangarritasunak erronka handia izaten jarraitzen du Euskadin. Aurrera egiten da garraibide jasangarrien sustapenean eta haien aldeko sentsibilizazioan, hala nola oinez ibiltzea eta bizikleta, eta baita garraio publikoaren sustapenean ere, trenbide-azpiegitura eta zerbitzuaren hobekuntza nabariekin eta sareen integrazioarekin (autobusak, aldiriko trenak, taxiak, bizikleta, eta abar). Orobat, aurrera egiten da trenbide-sare berri baten eraikuntzan; horrek, bere dimentsioagatik, nabarmen eraldatu beharko luke euskal garraio-eredua. Horrez gain, bereziki azpimarratu behar dira IKTen erabileran egiten ari diren urratsak, eskariaren kudeaketari begira; izan ere, faktore hori funtsezkoa izango da XXI. mendeko garraioaren jasangarritasunerako.

Hala eta guztiz ere, datuek erakusten dute ibilgailu pribatuak parte-hartze kuota irabazten jarraitzen duela, gainerako garraibideen aldean, eta Euskadin gehien erabiltzen dena izaten jarraitzen duela, nahiz eta, zalantzarik gabe, pertsonen eta ingurunean inpaktua handiena duen garraibidea den. 2016an, joan-etorrien % 72,5 ibilgailu pribatuan egin ziren.

---

<sup>58</sup> [Aktibatu +](#) Bizkaiko Foru Aldundiaren ekimen bat da, helburutzat duena herritarrak ingurumen-jasangarritasunaren alde parte hartzea bultzatzea; erakunde hauekin batera garatzen da: Garbiker Sozietate Publikoa, Eusko Jaurlaritza, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa, Bizkaiko Garraio Partzuergoa (BGP), Metro Bilbao, Eroski Taldea, Energiaren Euskal Erakundea (EEE), Iberdrola eta "La Caixa" Gizarte Ekintza.

### 3.8. Grafikoa. Garraiobide bakoitzaren sarrera-kuota, Euskadi 2006-2016



Iturria: Eusko Jaurlaritza, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila. Garraioen Eskariaren Irudia.

#### Baliabideen erabilera arduratsua

Zalantzarik gabe, hirietako bizi-kalitatea nabarmen hobetu da Euskadin. Herriak eta hiriak gero eta antolamendu eta plangintza gehiago eta hobeak dituzte, etxebizitzak kalitate handiagokoak dira, eta gero eta arreta handiagoa zuzentzen zaie ingurumen-alderdiei. Hala eta guztiz ere, aurreko kapituluetan erakusten den bezala, espazio publikoaren kalitatearen hobekuntza lurzoruaren artifizialazioaren hazkundearekin dator lotuta, eta horrek erakusten du ez dela behar den bezala baloratzen hiri-ehunak lehengoratzeko dagoen potentziala.

Beste alde batetik, energiaren eremuan sustapen- eta sentsibilizazio-kanpainak egiten dira aurrezpena eta eraginkortasuna etxebizitzetan bultzatzeko, eta horrek nolabaiteko inpaktu positiboa erakutsi du, azken urteetan, etxebizitzaren jokabidean (euskal etxebizitzaren per capita energia-kontsumoa % 5 jaitsi zen 2014an); nolanahi ere, ez du erakusten energia-kontsumoarentzat desiragarria izango litzatekeen beheranzko joera estruktural garbirik (ikus 3.9 Grafikoa).

### 3.9. Grafikoa. Etxebizitzetako energia kontsumoa, 2003-2014. Indizea: 2003 = 100



Iturria. Energiaren Euskal Erakundea

#### Proposatutako neurriak:

- Jasangarritasunari buruzko informazio-sistemak hiri eta udal mailan indartzea, ingurumena bere garapen-ereduan kontuan hartzen duen tokiko politika eraginkor baten oinarria izan daitezen.
- Herritarrak prestatzeko eta trebatzeko prozesuak indartzea, oraingo kontsumo-eredu ekonomiko eta sozialak ingurumenean dituen inpaktuez gehiago kontzientziatu daitezen.
- Enpresen ingurumen-kontzientziazioa indartzea.
- Jasangarritasunerako hezkuntza instituzioetan indartzea. Nazioarteko akordioak.

| EUROPAR POLITIKA                                                                                                                               | 2020rako IEP                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| EBko Tratatuaren arabera, EBko ingurumen-politikak nazioarteko neurriak bultzatu behar ditu eskualdeko edo munduko ingurumen-arazoei heltzeko. | Bere 6. Helburu estrategikoan, IEPak planteatzen du ingurumena Euskadiren nazioarteko proiektzioaren funtsezko elementu gisa finkatuta egon behar dela 2020rako, eta horretarako bikaintasun maila handiz jokatu behar dela ingurumen-politiken aplikazioan eta maila gorenean parte hartu behar dela, modu aktiboan, munduko ingurumen-foro eta -sareetan. |

Ingurumen-arazo gehienek mugaz gaindiko izaera dute, eta sarritan mundu osora hedatzen dira; beraz, nazioarteko lankidetzaren bidez soilik aurre egin dakieke eraginkortasunez. Europar Batasunak ingurumenari buruz sinatu dituen nazioarteko akordioak lotesleak dira EBko instituzioentzat eta bere Estatu kideentzat. Horren ondorioz, EBk eta bere Estatuak ingurumenari buruzko alde anitzeko akordio guztiak (IAAA) sinatu, berretsi eta aplikatu behar dituzte, modu egokian. Horren bidez, gainera, ekarpen esanguratsua egingo zaio JGHen lorpenari, EBko Estatuak 2015an hartu zuten konpromisoa betetzeari begira, eta juridikoki lotesleak diren akordio batzuetan jadanik jasota dauden konpromiso ugari hartzen ditu barne.

EBko Estatu batzuek IAAA batzuk sinatu edo berretsi ez izana oztopo bat da adostutakoa ingurumenaren alorrean aplikatzeko, baita EBren barnean ere, eta zalantzan jartzen du Europar Batasunaren sinesgarritasuna gai horri buruzko egiten diren nazioarteko negoziazio eta topaketetan. Kontuan hartu behar da, horri begira, hirugarren herrialdeak akordio horietan parte hartzera bultzatzea EBren helburu politiko finkatu bat dela. Bozketak barne hartzen dituzten akordioetan, zuzeneko eragina du EBk ematen duen boto kopuruan.

Bere eskumenen baitan, Euskadi oso aktiboa da nazioartean, bat egiten du Europak ingurumenarekin hartuta duen konpromisoarekin, eta modu aktiboan kolaboratzen du eskualde eta herrialde askorekin, ingurumenarekin lotutako gai ugarian (natura-ingurunea, klima-aldaketa, ekonomia zirkularra, eta abar). Horren adibide onak dira, besteak beste, ekimen hauetan duen parte-hartzea: Garapen Jasangarrirako Eskualdeko Gobernuen Sarea (nrg4SD), Europako Eskualdeen Ingurumen Konferentzia (ENCORE), Jasangarritasunaren aldeko Tokiko Gobernuen Sarea (ICLEI) eta The Climate Group.

## **II. ATALA. ESPARRU HABILITATZAILEA. APLIKAZIO-TRESNAK**

## 4 MERKATUAN OINARRITUTAKO TRESNAK ETA INBERTSIOA

### 4.1 INBERTSIO PUBLIKOAK ETA EUOPAR BATASUNAREN FUNTSEN EKARPENA

| EUOPAR POLITIKA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       | 2020rako IEP                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Europako Egitura- eta Inbertsio-funtsen Erregelamenduen arabera, EBko herrialdeek ingurumen-helburuak sustatu behar dituzte euren finantziazio-estrategia eta -programetan, ekonomia, lurralde eta gizarte mailako kohesioari, landa-garapenari eta itsas politikari begira; halaber, organo exekutiboan ahalmena indartu behar dute, alor horietan inbertsio errentagarri eta jasangarriak lortzeko. | <p>2020rako IEParen barruan, eta Eusko Jaurlaritzak agindu duenez baliabideen eraginkortasuna eta sinergien aprobetxamendua maximizatu behar direla, ingurumenaren alorrean azken 30 urteetan egin den inbertsioaren errentagarritasun ekonomikoa bultzatzeko beharra jasotzen da, ingurumen-aldagaia lehiakortasun-faktore kontsideratu dadin.</p> <p>Ingurumen Sailburuordetzan aurreikusitako aurrekontu-baliabideez gain, Eusko Jaurlaritzaren Sail batzuen inplikazioa aurreikusten da, eta baita beste instituzio batzuen ere, proiektu giltzarrien garapenaren bitartez.</p> |

Europako Egitura- eta Inbertsio-funtsak (EEI Funtsak)<sup>59</sup> ondo erabiltzea oso garrantzitsua da ingurumen-helburuak lortzeko eta beste alor politiko batzuetan integartzeko. Beste tresna batzuk, hala nola 2020 Horizontea, LIFE Programa eta Inbertsio Estrategikoetarako Europar Funtsa (IEEF), lagungarriak izan daitezke jardunbide egokiak aplikatzeko eta hedatzeko.


2017an, Euskadin 181.6 M €-ko funts publikoak bideratu ziren ingurumenaren alorrera (Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien aurrekontuak). Aurrekontuen ia erdia urarekin lotutako proiektuetara bideratu zen, eta % 32 hondakinen alorreko proiektuetara (ikus 4.1. Grafikoa). Gainerako % 19, berriz, alor tematiko hauen artean banatu zen: % 8 biodibertsitatea, % 7 hezkuntza, % 2 klima-aldaketa eta % 1 airea.

Europako Egitura- eta Inbertsio-funtsei dagokienez, Euskadik 391,8 M € jasoko ditu 2014-2020 garaian (% 45 EGEF funtsetatik dator, % 13,8 EGIFetik, % 22,2 LGENFetik eta % 18,9 IAEFetik<sup>60</sup>). Funts guztietatik, 55 M € (% 14,9) ingurumena babestera zuzenduko dira, eta 9,5 M € klima-aldaketari egokitzen eta arriskuak kudeatzera eta aurreikustera. Beste 58,2 M € (% 14,9) karbono-isurketa txikiko ekonomia sustatzera zuzenduko dira (ikus 4.2. Grafikoa). Horrenbestez, Euskadirentzat aurreikusitako Europako Egitura- eta Inbertsio-funtsen ia herena 2020rako IEPan aurreikusitako helburu batera zuzenduko dira.

<sup>59</sup> EEI Funtsek bost funts biltzen dituzte: Eskualde Garapeneko Europako Funtsa (EGEF), Kohesio Funtsa, Europako Gizarte Funtsa (EGIF), Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsa (LGENF) eta Itsas eta Arrantza Europako Funtsa (IAEF).


<sup>60</sup> Ez da barne sartzen Gazte Enplegurako Ekimenaren tarte autonomikoa.

#### 4.1. Grafikoa. Ingurumenaren alorreko Aurrekontuen Banaketa, 2017. Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiak



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila.

#### 4.2. Grafikoa. Europako Egitura- eta Inbertsio-funtsak, 2014-2020 Euskadiko aurrekontua helburu tematikoen arabera (M€)




Iturria: Geuk prestatuta, programa operatibo eta planen datuetatik abiatuta<sup>61</sup>

<sup>61</sup> EGEFen Euskadiko Programa Operatiboa 2014-2020, 1.3 bertsioa (2016), EGIFen Euskadiko Programa Operatiboa 2014-2020, Landa Garapenerako Euskadiko Programa 2015-2020, 3.2. bertsioa (2017), Arrantza eta Akuikulturako Euskadiko Plan Estrategikoa 2020.

Euskal ingurumen-helburuak inplementatzen laguntzen duen beste europar finantziazio-iturri bat 2020 Horizonte programa da. 2014-2016 garaian, euskal enpresa eta instituzioek 294,5 M €-ko finantziazioa lortu dute programa horretatik. Zenbateko horretatik, % 8 (24,9 M €) ekosistemen aukera-nitxoko proiektuak finantzatzeko erabili dira<sup>62</sup>; hor sartzen dira ingurumen-industriarekin lotutako alderdiak, hala nola urak deskontaminatzea, lurzoru kutsatuak lehengoratzeta eta berreskuratzea, eta arrisku ekologikoa monitorizatzea.

#### 4.3. Grafikoa. 2020 Horizonte programa: Euskadin lortutako finantziazioa, 2014-2016ko RIS3ren lehentasunen arabera



Iturria: Innobasque, 2017<sup>63</sup>.

## 4.2 KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEA

| EUOPAR POLITIKA                                                                                                                                                                                        | 2020rako IEP                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| EBren kontratazio publiko berdearen programek neurri erantsiak hartzera animatzen dituzte Estatu kideak, kontratazio publiko ekologikoko irizpideak lizitazio publikoen gutxienez % 50ean aplikatzeko. | Erosketa publiko berdea 2020rako IEParen 5. Helburuan aurreikusten da: "Politiken koherentzia bermatzea ingurumen-integrazioa areagotuz". Zehazki, ingurumen aldetik eredugarria eta herritarrentzat erreferentia den Administrazio Publiko bat lortzeko bidean aurrera egiteko tresna gisa.<br><br>Modu espezifikoan, erosketa publiko berdea tresna gisa sartzen da 2020rako IEParen bi proiektu giltzarritan. Administrazio Publiko Eredugarriari dagokiona eta Elikadura Zirkularrarena. |

Kontratazio publiko berdea (KPB) euren bizi-zikloan ingurumen-inpaktu mugatua duten produktu, zerbitzu eta obrak erosteko xedez agintaritza publikoek erabiltzen duten prozesu bat da; hau da, prozesu honen bidez erosten diren produktu, zerbitzu eta obren ingurumen-

<sup>62</sup> Euskadiko 2020rako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana (ZTBP 2020)

<sup>63</sup> Euskadiren parte-hartzea 2020 HORIZONTE programan. Bitarteko txostena, 2014-2016(2017), Innobasque.

inpaktua funtzio primario berbera izango luketen beste produktu, zerbitzu eta obra batzuen baina txikiagoa da.

Kontratazio publikoaren eroste-ahalmena BPGaren % 14aren adinakoa da, gutxi gorabehera<sup>64</sup>. Diru horren zati mardul bat ingurumen-inpaktu handia duten sektoreetan erabiltzen da, hala nola eraikuntza eta garraioa; era horretan, EPBak ekarpen esanguratsua egin dezake gastu publikoa murrizteko eta enpresa-ekimen berritzaile eta jasangarriak sustatzeko. Batzordeak zenbait EPB irizpide proposatu ditu EBrentzat<sup>65</sup>.

2016an, Euskadik 2020rako Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programa<sup>66</sup> onartu zuen; beraren bitartez, Euskal Administrazio osoa mobilizatzeko beharrezkoa den jardueraren esparrua ezartzen da, ingurumen-aldagaia barneratu eta bere erosketa eta kontratazioetan txertatu dezan.

Programa honen bidez, segida ematen zaio 2005 urtean hasitako ibilbide instituzional luze bati. Bere helburua da ingurumen-aldagaia erosketa eta kontratazio publikoaren % 50ean txertatzea 2020 urterako, Europar Batasunean ezarritako helburu orokorrarekin bat etorriz. Helburu hori Programan lehenetsitako produktu eta zerbitzuei dagozkien lizitazioetarako kalkulatu da, eta bai bolumen ekonomikogatik eta bai lizitazio kopuruagatik neurtuko da. Programa honetan sartzen diren produktu eta zerbitzu multzoak Europako Batzordearen jarraibideen arabera lehenetsi dira, Euskadin abiatutako ingurumen-politiken lehentasun nagusiak kontuan hartuz eta administrazioaren maila guztientzat interes berezia duten kategoriak barne sartzen direla bermatuz. Parte hartzen duten administrazio guztiek ingurumen-aldagaia sartu beharko dute 2018rako lehenetsitako 10 produktu multzoen kontratazioen % 50ean, gutxienez, eta baita 2020ko ekitaldirako lehenetsitako 20 multzoen kontratazioen % 50ean ere.

#### **4.1. Taula. Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen 2020rako Programaren helburuak.**

---

<sup>64</sup> Europako Batzordea, 2015. [Kontratazio publikoa](#).

<sup>65</sup> «Ingurumen hoberako kontratazio publikoa» izeneko komunikazioan [\[COM\(2008\) 400\]](#), Batzordeak gomendatu zuen EPBrako irizpide komunak ezartzeko prozesu bat sortzea. EPBaren ideia nagusia da ingurumen-irizpide garbi, egiaztagarri, justifikagarri eta handinahiak izatea produktu eta zerbitzuetarako, bizi-zikloaren ikuspegi bat oinarritzat hartuta eta oinarri zientifiko objektibo batez.

<sup>66</sup> [Euskadiko Erosketa eta Kontratazio Publiko Berderako Programa 2020](#) (2016), Ihobe.

|                  | 2016                                                                                                                                      | 2018                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                 | 2020                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             |
|------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| PROZESU HELBURUA | Ingurumenaren aldetik arduratsua den erosketa hobeto eta errazago integratzeko kontratazio-prozesuen berrikusketa eta neurrien plangintza |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      | Erosketa eta kontratazio publiko berde instituzionalizatua                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       |
| EMATZA HELBURUAK | Euskadiko administren ohiko kontratazio-tresnetan ingurumenaren irizpidea txertatzea                                                      | <b>10 produktu- eta zerbitzu-multzoren lizitazioen % 50ean</b> ingurumen-irizpideak kontuan hartzea: <ul style="list-style-type: none"> <li>- papera</li> <li>- ordenagailuak</li> <li>- imprimaketa - ekipamentuak</li> <li>- eraikinetako garbiketa-lanak</li> <li>- ibilgailuak</li> <li>- argitalpenak</li> <li>- elikadura</li> <li>- lorezaintza</li> <li>- bide garbiketa</li> <li>- obra zibilak eta azpiegiturak</li> </ul> | <b>20 produktu- eta zerbitzu-multzoren lizitazioen % 50ean</b> ingurumen-irizpideak kontuan hartzea: <ul style="list-style-type: none"> <li>- aurreko 10ak</li> <li>- eraikuntza</li> <li>- urbanizazioa</li> <li>- hondakinen birketa</li> <li>- elektrizitate hornidura</li> <li>- garraio publikoa</li> <li>- mezularitza</li> <li>- bulegoko altzariak</li> <li>- ehunak</li> <li>- bidaiak</li> <li>- ekitaldiak</li> </ul> |

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila.

Erosketa publikoaren neurketa eta haren trazabilitatea oso konplexuak dira eta metodologia aldetik sortu berriak (erosketa berdearen definizioa, exigentzia maila, zuzeneko erosketa barne sartzea, eta abar), eta behin betiko adierazleen panela zehazte fasean dago EB mailan.

2015 urtean eskura zeuden datuen arabera, ingurumen-irizpidez egindako kontratazioak 767 izan ziren, 77 milioi eurotik gorako bolumen ekonomikoarekin. Kontratazio horiek 2015ean egindako kontratazio publiko guztien % 8 izan ziren (ingurumen-aldagaia txertatu dezaketen kontratazio publikoen % 28), eta guztira kontratatutako bolumenaren % 28 (ingurumen-aldagaia txertatu dezaketen produktu edo zerbitzuen % 61). (Ikus 4.2. Taula). Europako datuekiko alderaketa (2012rako soilik daude eskuragarri) konplikatu da, zeren lehenetsitako ondasun multzoa desberdina baita.

#### 4.2. Taula. Ingurumen-irizpideak Euskadiko kontratazio publikoan duen txertatze maila (2015).

| EROSKETA PUBLIKO BERDEA                                | EUSKADI<br>(1) | EUSKADI | EUROPA<br>(2) |
|--------------------------------------------------------|----------------|---------|---------------|
| Produktuen/zerbitzuen kontratazio kopurua              | % 28           | % 8     | % 26          |
| Produktuen/zerbitzuen kontratazioen bolumen ekonomikoa | % 61           | % 28    | % 38          |

- (1) Euskadientzat kolore ilunagoz nabarmendu diren ehunekoak ingurumen-aldagaia txertatu ditzaketen produktuen/zerbitzuen gainekoak dira. Kontsideratzen da honako produktu edo zerbitzu hauek txertatu dezaketela ingurumen-aldagaia: Bulegoko papera, ekipo informatikoak, bulegoko altzariak, ibilgailuak (turismoak eta furgonetak), eraikinen garbiketa, mezularitza, argitalpenak eta bestelako inprimakiak, catering-zerbitzu puntualak, vending-zerbitzuak, lorezaintza, ehungintza eta laneko arropa, aholkularitza, ekitaldien antolaketa, catering-zerbitzu iraunkorrak, barne-argiztapena, zerbitzu energetikoak, eraikuntza, urbanizazio-lanak.
- (2) Europari dagozkion ehunekoak aukeratutako hamar produktu multzoetarako dira: garbiketako produktu eta zerbitzuak; eraikuntza; elektrizitatea; catering-zerbitzuak eta janaria; lorezaintzako zerbitzu eta produktuak; bulegoko IT ekipoak; kopiak eta paper grafikoa; ehungintza; garraioa; eta altzariak.

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila<sup>67</sup>, eta EBrentzat: [“The uptake of green public procurement in the EU27-DG Environment. 2012”](#).

<sup>67</sup> “Gizarte- eta ingurumen-irizpideak eta beste politika publiko batzuk Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta beraren sektore publikoaren kontratazioan txertatzeari buruz Gobernu Kontseiluak hartutako Erabakiaren jarraipen-txostena”(2016).

### Proposatutako neurriak:

- Erosketa publiko berdea gehiago integratzea eta koordinatzea ekonomia zirkularren helburuekin.
- Administrazio Publikoaren eta hornitzaile talde nagusien arteko elkarlana sustatzea, produktuen ezaugarriei, haien zirkulartasunari eta ingurumenean duten inpaktuari buruzko informaziorako eta ziurtapen formal eta ez-formalerako tresnak abian jartzeko.

### 4.3 FISKALITATE EKOLOGIKOA ETA INGURUMENERAKO DIRU-LAGUNTZAK

| EUROPAR POLITIKA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                             | 2020rako IEP                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p>EBren Ekonomia Zirkularrerako Ekintza Planak bultzatzen du pizgarri finantzario eta tresna ekonomikoen erabilera -adibidez: fiskalitatea- produktuen prezioek ingurumen-kostuak hobetu islatzen dutela bermatzeko.</p> <p>Ingurumenerako kaltegarriak diren diru-laguntzen ezabapena Europar Seihilekoaren testuinguruan gainbegiratzen da, eta baita EBko Estatuak aurkeztutako erreforma-programa nazionaletan ere.</p> | <p>Tresna ekonomikoak zeharkako eran sartzen dira IEPan. Lehenengo helburuan –“Gure kapital naturala babestea, kontserbatzea eta lehengoratztea, ekosistemek eskaintzen dizkiguten zerbitzuak gerizatzeko”-, 1.4. lerroan sartzen dira, natura-ingurunearen kudeaketan kontuan hartu beharreko funtsezko elementu gisa. 2. Helburuan – “Ekonomia lehiakor, berritzaile, karbono isurketa txikiko eta baliabideen erabiltzearen eraginkor baterantz aurrera egitea”-, isurketa eta lehengai naturalen erabilera zigortzeko eta berrerabilpena, birziklapena eta balorizazioa bultzatzeko tresna gisa.</p> <p>Halaber, ingurumen-fiskalitatea 2020rako IEParen 6 proiektu giltzarrietako bat da.</p> |

Kutsadura eta baliabideen erabilera zergapetzeak diru-sarrera gehiago sor ditzake eta gizarte-eta ingurumen-onura garrantzitsuak ekartzen ditu. Gainera, ingurumenarekin zerikusia duen fiskalitatea da, orokorrean, hazkundeari kalte egiten ez dioten bakarretako bat.

Euskadik badu bere zerga-sistema propioa. Indarrean dagoen Legedia betez (Gernikako Estatutua eta Ekonomia Ituna), euskal Instituzioek zergak arautu eta biltzen dituzte. Hala, Lurralde bakoitzeko Batzar Nagusiek zerga-arauak onartzen dituzte, eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiak zergak kudeatu, likidatu, bildu eta ikuskatzeaz arduratzen dira.

Euskadin ez zaio heldu ingurumen-fiskalitateari modu integralean. 2020rako IEPak proposatzen du ingurumen-fiskalitateari buruzko proiektu giltzarri bat abiatzea, helburu honekin: herritar, enpresa eta instituzioen ingurumenaren aldeko jokabide arduratsua modu sistemikoan kontuan hartzen duen zerga-sistema bat Euskadin ezartzeko bidean aurrera egitea. Orain arte, proiektuaren aurrerapenak txikiak izan dira, zeren egin den gauza bakarra izan baita aztertzea zer lege garatu litezkeen hondakinei buruzko tresna fiskalak ezartzeko, eta zer inpaktu ekonomiko izango lukeen horrek, Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planaren babespean (Hondakin Industrialen, Hiri Hondakinen eta Eraikuntza eta Eraispenerako Hondakinen Isurketaren gaineko Zerga, eta agregakin naturalak erauztearen (eta merkaturatzearen) gaineko Tasa/zerga).


Edonola ere, Euskadin badira ingurumen-zerga batzuk. Horien bilketa Ingurumen Zergen Kontuan jasotzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Ingurumen Kontuen baitan. Ingurumen-zergen bidez Euskadin bildutakoa 1.194 milioi euro izan ziren 2016an, hau da, BPGaren % 1,7<sup>68</sup>. Ehuneko hori Europako batez bestekoa -% 2,4<sup>69</sup>- baino nabarmen txikiagoa da. Euskadiko zerga guztien ehuneko gisa, ingurumen-zergak % 8,1 izan ziren 2016an. 2015eko datuak ahalbidetzen dute alderaketa bat egitea europar herrialdeekin: Euskadiko

<sup>68</sup> “Ingurumen-zergen Kontua (Eustat).

<sup>69</sup> [Environmental Tax Revenues](#) (Eurostat).

ingurumen-zergak zerga eta kontribuzio sozial guztien % 5,2 izan ziren, eta Europakoak % 6,3; beraz, kasu honetan ere Euskadiko ehunekoa nabarmen txikiagoa da (ikus 4.4. Grafikoa).

#### 4.4. Grafikoa. Ingurumen-zergen bidez bildutako dirua, zerga eta kontribuzio sozialetatik guztira datozen sarreren ehuneko gisa (egotzitako kontribuzio sozialak kanpo utzita).



Iturria: Eustat (Ingurumen Zergen Kontua), Eurostat eta geuk prestatutakoa.

EB28ko batez bestekoa baino modu nabariagoan, Euskadiko ingurumen-zergak honako hauek dira: energiaren gaineko zergak, 2016an bildutako diru guztiaren % 86,7 izan zirenak (EB28ko batez bestekoa % 76,9 da); % 12,5 garraioaren gaineko zergak dira (% 19,7 EB28an); eta bildutakoaren % 0,8 soilik etorri zen baliabideen edo kutsaduraren gaineko zergetatik (% 3,5 EB28an). Bereziki azpimarratu behar da kutsaduraren gaineko zergen garrantzi txikia, zeren 2016an 2,6 miloi euro izan baitziren, hau da, urte horretako BPGaren % 0,005 (ikus 4.3. Taula).

#### 4.3. Taula. Kutsaduraren gaineko zergak (mila €) Euskadin, zerga motaren arabera.

|                                               | 2014         | 2015         | 2016(*)      |
|-----------------------------------------------|--------------|--------------|--------------|
| <b>KUTSADURAREN GAINEKO ZERGAK</b>            | <b>5 037</b> | <b>5 335</b> | <b>3 619</b> |
| - Isurketen kontrolaren kanona                | 2 100        | 2 258        | 527          |
| - Lehorretik itsasora doazen isurketen kanona | 379          | 524          | 522          |
| - Uraren kanona                               | 2 558        | 2 553        | 2 570        |
| BPGaren % gisa                                | 0.008%       | 0.008%       | 0.005%       |

(\*) Aurrerapen-datua

Iturria: Eustat (Ingurumen Zergen Kontua) eta geuk prestatutakoa.

Euskadiko zerga-figura partikularren artean, **uraren kanona** nabarmentzen da. Izaera ekologikoa duen zeharkako zerga bat da, Euskal Autonomia Erkidegoaren zerga propioetat hartzen dena. Ekainaren 23ko Uraren 1/2006 Legearen VIII. Kapitulua bidez ezarri zen. Uraren kanonaren helburua da, beste neurri eta jardueren batzuekin batera, ingurumen-

jasangarritasuna epe luzera bermatzea, jokabideen aldaketa sustatuz eta uraren erabilera aldetik desiragarriak eta eraginkorrak diren jokabideak erraztuz. Bildutako dirua helburu hauetara zuzentzen da: ur-ingurunea babestea, lehengoratzeta eta hobetzea; eskumena duten administrazioekin kolaboratzea, hornidura- eta saneamendu-zerbitzu eraginkorrak lortzeko; eta lurraldeen arteko elkartasuna lortzea. Uraren eremu berean, isurketen kontrolaren kanona ere dago indarrean. Beraren bitartez, Jabari Publiko Hidraulikora egiten diren isurketen eragileak zergapetzen dira, bai isurtzeko baimena duten titularrak eta bai baimendu gabeko isurketen erantzuleak. Edonola ere, kontzeptu horiengatik guztiengatik Euskadin biltzen den zenbatekoa txikia da oraindik ere (ikus 4.3. Taula).


Euskadi mailan, ez dago ingurumenari kalte egiten dioten diru-laguntzen inguruko informaziorik. Bestalde, badira ingurumenerako mesedegarriak diren diru-laguntza mota batzuk. Horien artean, honako hauek azpimarratu beharko genituzke: sozietateen gaineko zergan inbertsioengatik egiten diren kenkariak; enpresa, udalerri eta toki-erakundeentzako zuzeneko diru-laguntzak; eta ingurumen-berrikuntzarako diru-laguntzak, ekonomia zirkularraren esparruan.

Sozietateen gaineko zergan egiten diren kenkariak, garapen jasangarria, ingurumenaren kontserbazio eta hobekuntza eta energia-iturrien aprobetxamendu eraginkorragoa bilatzen dituzten proiektuei lotutako inbertsio eta gastuengatik. Inbertsioak bi motakoak izan daitezke:

- Teknologia berrietan, Teknologia Garbien Euskal Zerrendan (TGEZ) sartutako ekipo eta teknologietan inbertitzeagatik. Kasu honetan, kenkaria % 30 da. TGEZ ingurumen-hobekuntza nabaria sortzen duten ingurumen-ekipoen zerrenda bat da. Hobekuntza hori eremu hauetan gauzatzen da: ura, airea, hondakinak, zarata, energia, baliabideak eta/edo lurzorua.
- Garapen jasangarria, ingurumenaren kontserbazio eta hobekuntza eta energia-iturrien aprobetxamendu eraginkorragoa bilatzen dituzten beste proiektu batzuetan. Barne hartzen ditu ibilgetu materialaren aktibo berrietan egiten diren inbertsioak eta lurzoruen garbiketan sortutako gastuak. Kasu honetan, kenkaria % 15 da.

2011-2015 bosturtekoan, guztira 430 enpresak lortu dute kenkaria (167 enpresak TGEZan inbertitu dute, eta 263k beste proiektu mota batean). Enpresa horiek 198,1 milioi euro inbertitu dituzte, guztira, eta diru-laguntzen bidez lortutako zenbateko osoa 31,8 milioi euro izan dira. Bai inbertsioa eta bai enpresa kopurua etengabe jaitsi dira, batez ere 2011z geroztik (ikus 4.5. Grafikoa): enpresa onuradunen kopurua % 50 jaitsi da, eta jaitsiera askoz ere handiagoa izan da TGEZko inbertsioen kasuan (% 82); gisa berean, behera egin dute osoko inbertsioak eta diruz lagundutako zatiak (% 79 eta % 77, hurrenez hurren).

#### 4.5. Grafikoa. Sozietateen gaineko zergaren kenkariak inbertsio berdeengatik. Euskadi 2011-2015




Iturria: Eusko Jaurlaritza, Ogasun eta Ekonomia Saila

Orokorrean, badirudi horrelako kenkariak tresna egokia direla baina urte hauetan eraginkortasuna galduz joan dela, batez ere TGEZkoei lotutako kasuan. Eraginkortasun galera hori ekarri eta -hortaz- hobetu beharko liratekeen arrazoiaren artean, honako hauek azpimarratu litezke: krisi ekonomikoa, enpresen ingurumen-inbertsioak nabarmen murriztu baititu; TGEZ berriztatu ez izana; eta horrelako kenkariak egotearen inguruan enpresek duten ezagutza maila.

Garapen jasangarriko jardueretarako udalerri, toki-erakunde eta enpresei ematen zaizkien zuzeneko diru-laguntzak dira ingurumen-garapenak abiatzearen alde egitera bideratutako beste tresna ekonomiko bat. Udalerrak eta beste toki-erakunde batzuk izan dira horrelako diru-laguntzen onuradun nagusiak, besteak beste gai hauetarako: lurzoru kutsatuak berreskuratzea, bidegorriak sortzea, hondakinen bilketa hobetzea eta habitat naturalak lehengoratztea. Azken hamarkadan, emandako diru-laguntzen balioa 68,1 milioi euro izan dira, eta horren % 72 udalerri eta toki-erakundeetara bideratu da. Azken 10 urteetan jaitsiera nabarmena antzematen da (% 24); hala, diru-laguntzak 2015ean iritsi ziren zenbateko txikienera, eta harrezkero igotzen hasi ziren berriro.

#### 4.6. Grafikoa. Garapen jasagarriko jardueretarako diru-laguntzak (udalerrriak eta enpresak). Euskadi 2007-2016



Iturria: Eusko Jaurlaritza. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila.

Bukatzeko, nabarmentzekoa da 2017az geroztik badela diru-laguntza multzo bat, 2020rako TZBParen barnean, Ekosistemen berrikuntza bultzatzeko; izan ere, Ekosistemak aukera-nitxo gisa identifikatu dira Euskadirentzat, RIS3ren barnean. Zenbait jarduera-lerro dituzten eta 2018an jarraipena izango duten laguntza horiek ia 2 milioi euro izan ziren 2017an (ikus 4.4. Taula).

#### 4.4. Taula. Ingurumen-berrikuntzarako laguntzak. Euskadi (2017).

| 2020rako ZTIP Ekosistemak                 | 2017               |
|-------------------------------------------|--------------------|
| Ekoberrikuntza Proiektuak                 | 800,000 €          |
| Proiektu Industrial Traktoreak            | 200,000 €          |
| I+G+b proiektuen diseinu bikaina          | 80,000 €           |
| Proiektuak ETEekin                        | 125,000 €          |
| Ekonomia Zirkularra Frogatzeko proiektuak | 500,000 €          |
| Ekodiseinua (BEdC)                        | 120,000 €          |
| <b>Guztira</b>                            | <b>1,825,000 €</b> |

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila.

#### Proposatutako neurriak:

- Azkarrago aurrera egitea politika fiskal berde integral eta oso baten azterketa, diseinu eta ezarpenean, politika hori ingurumen-politika orokorraren bidetik eramanez, jokabide kaltegarriak zergapetzea eta ingurumenaren aldekoak saritzea xedetzat hartuta.
- Politika fiskal berde integralaren esparruan, kutsadura zergapetzen duten zergen potentziala ahalik eta gehien aprobetxatzea, zeren horietan baititu Euskadik eskumen handiagoak.
- Garapen jasagarria bultzatzeko diru-laguntza eta laguntzek krisi ekonomikoaren aurretik zituzten mailak berreskuratzen joatea, diru-laguntzen tresna eta programen inpaktua ebaluatu eta gero.

## 5 GOVERNANTZA ERAGINKORRA ETA EZAGUTZA

| EUROPAR POLITIKA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               | 2020rako IEP                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| 16. GJHaren helburua da guztiei justiziarako sarbidea erraztea eta instituzio eraginkor, arduratsu eta inklusiboak maila guztietan sortzea. 17. GJHaren helburua da aplikazioa hobetzea, politiken koordinazioa eta koherentzia hobetuz, zientzia, teknologia eta berrikuntza bultzatuz, aliantzak eratuz eta aurrerabide-adierazleak garatuz. | 2015-2020 garairako IV. Ingurumen Esparru Programa da “Giza garapenerako eta hazkunde jasangarrirako Euskadi 2020” proiektuari eusten dioten 14 plan estrategikoetako bat.<br><br>Plan hori da gobernu-politika publikoei esparru koherente eta koordinatu bat emateaz arduratzen dena, haren eraginkortasuna ahalik eta handiena izan dadin. |

EBko legedi eta ingurumen-politikaren gobernantza eraginkorrak esparru instituzional egoki bat behar du, eta, halaber, politiken koherentzia eta koordinazioa, tresna juridiko eta ez-juridikoen aplikazioa, gobernu kanpoko alderdi interesatuekiko lankidetzat, eta ezagutza eta eskumenen maila egokiak<sup>70</sup>. Aplikazioa arrakastatsua izan dadin, gobernu zentralak eta eskualde zein tokiko gobernuak euren funtsezko eginkizun legegile eta administratiboak bete behar dituzte, hau da, horren mende dago arrakastaren lorpena; zehazki, beharrezkoa da aplikazio-araudi sendo bat izatea, ingurumen-helburuak lortzea ahalbidetzen duen lan koordinatua egitea, eta erabakiak hartzeko prozesu egokiak izatea; adibidez: baimen industrialei buruz. Eginkizun horiek betetzetik harago, gobernuak esku hartu behar du operadore ekonomikoek, zerbitzu publikoen enpresek eta partikularrek arauak errespetatzen dituztela bermatzeko (“betearazpen-bermea”). Orobat, gizarte zibilak ere bere rola jokatu behar du, baita ekintza judizialen bidez ere. Eragile guztien rolari eusteko, funtsezkoa da ezagutza eta frogak biltzea eta konpartitzea, bai ingurumenaren egoerari buruzkoak eta bai ingurumen-presio, -kausa eta -inpaktuei buruzkoak ere.

Halaber, EBko legedi eta ingurumen-politiken gobernantza eraginkorra lortzeari begira, mesedegarria da EBko Estatuaren barneko elkarrizketa, eta baita horien eta Batzordearen artekoa ere, horren bidez aztertzeke ea EBren oraingo ingurumen-legedia egokia ote den bere helburuetarako. Legedia modu egokian aplikatzeko modu bakarra da esperientziak Estatu kideen eskalan kontuan hartzea, hau da, EBren konpromisoak praxira eramatean izandako esperientziak kontuan hartzea. Estatu kideek bultzatuta 2014an sortutako “Make it Work” ekimenak eztabaida bat antolatzen du EBren ingurumen-legediaren argitasuna, koherentzia eta egitura hobetzeko moduez, oraingo babes-arauen maila jaitsi gabe.

<sup>70</sup> Batzordea lan bat egiten ari da herrialde bakoitzak EBko estatuen sistema administratiboen kalitate eta funtzionamenduari buruz duen ezagutza hobetzeko.

## 5.1 GOVERNANTZA ERAGINKORRA GOBERNU MAILA GUZTIETAN

| EUOPAR POLITIKA                                                                                                                                                                                                                                                                      | 2020rako IEP                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Ingurumen-legediaren aplikazioan, EB, nazio, eskualde eta toki mailan esku hartzen dutenei beharrezkoak diren ezagutzak, tresnak eta gaitasuna eman behar zaizkie, bai legedi horretatik ondorioztatzen diren onurak handitzeko eta bai gauzatze-prozeduraren gobernantza hobetzeko. | <p>Bere 5. Helburuan –“Politiken koherentzia bermatzea, ingurumen-integrazioa areagotuz”-, IV. Ingurumen Esparru Programak planteatzen du, helburu estrategiko gisa, ingurumen-integrazioa finkatuta egon dadila 2020an. Ingurumenari buruzko politika publikoen multzoak koherentea izan behar du, eta ingurumen-hobekuntzak lortzera zuzendutako neurriak onuragarriak izan behar dira beste politika batzuetarako.</p> <p>Esparru horretan, administrazioek modu koordinatuan lan egiten dute, beharrezkoa duten informazioa konpartitzen dute, eta ahalik eta sintoniarik handiena bilatzen dute euren politikak eraginkortasunez ezartzeko. Gainera, 2020an, herritarrak eta enpresak ingurumenaren egoera hobetzeko ekintza positiboaren benetako protagonistak izango dira.</p> |

### Arauk aplikatzeko ahalmena

Funtsezkoa da administrazio zentralak eta eskualdeko zein tokiko administrazioak beharrezkoak diren ahalmena, eskumenak eta prestakuntza izatea euren zeregin propioak gauzatzeko eta eraginkortasunez kooperatzeko eta koordinatzeko, maila anitzeko gobernantza-sistema baten baitan.

Euskal ingurumen-politika zeharkakoa da, Jaurlaritzaren ekintzari dagokionez, eta oso deszentralizatuta dago instituzionalki. Estatuko Administrazio Orokorrak (EAO), Eusko Jaurlaritzak, hiru Foru Aldundiek eta Udalek badituzte eskumenak ingurumenaren alorrean. Ingurumenaren alorreko eskumen gehienak Eusko Jaurlaritzari eta autonomia-erkidegoaren mailako gainerako administrazioei dagozkie, baina EAOk baditu eskumenak Ebro ibaiko arroko uraren kudeaketan eta kostalde kantauriarraren babesean.

Halaber, Foru Aldundiek oso eskumen garrantzitsuak dituzte alor hauetan: fiskalitate berdea, hiri-hondakinen kudeaketa, hondartzen kudeaketa, naturaren kontserbazioa, naturagune babestuen administrazioa, eta ingurumen-azpiegituren azterketa eta gauzapena. Orobat, ingurumen-hezkuntza eta –sentsibilizaziorako ekimenak sustatzen dituzte, eta ingurumenean inpaktu handia duten eginkizun batzuez arduratzen dira, hala nola lurralde- eta hirigintza-antolamendua, errepideen eta garraioaren kudeaketa, nekazaritza, abeltzaintza, mendiak eta herrilanak. Udalerrriak, berriz, gai hauetaz arduratzen dira: udalerriko hirigintza-plangintza eta hiri-antolamendu eta -garapena, mugikortasunaren kudeaketa, uraren saneamendu eta hornidura zerbitzuak eta ibilgailuen gaineko zergak. Gainera, herritarrengandik hurbil egoteagatik, funtsezko rola jotzen dute pertsonen ingurumen-sentsibilizazioan. Administrazio guztiek badituzte asignatuta dituzten eginkizunak betetzeko behar dituzten baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak.

### Koordinazioa eta integrazioa

2020rako IEPak jauzi kualitatibo bat ematen du ingurumen-politika koordinatzeko eta integratzeko prozesuetan; izan ere, **6 proiektu giltzarri** gauzatzea proposatzen du,

gobernantza konpartituaren filosofiaren ikuspegitik: 1. Administrazio eredugarria ingurumenaren aldetik; 2. Lurralde osasungarria; 3. Ingurumen-fiskalitatea; 4. Fabrikazio Berdea; 5. Elikadura zirkularra; 6. Azpiegitura berdea.

Proiektu Giltzarrien helburu nagusia da etorkizuneko ingurumen-erronkei heltzea, hots, Europar Batasunaren VII. Ingurumen Programan aurreikusitako ingurumen-erronkei heltzea, eta, horri lotuta, ingurumena balio erantsia sortzeko faktore bihurtzea administrazio publikoaren esku-hartzearen eremu guztietan. Proiektu giltzarrien garapena baliagarria izaten ari da gaitasunak batzeko, konfiantza- eta konplizitate-espazioak sortzeko eta baliabideak eta lan teknikoa konpartitzeko Eusko Jaurlaritzaren aldetik proiektuetan inplikaturik dauden Sailen artean.

Era horretan, sinergiak eta efektu biderkatzailea aprobetxatzen dira, eta ikaskuntza eta ezagutzaren transferentzia ahalbidetzen da inplikaturako eragileen artean, elkarlan eta berrikuntza publikoko esparru batean.

Proiektu giltzarrietatik harago, eta orokorrean, ingurumen-politika administrazio publiko aginpidedunen artean koordinatzeko lana nabarmen hobetu da; nolahi ere, beharrezkoa da aurrera egiten jarraitzea Foru Aldundien Ingurumen Sailen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko koordinazio teknikoan, IEParen 57. ekintzan jasotzen den bezala. 5.1. Taulan ikus daiteke zein diren euskal ingurumen-politikarekin lotutako gaiei buruzko koordinazio-mekanismo nagusiak.

### 5.1. Taula. Ingurumen-politikaren koordinazio eta parte-hartzerako mekanismo nagusiak

| TIPOLOGIA                   | ORGANOAK                                              | DESKRIBAPENA                                                                                                                                                                                                                                                                                              | OSAKETA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                |
|-----------------------------|-------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Orokorra                    | Ingurumen Aholku Batzordea.                           | Aholku-organo bat da. Bere helburua da interes ekonomikoak, sozialak eta Unibertsitatearenak ordezkatzen dituzten sektoreen parte-hartzea bultzatzea ingurumen-politikaren lanketa, kontsulta eta jarraipenean. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari atxikita dago. | Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Eusko Jaurlaritzako Beste Sail Batzuk (Hezkuntza; Ekonomiaren garapena eta Azpiegiturak; Osasuna), Eusko Legebiltzarra, Foru Aldundiak, EUDEL, Mugimendu ekologistak, kontsumitzaileen elkarteak, enpresa-erakundeak, erakunde sindikalak, zentro teknologikoak, ikerketa-zentroak, UPV/EHU. |
|                             | Ingurumen Batzordea                                   | Ingurumenaren alorrean EAEn diharduten administrazioen erlazio, partaidetza eta koordinazio organoa.                                                                                                                                                                                                      | Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Eusko Jaurlaritzako Beste Sail Batzuk (Hezkuntza; Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak; Osasuna).                                                                                                                                                                                                               |
|                             | Proiektu giltzarriei buruzko sail arteko jardunaldiak | 2020rako IEParen Proiektu Giltzarrien garapenean inplikaturako pertsonal politiko eta/edo tekniko osoa biltzen dute (jardunaldi bereizietan), garatzen ari den lanari buruzko ikuspegi orokor bat transmititzeko.                                                                                         | 2020rako IEParen proiektu giltzarrietan inplikaturako pertsonal politiko eta teknikoak.                                                                                                                                                                                                                                                                                |
|                             | 2020rako IEParen proiektu giltzarrien talde eragileak | 2020rako IEParen proiektu giltzarri bakoitza kudeatzeko eta bultzatzeko eratuak.                                                                                                                                                                                                                          | Proiektu bakoitzaren garapenean inplikaturako zuzendaritza, sail eta instituzio guztietako ordezkariez osatuta daude.                                                                                                                                                                                                                                                  |
| Natura eta Biodibertsitatea | Naturzaintza                                          | Naturaren kontserbazioaren alorrean aholkua emateko eta kooperatzeko organo kolegiatua. Baliabide naturalen antolamendu eta naturaren kontserbazioaren alorrean eskumena duen EAEko Administrazio Orokorraren sailari atxikita.                                                                           | Foru Aldundiak, Udalerriak, EAO, UPV/EHU, Elkarteak, Nekazaritza-sindikatuak, Basogintzako elkarteak, pertsona adituak.                                                                                                                                                                                                                                                |
|                             | Natura-parkeetako eta Urdaibaiko Biosfera             | Natura-parkeetan bada aholkularitza- eta lankidetzako organo propio bat, Patronatu deritzana, natura-parke bakoitzaren organo kudeatzaileari atxikita.                                                                                                                                                    | Gutxienez, erakunde hauen ordezkariek: Eusko Jaurlaritza, ukitutako Foru Aldundien Sail Kudeatzaileak, Udalak eta toki-erakundeak, ukitutako eskubideen titularrak, ingurumenaren                                                                                                                                                                                      |

| TIPOLOGIA  | ORGANOA                 | DESKRIBAPENA                                                                                                                                             | OSAKETA                                                                                                                                                                                                                                                                                               |
|------------|-------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
|            | Erreserbako patronatuak |                                                                                                                                                          | azterketa eta babesean ibilbide egiaztatua duten elkarteak, nekazaritza-sindikatuak eta basoetako jabeen elkarteak.                                                                                                                                                                                   |
| Ura        | URA                     | Uraren Euskal Agentziaren helburua da uraren politika Euskadin gauzatzea.                                                                                | Parte-hartzerako organo batzuk ditu. Bere Administrazio Kontseilua, Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien ordezkari osatua. Uraren Kontseilua, erakunde hauen ordezkari osatua: Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak, toki-erakundeak, Estatuak, erabiltzaileak, eta naturaren defentsarako elkarteak. |
| Hondakinak | HHKE                    | EAEko Hiri Hondakinen arloko Koordinazio Erakundea da Hondakinen Prebentzioaren Europako Astearen jarduerak EAEn koordinatzeaz arduratzen den erakundea. | Eusko Legebiltzarraren ekimenez eratu zen, eta beraren partaideak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila eta hiru Foru Aldundietako Ingurumen Sailak dira.                                                                                                          |

Iturria: Geuk prestatuta.

Orokorrean, eskualde-erakundeek ez dute ordezkariarik izaten organo hauetan, nahiz eta, batzuetan, lurraldearen kudeaketarako garrantzi handiena dutenak diren, lurraldera egokitutako irtenbideetarako eremu optimoa direlako.

Halaber, ez da behar den bezala bistaratzen politika publikoetan presentzia izan behar duen zeharkako ingurumen-narrazioa, 2020rako IEPak hori proposatu arren; gabezia hori, gainera, bereziki antzematen da administrazio publikoen aurrekontu publikoetan.

#### Proposatutako neurriak:

- Ingurumen-politika koordinatzeko eta bertan parte hartzeko dauden batzordeen eraginkortasuna ebaluatzea.
- Aurrera egiten jarraitzea ingurumen-politikari buruzko ikuspegi global eta koordinatu bat eraikitze bidean, ingurumen-politikaren zatiak instituzio/sail partikularretan enkapsulatu gabe.
- 2020rako IEPan jasotako 57. ekintza lehenestea, hau da, koordinazio teknikorako mekanismoak sortzea, ingurumen-politikaren jarraipena egiteko, Foru Aldundietako eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailen artean.

## 5.2 PARTE-HARTZE PUBLIKOA ETA JUSTIZIARAKO SARBIDEA

| EUOPAR POLITIKA                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      | 2020rako IEP                                                                                                                                                                                                                                                                                                      |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Aarhusko Hitzarmenak, EBren parte-hartze publikoari eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzko legediak eta Justizia Auzitegiaren jurisprudentziak eskatzen dute herritarrek eta haien elkarteek aukera izan dezatela proiektu eta planei buruzko erabakietan parte hartzeko eta ingurumen-justiziarako sarbide erreala izateko. | 2020rako IEPak parte-hartze publikoa aurreikusten du euskal ingurumen-politikaren zeharkako elementu gisa.<br><br>Bai 4. Helburuan –“Lurraldearen jasangarritasuna handitzea”- eta bai 5. Helburuan –“Politiken koherentzia bermatzea”-, herritarren parte-hartzea kontuan hartu beharreko funtsezko faktorea da. |

Herritarrek modu eraginkorragoan babes dezakete ingurumena baldin eta informazioa eskuratzeari, herritarrek erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzeari eta ingurumenaren alorrean justiziara iristeari buruzko Hitzarmenaren hiru "zutabeez" baliatu badaitezke. Erabaki administratiboak hartzeko prozesuetan, parte-hartze publikoa elementu garrantzitsu bat da bermatzeko eskumena duen agintaritzak modu egokian hartzen duela bere erabakia, hau da, egon daitekeen oinarririk onenarekin. Batzordeak modu sistematikoagoan aztertu nahi du, geroagoko fase batean, noraino betetzen diren derrigorrezko parte-hartze

publikoaren betekizunak. Ingurumenaren alorrean, justiziarako sarbidea berme multzo bat da, herritarrei eta haien elkarteei ahalbidetzen diena administrazio publikoaren ekintzen legezkotasuna edo omisioak auzitegi baten aurrean inpugnatzea. EBko ingurumen-legediaren aplikazio deszentralizaturako tresna bat da. Justiziarako sarbidea benetan izateko funtsezkoak diren bi elementu berraztertu dira, modu sistematikoan, EBko Estatu bakoitzarentzat: alde batetik, publikoaren ahalmen prozesala, GKEak barne sartuta; bestetik, aztertu da zer neurritan den oztopoa justiziaren kostua ezin ordainduzkoa izatea.

Euskal udalerrri ugaritan gauzatutako Agenda 21eko prozesuek erakusten dute nola parte hartu dezaketen herritarrek eta gizarte zibilak ingurumen-politikan eta haien jarraipenean. Une honetan, 76 udalerrri eta 3 eskualde parte hartzen ari dira 9. ebaluazio- eta jarraipen-programan, edo tokiko garapen jasangarriko plan berriak prestatzen ari dira. Guztiek edo gehienek gauzatzen dituzte parte-hartzearekin, komunikazioarekin eta gisa berekoekin lotutako jarduerak.

Parte-hartze prozesuak udal politikatik baino askoz ere harago hedatzen dira, eta Euskadin ohiko praktika dira ingurumenarekin lotutako plan sektorial nagusiak lantzeko prozesuetan (ikus 5.2. Taula). Gaur egungo erronka da prozesu puntual horiek aholkularitza/parte-hartze/ekintzarako plataforma egituratuago bihurtzea. Eusko Jaurlaritzaren Irekia plataformak –jardunean ari da- potentzial handia du horri begira.

## 5.2. Taula. Euskadiko Ingurumenarekin lotuta dauden plan nagusietako parte-hartze prozesuak.

|                                                          | Urtea | Tresnak                                                                                                               | Emaizak                                                                                                     |
|----------------------------------------------------------|-------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>2020rako IEP</b>                                      | 2014  | Topaketak enpresekin<br>Postontziak parte-hartze puntuetan<br>Open Space herritarrekin<br>Irekia eta sare sozialak    | 102 ekarpen<br>116 ekarpen<br>81 ekarpen; 50 parte-hartzaile.<br>15 ekarpen                                 |
| <b>2050rako Klima-aldaketaren Estrategia</b>             | 2015  | Foro soziala: lantaldeak, aurretik euskarri-dokumentazioa bidaliz<br>Irekia                                           | 21 parte-hartzaile<br>15 parte-hartzaile (30 iruzkin)                                                       |
| <b>2030rako Biodibertsitate Estrategia</b>               | 2016  | Foro soziala: 9 lantalde<br>Irekia                                                                                    | 74 parte-hartzaile (96 ekarpen)<br>parte-hartzaile bat                                                      |
| <b>2020rako Geodibertsitate Estrategia</b>               | 2014  | Zuzeneko kontaktua iritzi-liderrekin (erakundeak), eta aurkezpenak UPV/EHUn<br>Irekia<br>Geopedia Kanpaina Facebooken | 112 erakunde, 11 iritzi-lider, 72 ikasle<br>131 parte-hartzaile<br>3.760 elkarreragin (20.986 bisualizazio) |
| <b>2030erako Jasangarritasuneko Hezkuntza Estrategia</b> | 2016  | Bilerak interes-taldeekin (8)<br>Lantalde tematikoak (5)<br>Irekia                                                    | 86 parte-hartzaile<br>75 parte-hartzaile<br>7 parte-hartzaile                                               |


Iturria: geuk prestatuta, Plan/Estrategia bakoitzaren prozesu parte-hartzaileen txostenetatik abiatuta.

Herritarren parte-hartzea ingurumenaren alorreko gaitan lortzeari begira, funtsezkoa da herritarrek ingurumen-prestakuntza izatea. Euskadik abangoardiako prestakuntza-sistema bat du, batez ere lanbide heziketaren alorrean, ingurumen-jasangarritasuna hezkuntza-eredu pedagogikoaren ardatz gisa txertatzeari dagokionez (Heziberri 2020 Plana). Tokiko Agenda 21 Euskal Autonomia Erkidegoko udaletan abian jartzeak aukera eskaini zuen eskolak eta udalerrriak euren ingurumen-programak integratu zitzaizkion, eta horrela sortu zen Eskolako

Agenda 21. Hori jasangarritasunerako hezkuntza-estrategia garrantzitsu bat da, zeren ikasleei ahalbidetzen baitie udalerrietako ekintza-planetan parte hartzea. Ingurugela zentroak irakasleei eta ikastetxeei laguntzeko ekipamendu publikoen sare bat dira; haien zeregina da ingurumen-hezkuntzako plan eta programak unibertsitatez besteko hezkuntza-sisteman koordinatzea. Gainera, Euskadin lau Ekoetxe daude; ingurumenari buruz informatzeko eta sentsibilizatzeko zentroak dira, gune naturaletan kokatuak (Ekoetxea Urdaibai, Ekoetxea Txingudi, Ekoetxea Peñas Negras eta Ekoetxea Azpeitia).

Gaur egun, derrigorrezko hezkuntzako ikastetxeen ia % 70 sartuta dago Eskolako Agenda 21 programan (220.000 ikasle baino gehiago); horietatik, ia % 20k “Eskola Jasangarria” aitortza du<sup>71</sup>. Beste alde batetik, Ekoetxeen bisitari kopurua bikoiztu baino gehiago egin da 2008az geroztik.

### 5.1. Grafikoa. Ekoetxeen bisitari kopurua. 2008-2017.



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila.

Hala eta guztiz ere, herritarren % 27k soilik ezagutzen dituzte Ekoetxeak, % 25ek soilik Natura 2000 Sarea, % 18k Parketxeak<sup>72</sup>, % 69k A, B, C, D eta E sailkapen energetikoa etxetresna elektriko, ibilgailu eta etxebizitzetarako, eta % 47k zero emisioak, eko, C eta B sailkapena ibilgailuetarako<sup>73</sup>. Horrenbestez, herritarren hezkuntzak, sentsibilizazioak eta prestakuntzak bide luzea dute oraindik ere egiteko Euskadin.

Justiziarako sarbideari dagokionez, ez dago desberdintasun handirik Estatuko egoera orokorraren aldean. Espainiar sistema juridikoak ingurumen-gaiak auzitegiara eramateko aukera bermatzen die herritarrei. Hala eta guztiz ere, administrazioaren omisio edo ez-jardute kasuetan, badirudi herritarrek zailtasunak aurkitzen dituztela egoera inpregnatzeko ahalmen

<sup>71</sup> [Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila](#)

<sup>72</sup> Naturaguneetako bisitarietako informazio- eta harrera-zentroak.

<sup>73</sup> [“Herritarren jarrerak ingurumenaren aurrean”](#) azterlanaren datuak (2017).

prozesala lortzeko. Gainera, kausa administrazioak auzitegietara eramatea garestia da, eta eragozpen bat izan daiteke herritarrentzat, gaiak auzitegietara eramaterakoan<sup>74</sup>.

#### Proposatutako neurriak:

- Parte-hartze prozesuak sendotzea, emaitza homogeneousak lortzeko plan, programa eta estrategia guztietan.
- Informazioaren teknologiak ahalik eta gehien aprobetxatzea parte-hartze publikoa bultzatzeko eta jardunaren jarraipenerako sistemak hobetzeko, interneten eta sare sozialetan presentzia izanik eta baloraziorako adierazle eta mekanismoak ezarriz.

## 5.3 INFORMAZIO, EZAGUTZA ETA FROGETARAKO SARBIDEA

| EUROPAR POLITIKA                                                                                                                                                                                                                                                                                | 2020rako IEP                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Aarhusko Hitzarmenak eta EBren informazioa eskuratzeari eta datu espazialak konpartitzeari buruzko legediak eskatzen dute publikoak aukera izan dezala ingurumenari buruzko informazio argia eskuratzeko, EBren ingurumen-legedia nola aplikatzen ari den ezagutzeko informazioa barne sartuta. | Ingurumenaren arloetako informazioa prestatzea, kudeatzea eta administrazioen artean eta herritarrekin konpartitzea 2020rako IEParen zeharkako lehentasun bat da.<br><br>Halaber, 5. Helburuak –“Politiken koherentzia bermatzea, ingurumen-integrazioa areagotuz”- lehentasunezko hartzen du ingurumenari buruzko ezagutzaren oinarria hobetzea eta ezagutza hori transferitzea eta baloratzea, eskual ingurumen-politika hobetzeari begira. |

Administrazio publikoentzat, herritarrentzat eta enpresentzat bereziki garrantzitsua da ingurumen-informazioa eraginkortasunez eta efizientziaz konpartitu dadila. Horri begira, enpresa eta agintaritza publikoek txostenak aurkeztu behar dituzte eta publikoari modu aktiboan helarazi, bide elektronikoak gero eta neurri handiagoan erabiliz.

Aarhusko Hitzarmena, ingurumen-informaziorako sarbide publikoari buruzko Zuzentaraua<sup>75</sup> eta Inspire Zuzentaraua<sup>76</sup> dira ingurumen-informazioa agintaritza publikoen artean eta herritarrekin trukatzeari eusten dioten oinarri juridikoak. Gainera, EBko Administrazio Elektronikoari buruz martxan dagoen Ekintza Planetik ingurumenari dagokion zatia osatzen dute<sup>77</sup>. Lehenengo bi tresnek publikoari informazioa emateko betebeharra ezartzen dute, bai modu aktiboan bai aurretik eskatuta. Inspire Zuzentaraua tresna aurrendari bat da datu elektronikoak agintaritza publikoen artean trukatzeko, agintaritza horiek informazioa konpartitzeko politika desberdinak dituztenean; adibidez: datuak dohainik eskuratzeari dagokionez. Zuzentarau horrek geotari bat ezartzen du, Estatu kide bakoitzak konpartitzen duen informazio espazialaren maila adierazteko, hau da, leku konkretuekin lotutako datuak; adibidez: airearen kalitatearen kontrolaren datuak. Beste abantaila batzuen artean, agintaritza publikoek informazioaren alorrean dituzten betebeharrak errazten ditu.

<sup>74</sup> [EIR, Espainia](#) (2017).

<sup>75</sup> Europar Batasuna, [Ingurumen-informaziorako sarbide publikoari buruzko 2003/4/EE Zuzentaraua](#).

<sup>76</sup> Europako Batzordea, 2016. [Inspire](#) Zuzentaraua

<sup>77</sup> Europar Batasuna, EBren Administrazio Elektronikoari buruzko Ekintza Plana 2016-2020: administrazioaren eraldaketa digitala azkartzea, [COM\(2016\) 179 final](#).

Estatu kide bakoitzarentzat, ingurumen-informazioaren irisgarritasuna berraztertu da sistematikoki (Inspire Zuzentarauan aurreikusitakoaren arabera), eta baita datuak trukatzeko politikak ere (“datu irekiak”).<sup>78</sup>

Espainiak modu egokian jokatu du Inspire Zuzentarauaren aplikazioan, Zuzentarau hori ingurumen-informazioa publikoari modu aktiboan helaraztea ahalbidetzen duen esparrutzat hartuta. Inspire Zuzentarauaren<sup>79</sup> aplikazioari buruz hiru urtetik behin egiten duen txostenean, Espainiak adierazi du jadanik aplikatu direla eta eskuragarri daudela informazioa konpartitzeko beharrezkoak diren politikak, eta, hortaz, administrazio nazionalak, EBko beste Estatu batzuetako administrazioek eta EBko instituzioek informazio espaziala eskuratu eta erabil dezaketela prozedura-oztoporik gabe. Espainian, erakunde publikoen arteko informazio-trukea ondo definituta dago legearen bidez. Ingurumen-informazioaren kasuan, 2003/4/EE140 eta 2003/35/EE141 Zuzentarauak txertatzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legeak<sup>80</sup> bermatzen du datuak publikoaren esku jartzen direla. Espainiar administrazioen % 30ek baino gehiagok datu ireki gisa jakinarazi eta argitaratu ditu bere datu espazialak.

Euskal Administrazioek ingurumen-informazioa bildu, aztertu eta argitaratzen dute, eremu tematiko bakoitzerako (klima-aldaketa, biodibertsitatea, airea, ura, lurzorua, hondakinak eta baliabide materialak). Halaber, ingurumen-bektore nagusiei buruzko informazio eguneratua eskaintzen duten operazio estatistikoak egiten dituzte modu egonkorrean. Alde horretatik, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren eta Ihoberen webguneek ingurumen-politikari, erregulazio-sistemari, argitalpenei eta ingurumenaren alorreko jardunbide egokiei buruzko informazio mardula jartzen dute publikoaren eskura. Beste alde batetik, Eusko Jaurlaritzaren “Open Data Euskadi” sistemak ingurumenari buruzko datu-base ugari eskaintzen ditu, kontsultatzeko eta ustiatzeko.

Arazo nagusia da kasu askotan datu ugari egoten direla baina zehaztasun gutxiz prozesatuta; gainera, informazio-iturri desberdinetatik hartuta daude (Open Data Euskadi, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Ihobe, URA, Eustat, eta abar), eta beti ez dira behar bezainbeste koordinatuta egoten. Horrek oztopatzen du informazioa eskuratzeko bidea gai honetan adituak ez diren pertsonen eta, oro har, herritarrei.

#### **Proposatutako neurriak:**

- Ingurumenari buruzko informazio dokumental eta estatistikoaren sistemak hobetzea, eskumena duten erakundeen jarduerak koordinatuz, eskaintzen diren datuen aberastasunaren koherentzia bermatzeko.

---

<sup>78</sup> Batzordearen eskariz, EBko Estatu gehienek Inspire Ekintza Planak eskuratu dituzte, aplikazioaren alderdiak lantzeko. Une honetan, Batzordea plan horiek ebaluatzen ari da.

<sup>79</sup> Europako Batzordea, [Inspire txostenak](#).

<sup>80</sup> <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2006-13010>

## 6 1.ERANSKINA. TXOSTENA EGITEKO METODOLOGIA.

### 6.1 IEP-AREN JARRAIPEN ETA EBALUAZIO PROZESUA

2020rako IEPak aurreikusten du –bere testuan- nolakoa izan behar den bere jarraipen- eta ebaluazio-prozesua. Ingurumenaren kalitatearen aurrerapenak neurtzeko tresna arruntez gain (ingurumen-profila, ekobarometro sozial eta industrialak, ingurumenaren egoerak, ingurumen-estatistika, eta abar), tresna espezifikoak ere abiatzen dira. Alde batetik, bi urtetik behin egiten diren Jarraipen-txostenak, 2020rako IEPan aurreikusitako jarduera eta proiektu giltzarrien aurrerapen maila islatzen dutenak; eta, bestetik, 2020rako Ingurumen Esparru Programaren Ebaluazio-txostenak, programa horrek euskal ingurumen-politikan duen inpaktua aztertu eta baloratzera zuzenduak. Txosten honetan egindako lana azken horri dagokio. Zehazki, 2020rako IEParen bitarteko ebaluazio-txostena da, hau da -aurreikusita zegoen bezala- 2017 urteari dagokiona.

### 6.2 EUROPAKO INGURUMEN POLITIKAREN ETA IEP-AREN EBALUAZIOA

2020rako IEPa Euskadin ezarritako ingurumen-plangintzaren dinamikan kokatzen da, hau da, 2002-2020rako Garapen Jasangarrirako Euskal Ingurumen Estrategiaren erredakzioarekin eta oraingoaren aurretik egindako hiru Ingurumen Esparru Programekin ezarritako ingurumen-plangintzaren dinamikan. Ingurumen-plangintza osoa Europako ingurumen-politikatik datozen jarraibideen bidetik doa. Zehazki, 2020rako IEPak Europar Batasunak Ingurumenaren alorrean 2020ra arte indarrean duen VII. Ekintza Programa Orokorretik datozen jarraibideak hartzen ditu kontuan, hots, “Ondo bizi, gure planetaren mugak errespetatuz” deritzan Ekintza Planaren jarraibideak.

Europako ingurumen-politika ezartzeko prozesua hobetzera zuzendutako tresna gisa, Batzordeak “The Environmental Implementation Review” (EIR) jarri du martxan; beraren helburua da EBko ingurumen-politika eta –legediaren aplikazioak Estatu kide bakoitzean dituen hutsuneak betetzea, horien kausak identifikatzea, eta irtenbide eraginkorrak bilatzeko jardunbide egokien trukea bultzatzea.

Hala, Europar Batasunak aurreikusita du ebaluazio-txosten espezifikoak egitea, bi urtetik behin, Batasuneko herrialde bakoitzerako. Txostenen egitura Zazpigarren Ingurumen Ekintzarako Programaren edukian ezarritakoa da, eta baliagarriak izango dira Batzordearen eta EBko Estatuaren arteko elkarrizketarako esparru gisa eta Europako ingurumen-politikaren aplikazioa hobetzera zuzendutako ekintzak bultzatzeko. Gaur egun, EIRetik 2017an onartu zen paketeak 28 herrialdeen txostenak biltzen ditu; dokumentu horietan, indar, aukera eta ahulezia nazionalak deskribatzen dira; halaber, Komunikazio batek herrialde guztien desafio komunak identifikatzen ditu, eta azaltzen du nola konbinatu daitezkeen ahaleginak emaitza hobekuntzarako; azkenik, komunikazioaren eranskin batek EBko Estatu guztientzat iradokitako hobekuntza-neurriak laburbiltzen ditu.<sup>81</sup>

---

<sup>81</sup> [Environmental Implementation Review \(EIR\)](#).

2020rako IEParen ebaluazioa egiteko, egokitzen jo da EIRari atxikitzea, zeren horrek marko homogeneo bat eskaintzen baitu Euskadiren jokabidea alderatzeko europar herrialdeetako ingurumen-politikaren ibilerarekin. Horretarako, IEParen bitarteko ebaluazio-txostena erredaktatu da EIRaren baitan egindako "Herrialdeen 28 txostenetan" erabilitako formatu berbera erabiliz.

## 6.1. Taula. EIRen Egitura

### 1. ATALA. EREMU TEMATIKOAK

1. EKONOMIA ZIRKULARRA ETA BALIABIDEEN ERABILPENEAN ERAGINKORRA
  - a. Ekonomia zirkularra garatzea eta baliabideen erabilpenaren eraginkortasuna hobetzea
  - b. Hondakinen kudeaketa
2. KAPITAL NATURALA BABESTE, KONTSERBATZEA ETA HOBETZEA
  - a. Natura eta biodibertsitatea
  - b. Kapital naturalaren estimazioa
  - c. Azpiegitura berdeak
  - d. Lurzoruaren babesa
  - e. Itsas babesa
3. HERRITARREN OSASUNA ETA BIZI-KALITATEA
  - a. Airearen kalitatea
  - b. Zarata
  - c. Uraren kalitatea eta kudeaketa
  - d. Hirien jasagarritasuna
  - e. Nazioarteko akordioak

### 2. ATALA. APLIKAZIO-TRESNAK

4. MERKATUAN OINARRITUTAKO TRESNAK ETA INBERTSIOA
  - a. Fiskalitate ekologikoa eta ingurumenari kalte egiten dioten diru-laguntzak
  - b. Kontratazio publiko berdea
  - c. Inbertsioak
5. GOBERNANTZA ERAGINKORRA ETA EZAGUTZA
  - a. Administrazio Publikoaren kalitatea
  - b. Betearazpenaren bermea
  - c. Parte-hartze publikoa eta justiziarako sarbidea
  - d. Informazio, ezagutza eta frogetarako sarbidea

EIRen eskema eta haien kadentzia oso ondo uztartzen da 2020rako IV. IEParen ebaluazioaren helburuekin.

Hala, EIRaren “Ekonomia zirkular eta baliabideen erabilpenean eraginkorra”, “Kapital naturala babestea, kontserbatzea eta hobetzea” eta “Herritarren osasuna eta bizi-kalitatea” deritzen eremu tematikoak bat datoz IV. IEParen 2., 1. eta 3. helburu estrategikoen bilakaeraren azterketarekin. 5. Helburu estrategikoren bilakaera (politiken koherentzia bermatzea, ingurumen-integrazioa areagotuz) EIRaren Gobernantza eraginkorraren eta ezagutzaren epigrafean jasotzen da gehienbat. Kasu guztietan, eta informazioa eskuragarri baldin badago, EIR txostenetan jasotako ebaluazio-adierazle berberak erabiltzen dira. Hori ezinezkoa denean, kasuan kasuko gaiaren azterketa eta ebaluazioa ahalbidetzen duten alternatiba kuantitatiboak eta/edo kualitatiboak erabiltzen dira.

Azkenik, 2020rako IEParen bitarteko ebaluazioa elementu hauekin osatzen da:

- Aztergai izandako alor tematikoetan adituak diren pertsona independenteen talde baten iritzi kualifikatua.
- Euskadiko Udal Administrazioei zuzendutako inkesta bat, IEParen ezarpenean aurkitutako traba nagusien eta horiei heltzeko funtsezko faktoreen inguruan duten iritzia jasotzeko.

|                             | 1. Helburu<br>Estrategikoa.<br>Gure kapital naturala<br>babestea,<br>kontserbatzea eta<br>lehengoratztea,<br>ekosistemen eskaintzen<br>dizkiguten zerbitzuak<br>gerizatzeke. | 2. Helburu<br>Estrategikoa.<br>Ekonomia lehiakor,<br>berritzaila, karbono<br>isurketa txikiko eta<br>baliabideen<br>erabileraren<br>eraginkor baterantz<br>aurrera egitea. | 3. Helburu<br>Estrategikoa.<br>Gure herritarren<br>osasuna eta<br>ongizatea<br>sustatzea eta<br>babezea | 4. Helburu<br>Estrategikoa.<br>Lurraldearen<br>jasangarritasuna<br>handitzea. | 5. Helburu<br>Estrategikoa.<br>Politiken koherentzia<br>bermatzea ingurumen-<br>integrazioa aragotuz. | 6. Helburu<br>Estrategikoa.<br>Euskadiren<br>nazioarteko<br>proiektzioa eta<br>erantzukizuna<br>sustatzea. | Proiektu<br>giltzarriak | Adierazleak |
|-----------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------|-------------|
| 1. ATALA: EREMUTEMATIKOAK   | 1. EKONOMIA ZIRKULARRA<br>ETA BALIABIDEEN<br>ERABILPENEAN<br>ERAGINKORRA                                                                                                     |                                                                                                                                                                            |                                                                                                         |                                                                               |                                                                                                       |                                                                                                            |                         |             |
|                             | a. Ekonomia zirkularra garatzea<br>eta baliabideen erabileraren<br>eraginkortasuna hobetzea.                                                                                 | 2.1 Lerroa, 2.2 Lerroa,<br>2.3 Lerroa, 2.4 Lerroa<br>2.3 Lerroa                                                                                                            |                                                                                                         | 4.4 Lerroa                                                                    |                                                                                                       |                                                                                                            | 4. PG, 5. PG<br>5. PG   |             |
|                             | b. Hondakinen kudeaketa                                                                                                                                                      |                                                                                                                                                                            |                                                                                                         |                                                                               |                                                                                                       |                                                                                                            |                         |             |
|                             | 2. KAPITAL NATURALA<br>BABESTEA,<br>KONTSERBATZEA ETA<br>HOBETZEA                                                                                                            |                                                                                                                                                                            |                                                                                                         |                                                                               |                                                                                                       |                                                                                                            |                         |             |
|                             | a. Natura eta biodibertsitatea                                                                                                                                               | 1.2 Lerroa                                                                                                                                                                 |                                                                                                         |                                                                               |                                                                                                       |                                                                                                            |                         |             |
|                             | b. Kapital naturalaren estimazioa                                                                                                                                            |                                                                                                                                                                            |                                                                                                         |                                                                               |                                                                                                       |                                                                                                            |                         |             |
|                             | c. Azpiegitura berdea                                                                                                                                                        |                                                                                                                                                                            |                                                                                                         | 4.2 Lerroa                                                                    |                                                                                                       |                                                                                                            | 6. PG                   |             |
|                             | d. Lurzorua ren babesa                                                                                                                                                       | 1.3 Lerroa                                                                                                                                                                 |                                                                                                         |                                                                               |                                                                                                       |                                                                                                            |                         |             |
|                             | e. Itsas babesa                                                                                                                                                              |                                                                                                                                                                            |                                                                                                         |                                                                               |                                                                                                       |                                                                                                            |                         |             |
|                             | 3. HERRITARREN OSASUNA<br>ETA BIZI-KALITATEA                                                                                                                                 |                                                                                                                                                                            |                                                                                                         |                                                                               |                                                                                                       |                                                                                                            |                         |             |
|                             | a. Arraunen kalitatea                                                                                                                                                        |                                                                                                                                                                            | 3.1 Lerroa                                                                                              |                                                                               |                                                                                                       |                                                                                                            | 2. PG                   |             |
|                             | b. Zarata                                                                                                                                                                    |                                                                                                                                                                            | 3.2 Lerroa                                                                                              |                                                                               |                                                                                                       |                                                                                                            | 2. PG                   |             |
|                             | c. Uraren kalitatea eta kudeaketa                                                                                                                                            |                                                                                                                                                                            | 3.1 Lerroa                                                                                              |                                                                               |                                                                                                       |                                                                                                            | 2. PG                   |             |
|                             | d. Hirien jasangarritasuna                                                                                                                                                   | 2.4 Lerroa                                                                                                                                                                 |                                                                                                         | 4.1 Lerroa, 4.3<br>Lerroa                                                     |                                                                                                       |                                                                                                            | 1. PG, 5. PG            |             |
|                             | e. Nazioarteko akordioak                                                                                                                                                     |                                                                                                                                                                            |                                                                                                         |                                                                               |                                                                                                       | 6.1 Lerroa                                                                                                 |                         |             |
| 2. ATALA: APLIKAZIO TRESNAK | 4. MERKATUAN<br>OINARRITUTAKO TRESNAK<br>ETA INBERTSIOA                                                                                                                      |                                                                                                                                                                            |                                                                                                         |                                                                               |                                                                                                       |                                                                                                            |                         |             |
|                             | a. Fiskalitate ekologikoa eta<br>ingurumenari kalte egiten dioten<br>diru-laguntzak                                                                                          | 1.4 Lerroa                                                                                                                                                                 | 3.2 Lerroa                                                                                              |                                                                               |                                                                                                       |                                                                                                            |                         |             |
|                             | b. Kontratazio publiko berdea                                                                                                                                                | 2.3 Lerroa                                                                                                                                                                 |                                                                                                         |                                                                               | 5.2 Lerroa                                                                                            |                                                                                                            | 1. PG, 3. PG            |             |
|                             | c. Inbertsioak                                                                                                                                                               |                                                                                                                                                                            |                                                                                                         |                                                                               |                                                                                                       |                                                                                                            |                         |             |
|                             | 5. GOBERNANTZA<br>ERAGINKORRA ETA<br>EZAGUTZA                                                                                                                                |                                                                                                                                                                            |                                                                                                         |                                                                               |                                                                                                       |                                                                                                            |                         |             |
|                             | a. Administrazio Publikoaren<br>kalitatea                                                                                                                                    | 1.1 Lerroa                                                                                                                                                                 |                                                                                                         |                                                                               | 5.1 Lerroa, 5.2 Lerroa                                                                                |                                                                                                            | 1. PG, 2. PG            |             |
|                             | b. Behearazpenaren bermea                                                                                                                                                    | 1.1 Lerroa                                                                                                                                                                 |                                                                                                         |                                                                               |                                                                                                       |                                                                                                            |                         |             |
|                             | c. Parte-hartze publikoa eta<br>justiziarako sarbidea                                                                                                                        |                                                                                                                                                                            |                                                                                                         | 4.5 Lerroa                                                                    | 5.3 Lerroa                                                                                            |                                                                                                            |                         |             |
|                             | d. Informazio, ezagutza eta<br>frogetarako sarbidea                                                                                                                          | 1.5 Lerroa                                                                                                                                                                 |                                                                                                         |                                                                               | 5.4 Lerroa                                                                                            |                                                                                                            | 2. PG, 5. PG            |             |

6.2. Taula. IV. IEPren helburu estrategiko, jardute-lerro eta proiektu giltzarrien eta EIRaren egituraren arteko lotura

## 6.3 ELKARRIZKETAK PERTSONA ADITU INDEPENDENTEEKIN

Euskal ingurumen-politikaren indar, ahulezia eta bikaintasun-puntuei buruzko iritzi independente eta kualifikatua izateko, elkarrizketa sakonak egin dira ingurumen-ikerketaren munduko (Unibertsitateak eta Ikerketa-zentroak) eta enpresaren munduko 8 pertsonekin.

Elkarrizketak egin baino lehen, euskal ingurumen-politikaren erronka nagusiak, aukerak eta bikaintasun-puntuak aurretik aztertzen zituen dokumentu bat bidali zitzaion, elkarrizketetan erreferentzia-puntu gisa erabiltzeko.

Elkarrizketen emaitzak baliagarriak izan dira ebaluazio-txostenaren gai bakoitzean egindako azterketa osatzeko, eta oinarritzat hartu dira euskal ingurumen-politikaren hobekuntzarako proposatutako neurri askotarako.

### 6.3. Taula. Kontsultatutako pertsona adituen zerrenda

|                            |                                                     |
|----------------------------|-----------------------------------------------------|
| Ansuategi, Alberto         | UPV/EHU                                             |
| Antigüedad, Iñaki          | UPV/EHU                                             |
| Apiñaniz, Kristina         | ACLIMA. Euskal ingurumen industrien kluster elkarte |
| Dorronsoro, Guillermo      | Deustuko Unibertsitatea                             |
| Onaindia, Miren            | UPV/EHU                                             |
| Pozo, Rogelio              | AZTI TECNALIA                                       |
| Saenz, M <sup>a</sup> José | BC3 Basque Climate Research                         |
| Sáez de Cámara, Estibaliz  | UPV/EHU                                             |

## 6.4 UDAL ADMINISTRAZIOEI ZUZENDUTAKO INKESTA

2020rako IEPa ebaluatzeko prozesuan, ezinbestekoa da Udalsarea 21era jotzea lortutako aurrerapenez egiten duen balorazioa ezagutzeko, aurkitu dituen zailtasun nagusiak zein diren egiaztatzeko, eta Euskadik 2020 urteari begira dituen ingurumen-erronketan aurrera egiteko gakoak identifikatzeko, ingurumen-politikarekin toki mailan lotura handiena duten alderdietan.

Horretarako, galdetegi bat prestatu da, toki-erakundeei (Foru Aldundiak, udalerriak eta eskualdeak) galdetzeko zer balorazio orokor egiten duten 2020rako IEParen garapenaz, eta baita alderdi hauei buruz ere galdetzeko: mugikortasun jasangarria, aurrezpen eta eraginkortasun energetikoa, kontsumo arduratsua, degradatutako hiri-inguruneen lehengoratzeara, erosketa publiko berdea, herritarren parte-hartzea, eta udalerri arteko koordinazioa. 10 erakunderen erantzunak jaso ziren, 28 Udal eta Bizkaiko Lurralde Historikoa ordezkatzuz (ikus 6.4. Taula).

#### 6.4. Taula. Inkestatutako toki-erakundeen zerrenda

| ARABA                                                                                                                                                                                        | BIZKAIA                                                                                                                                                                                                                                                    | GIPUZKOA                                                           |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------|
| <ul style="list-style-type: none"><li>• Aiarako Kuadrilla (5 udalerri ordezkatzzen ditu)</li><li>• Gorbeialdeko Kuadrilla (6 udalerri ordezkatzzen ditu)</li><li>• Gasteizko Udala</li></ul> | <ul style="list-style-type: none"><li>• Bizkaiko Foru Aldundia</li><li>• Santurtziko Udala</li><li>• Zierbenako Udala</li><li>• Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabal (11 udalerri ordezkatzzen ditu)</li><li>• Durangoko Udala</li><li>• Bilboko Udala</li></ul> | <ul style="list-style-type: none"><li>• Donostiako Udala</li></ul> |



Herri-baltzua

Sociedad Pública del

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA  
ETA ETXEBIZITZA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,  
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA

[info@ihobe.eus](mailto:info@ihobe.eus)  
[www.ihobe.eus](http://www.ihobe.eus)  
[www.ingurumena.eus](http://www.ingurumena.eus)